

2/2021 Zirkularra, apirilaren 30ekoa, *jurisdikzio-ordena zibilean lurralde-eskumenak izan behar duen tratamenduari buruzkoa*

1. Sarrera eta metodologiaren zedarriztapena. 2. Fiskaltzaren esku-hartzea eskumen-arazoetan. 3. Lurralde-eskumenari buruzko erregela orokorrak. 3.1 Aplikatu beharreko foruaren zehaztapena. 3.2 Lurralde-eskumenari buruzko arauen izaera esku-emailea. 3.3 Pertsona fisikoen foru orokorra. 3.4 Pertsona juridikoen foru orokorra. 3.5 Akzio-metaketa. 3.6 Demandatuen metaketa. 4. Lurralde-eskumenari buruzko erregela bereziak. 4.1 Fiskala alderdi edo esku-hartzaile den prozesuak 4.1.1 Pertsonen gaitasunari buruzko prozesuak. 4.1.1.1 Gaitasunari buruzko demandez arduratzeko eskumena. 4.1.1.2 Tutoretza, kuradoretza eta egitatezko zaintzaren arloko arazoei buruzko prozeduretarako eskumena. 4.1.1.2.1 Kautelazko neurriak betearazteko prozedurarako eskumena. 4.1.1.2.2 Tutorea izendatzeko prozedurarako eskumena. 4.1.1.2.3 Tutorea aldatzeko prozedurarako eskumena. 4.1.1.2.4 Ondasunak erabiltzeko eskumena. 4.1.1.2.5 Desgaitasuna duen pertsona babesteko kontrol-neurria hartzeko eskumena. 4.1.1.3 Nahi gabeko barneratzerako eskumena. 4.1.2 Oinarrizko eskubideak babesteko prozesuak. 4.1.3 Ezkontzari buruzko prozesuak. 4.1.3.1 Esparru orokorra. 4.1.3.2 Seme-alaba adingabeen zaintzari, jagoletzari eta mantenuari buruzko aurretiazko behin-behineko neurrien demanda. 4.1.3.3 Adostasunik gabeko deuseztasun-, banantze- eta dibortzio-prozedurak. 4.1.3.4 Behin betiko neurriak aldatzeko prozedura. 4.1.3.5 Neurriak aldatzeko demandaren aurreko premiazko neurriak hartzeko prozedura. 4.1.3.6 Guraso eta seme-alaben arteko neurriak, adingabe baten zaintza eta jagoletzari eta mantenuari buruzkoak. 4.1.3.7 Ezkontza-deuseztasunari buruzko epai kanonikoak efikazia zibila izateko eskaera. 4.1.4 Adingabeei buruzko prozedurak. 4.1.4.1 Adingabeak babesteko neurrien aurka egiteko prozedurak. 4.1.4.2 Nazioarteko adingabe-osteari buruzko prozedurak. 4.1.4.3 Adingabeak babesteko neurriak nahitaez betearazteko, bizilekuetara eta gainerako tokietara sartzeko baimena emateko prozedurak. 4.1.4.4 Adopzioari buruzko prozedurak. 4.1.4.5 Seme-alaba adingabearen inguruan premiazko neurriak hartzeko prozedura. 4.1.4.6 Jokabide-arazoak dituzten adingabeentzako zentroetan sartzeko baimena emateko prozedura. 4.1.4.7 Guraso-ahala kentzeko prozedura arrunta. 4.1.5 Hartzekodunen konkurtsoa. 4.1.6 Seme-alabatasunari buruzko prozesuak. 4.1.7 Mantenuari buruzko epaiketa. 4.1.8 Borondatezko jurisdikzioari buruzko xedapen orokorrak. 4.2 Fiskala alderdi edo esku-hartzaile ez den prozesuak. 4.2.1 Hitzezko

epaiketa. 4.2.2 Kanbio-prozesua. 4.2.3 Atariko eginbideak hartzeko prozedura. 4.2.4 Prozesu monitorioa. 4.2.5 Ezkontzaren ondasun-eraentza likidatzeko prozedura. 4.2.6 Betearazpen-prozedurak. 4.2.6.1 Xedapen orokorrak. 4.2.6.2 Titulu ez-judizialen betearazpena. 4.2.6.3 Gehieneko zenbatekoko autoen betearazpena. 4.2.6.4 Atzerriko titulu judizialaren betearazpena. 4.2.6.5 Arbitraje-laudoaren betearazpena. 4.2.6.6 Ondasun pignoratuaren edo hipotekatuen gaineko betearazpena. 4.2.7 Zuzenketa-eskubidea egikaritzeko prozedura. 5. Arau bereziak. 5.1 ENZNren (gaur egungo Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusia) ebazpenen aurkako demandak. 5.2 Estatuaren kontrako demandak. 5.3 Kautelazko neurrien gaineko eskumena. 6. Foru bereziak, egikaritutako akzioa dela eta. 6.1 Ondasun higiezinaren gaineko akzio errealeen forua. 6.2 Besteren ondasunen administratzaileen kontuen aurkezpen eta onarpenaren gaineko demanden forua. 6.3 Aurreko betebeharrak batzuk bermatzeko edo osatzeko betebeharren gaineko demanden forua. 6.4 Jarauntsi-arazoetarako forua. 6.4.1 Xedapen orokorra. 6.4.2 Jaso gabeko jarauntsiaren administratzailearen izendapena. 6.4.3 Jarauntsiaren zatiketa. 6.4.4 Banaketa-koadernoaren eskritura publikoa egilesteko eta sinatzeko akzioa. 6.4.5 Oinordetza, noblezia-tituluetan. 6.4.6 Jarauntsia onartzeko eta hari uko egiteko baimena. 6.4.7 Jarauntsia banatzeko baimena. 6.5 Higiezinaren errentamenduen ondoriozko akzioetarako eta utzarazpen-akzioetarako forua. 6.6 Jabetza horizontalari buruzko akzioen forua. 6.7 Ibilgailu motordunen zirkulazioak eragindako kalte eta galeren kalte-ordainari buruzko akzioen forua. 6.7.1 Araubide orokorra. 6.7.2 Errentan hartutako ibilgailuan izandako kalteen ondoriozko erreklamazioa. 6.7.3 Kaltetunaren zuzeneko akzioa, istripuaren eragilearen aseguratzailearen kontra. 6.7.4 Aseguratzaileen arteko berreskaera-akzioa. 6.7.5 Aseguratuaren kontrako berreskaera-akzioa. 6.7.6 Aseguratuaren zuzeneko akzioa, bere konpainiaren kontra. 6.7.7 Aseguratzailearen eta aseguratuaren akzioa, istripua eragin duen beste ibilgailuaren jabearen eta haren aseguratzailearen kontra. 6.7.8 Aseguratzailearen berreskaera-akzioak, autobideko emakidadunaren kontra. 6.7.9 Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren berreskaera-akzioa. 6.7.10 Osasun-laguntzaren emailearen akzioa, istripuaren eragilearen aseguruaren kontra. 6.7.11 Kaltetunaren zuzeneko akzioa, aseguratzailearen kontra, EBko beste herrialde batean gertatutako zirkulazio-istripu bat dela eta. 6.7.12 Istripuaren eragilearen eta haren aseguratzailearen kontrako subrogazio-akzioa. 6.8 Sozietate baten erabakiak aurkaratzeko akzioen forua. 6.9 Jabetza intelektualaren arloko arau-hausteen gaineko demanden forua. 6.10 Leia desleialaren arloko forua. 6.11 Patenteen eta marken arloko forua. 6.12 Kontratazioaren baldintza orokorren klausulen gaineko akzioen forua.

6.13 Jabari-hirugarrengotzen eta eskubide hobeko hirugarrengotzen forua. 6.14 Agentzia-kontratuaren ondoriozko akzioen forua. 6.15 Aseguruen arloko akzioen forua. 6.16 Ondasun higigarri gorpuzdunen epekako salmentaren eta halakoak finantzatzeko kontratuen arloko akzioen forua. 6.17 Zerbitzuak emateko kontratuen edo ondasun higigarri buruzko kontratuen arloko akzioen forua, kontratua egin aurretik eskaintza publikoa egin denean. 6.18 Kontsumitzaileen edo erabiltzaileen akzio indibidualen hondar-forua. 6.18.1 Ideia orokorrak. 6.18.2 Kontsumitzaileek merkataritza-enpresei egindako kreditu-lagapenak. 6.18.3 Aireko garraioa. 6.18.4 Bezeroek hotel-establezimenduen kontra jarritako demandak. 6.19 Kontuen zina. 6.20 Doako justizia. 6.21 Exequaturra. 7. Prozedura-arazoak. 7.1 Prozesuaren barruan eskumena ofizioz planteatzeko unea. 7.2 Berezitasunak foru bat baino gehiago dagoenean. 7.3 Egoitza-aldaketa: *perpetuatio iurisdictionis*. 7.4 Alderdien entzunaldia. 7.5 Deklinatoria. 7.6 Eskumen-gatazka negatiboak ebazteko organo eskuduna. 7.7 Lurralde-eskumenari buruzko errekurtsoak. 8. Antolaketako barneko arazoak. 9. Indarraldiari buruzko klausula. 10. Ondorioak.

1. Sarrera eta metodologiaren zedarriztapena

Ohikoa izan da Fiskaltzari esleitzea jurisdikzio-ordena ezberdinetan eskumena zedarritzen duten arauak betetzen direla zaintzeko eginkizuna. Eginkizun-esleipen horrek aspaldiko aurrekariak ditu, Botere Judizialaren antolaketari buruzko 1870eko behin-behineko legearen 838.3 artikuluan jaso baitzen jada.

Fiskaltzaren Estatutu Organikoa (aurrerantzean, FEO) arautzen duen abenduaren 30eko 50/1981 Legearen 3.8 artikulua xedatzen du Fiskaltzari dagokiola [...] epaileen eta auzitegien jurisdikzioaren eta eskumenaren osotasunari eustea, jurisdikzio-gatazkak eta, hala badagokio, eskumen-arazoak sustatuz eta beste batzuek sustatutakoetan esku hartuz.

Hurbilketa orokor batean, esan daiteke eskumen-arauak bete beharraren azpian interes publiko eta sozialak daudela, legeak aurrez ezarritako epaile arrunta izateko oinarritzko eskubideari lotuta.

Lurralde-eskumena 2000ko PZLren I. liburuaren II. tituluaren II. kapituluaren II. Atalean dago araututa, 50. artikulutik 60. artikulura.

Printzipioz, PZLren 54. artikulutik ondoriozta daitekeenez, lurralde-eskumenari buruzko arauak izaera esku-emailea dute. Aurrekariak aintzat hartuta, PZLk operatibitate-eremu bat aitortzen dio borondatearen autonomiari, alderdiak auzitegiaren eskumendean jartzeari (esanbidez edo isilbidez) ondorioak esleituta, lurralde-eskumena zehazteko lehenetsitako irizpidetzat jotzen baitu.

Aitorpen honen oinarrian kontzepzio hau dago: eskumen objektibo eta funtzionalaren arauak errespetatzen badira, interes publikoa babestuta egongo da, eta ez du eraginik izango ordena bereko zein organok duen ardura. Beraz, luzagarritzat jotzen duen arau orokor bat izan behar da abiapuntua.

Hala ere, lurralde-eskumenaren arloan, itxuraz zabala den borondatearen autonomiaren eremua mugatuta dago legeak nahitaez bete beharreko foruak sartzen baititu gai ugaritan. Hauek aipa daitezke, labur: ondasun higiezinaren gaineko akzio errealeko prozesuak; jarauntsiari buruzko arazoen arloko prozesuak; oinarrizko eskubideak babesteko prozesuak; higiezinaren errentamenduari buruzko prozedurak; jabetza horizontalari buruzkoak; ibilgailu motordunen zirkulazioak eragindako kalteei buruzkoak; sozietate baten erabakiak aurkaratzeko prozedurak; jabetza industrial; lehia desleiala; patenteak eta markak; kontratazioaren baldintza orokorrei buruzko prozedurak; jabari-hirugarrengotzak eta eskubide hobeko hirugarrengotzak; aseguruak; ondasun higigarrien epekako salmenta eta halakoak finantzatzeko kontratuak; zerbitzuak emateko kontratuak edo ondasun higigarrien arloko kontratuak, egin aurretik eskaintza publikoa egon denean, eta kontsumitzaile eta erabiltzaileei buruzko prozedurak eta parekatuak.

Gainera, baztertu egiten da, oro har, *prorrogatio fori* figura hitzezko epaiketarako –PZLk ezarritako bi deklarazio-prozesu arruntetako bat–, baita prozedura berezietarako ere, zirkular honetan azalduko diren baldintzetan.

Halaber, PZLren 54.1 artikulua klausula orokor bat sartzen du, zeinaren bidez legeek lurralde-eskumenaren aginduzko izaera duten beste egoera batzuk ezartzeko sartu ahal dituzten xedapenak aipatzen baitira. Klausula horren barruan egongo lirateke Estatuaren eta parekoen pribilegiozko forua, zuzenketa-eskubidea egikaritzeko forua eta hartzekodunen konkurtsorako aurrez ikusitako forua.

Izatez, familia-prozesuetan, hitzezkoetan, monitorioan, betearazpen arruntean eta kanbio-betearazpenean, forua aginduzkoa izateak prozedura gehienek teorian salbuespena dena bete behar izatea dakar ikuspuntu kuantitatibo batetik. Esan daiteke prozesu zibiletan, praktikan, lurralde-eskumena gehiago dela aginduzkoa esku-emailea baino.

Lurralde-foruen publikatze hau hainbat alderdik justifikatzen dute: gatazkan dauden interesen izaera publikoa, epaitegien artean arazoan banaketa orekatua sustatzearen komenigarritasuna, ekonomia prozesala sustatzeko eta luzamen bidegabeak saihesteko beharra, espezializazio beharra, merkataritza-trafikoaren segurtasuna edo arartekogabetasun judiziala errazteko xedea edo eztabaidagai den harreman juridikoko alderdirik ahulenaren benetako babes judizialerako eskubidearen babesa. Justifikazio guztien elementu komuna da azpian interes publikoa dagoela, zeinak eskatzen baitu kasu hauetan lurralde-eskumenaren arauak errespetatzen direla.

Apirilaren 5eko 1/2001 Zirkularrak (*Fiskaltzak prozesu zibiletan duen esku-hartzean Prozedura Zibilararen Lege berriak duen eraginari buruzkoa*) modu periferikoan jorratu zuen lurralde-eskumena, modu merezidunean, kontuan hartuta ez zegoela esperientzia praktikorik. PZL argitaratu zenetik 20 urte baino gehiago igaro ondoren, berrikusi eta osatu egin behar dira haren postulatuak, ez baitira behar besteko argiak izan praktikan agerian jarri dituen interpretazio-zalantzak argitzeko.

Dokumentu honen xedea da fiskalentzat lagungarri izatea eskumenari buruz ebatzi behar dutenean, kontuan hartuta epaileak gai hori ofizioz planteatzen duen prozedura guztietan esku hartu behar dutela. Irizpideen sakabanatzeak eta kasuistikak asko zailtzen dute gatazka bakoitzean konponbide egokia bilatzeko lana.

Epaitegiak bere eskumenari buruz dituen zalantzen aurrean, fiskalak irizpen funtsatu eta zorrotza ematen badu, esponentzialki murriztuko dira eskumen-arazoa bidegabe planteatzeko aukerak, eta, ondorioz, murriztu egingo dira gertaera horiek sortu ohi dituzten luzamenak.

AGren 2016ko azaroaren 29ko Autoak (1001/2016 errekurtsua) dioen bezala, eskumen-arazoei atzeratu egiten dute egindako eskaeraren ebazpena, eta kalte larria eragiten diete interesdunei.

BJKN eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren estatistiken arabera, urtero dauden lurralde-eskumenaren arloko gatazken zifrak oso handiak dira, eta kasu horietan prozesuaren iraupenari gehitutako denbora batez beste hamar hilabete eta erdikoa dela kalkulatu da, Auzitegi Gorenak ebatzi behar ditutenean.

Praktikan planteatzen diren gatazketako asko erraz saihesteko modukoak dira, eztabaidagai den gaia jada ebatzi baitu Auzitegi Gorenak, zeinak dotrina ugaria sortu baitu lurralde-foruak direla eta.

Zirkular honen helburua ez da kasu guztiak aztertzea –neurrigabeki luzatzea ekarriko bailuke–, arazo gehien sortzen dituzten eremuak eta argiro finkatutako konponbideak azaltzea baizik. Erantzuna emango zaie zalantzazko kasuei, sistematizatu egingo dira gaiak, ordenatu egingo dira irizpideak eta aurkibide zehatza eskainiko da, irizpena eman behar duten fiskalei ahalik eta gehien errazteko kontsulta.

2. Fiskaltzaren esku-hartzea eskumen-arazoetan

Demanda aurkeztu ondoren, fiskaltzaren esku-hartzea epaitegiak lurralde-eskumenik eza egon daitekeela ikusten duen kasuetan baino ez dago aurreikusita, betiere aginduzko arauak finkatuta badago eskumen hori (PZL, 58. art.).

Fiskaltzak alderdiak eskatuta planteatzen diren eskumen-arazoetan parte hartzeari dagokionez, 1/2001 Zirkularrak hau xedatzen zuen: «Kontuan hartu behar da PZLk ez duela jasotzen esku-hartze hori, baina ez duela espresuki baztertzen ere. Beraz, ez luke zentzu praktikorik izango fiskalei transmititzea etorkizunean auzilariak susta ditzaketen deklinatoria guztietan nahitaez esku hartu behar dutela, Fiskaltzak deklinatoriaren berri izateko, ezinbesteko baldintza baita epaileak edo auzitegiak eskaera helaraztea. Puntu honetan, beste askotan bezala, baliteke interpretazio ugari egotea, eta, horren ondorioz, txosten bat eskatzea edo halakorik ez eskatzea, fiskalak gai horretan izan behar duen rolaren inguruan hartzen den irizpidearen arabera. Edonola ere, fiskalek eskumenaren gaineko irizpena emango dute eskatzen zaien guztietan, eta, horretarako, behar den uniformetasuna bermatuko dute edukian eta bidezketasunean, eta, beharrezkoa bada, legeak baimendutako errekursoak erabiliko dituzte espazio funtzional historiko bati hain modu zuzenean eragiten dioten zalantzak argitzeko».

Bada, PZL aplikatzean lortutako esperientzia eta gero, esan daiteke eskumenari buruzko xedapenen exegesi bat nagusitzen dela: Fiskaltzak soilik esku hartuko du eskumen-arazoa ofizioz planteatzen denean (prozesu nagusian alderdi izan zein ez) eta alderdi batek eskatuta planteatzen denean (kasu honetan, prozeduran alderdia denean baino ez).

Testuinguru berri honetan, fiskalen abiapuntua izan beharko da ez dutela irizpenik eman behar esku hartu behar ez duten prozeduretan alderdi batek eskatuta planteatzen diren eskumen-arazoetan, salbu eta deklinatoriaren bidez aginduzko forua urratu dela alegatzen bada.

Hain zuzen ere, PZLren 59. artikularen edukiaren ondorioz pentsa badaiteke ere deklinatoriak soilik ematen duela aukera alderdiek lurralde-eskumena baliatzen duten kasuen aurrean erantzuteko, isilbidez eskumendean jartzea saihesteko, kontua da, aginduzko foru bat bete behar denean eta jurisdikzio-organoak kontrola ofizioz egiten ez duenean, ezerk ez duela eragozten salatuak eskumenik eza deklinatoriaren bidez salatzea (*a minore ad maius* argudioa).

Horrenbestez, deklinatoriaren bidez aginduzko forua urratu izana salatzen denean (PZL, 59. art.), fiskalak esku hartzeko justifikazioa epaitegiaren ofiziozko kontrola baliatzean

irizpena eskatzen zaionean dagoen justifikazio bera (PZL. 58. art.) dagoela izan behar da abiapuntua. Beraz, kasu horietan, Fiskaltzak esku hartu behar ez duen prozesuak izan arren, epaitegiak fiskalari helarazten badio, hori egiteko xedapen espresurik ez badago ere, fiskalak lurralde-eskumenari buruzko irizpena eman beharko du.

Hortaz, fiskaltzat irizpena emango du ofiziozko kontrola baliatzean helarazten zaionean (prozedura zibil guztietan), zein alderdi legitimoak planteatutako deklinatoriaren ondorioz helarazten zaionean, betiere prozeduran alderdi bada, eta, hala ez bada, urratutzat jo den forua aginduzkoa bada.

Fiskalak deklinatoria sustatu ahal –eta behar– izango du alderdi legitimo den prozesuetan, tartean aginduzko foru bat egonda epaitegiak ofiziozko kontrola aktibatu ez badu.

Zalantzazko kasuei buruzko irizpena eman behar dutenean, fiskalek beti hartuko dute aintzat bidegabeko luzamenik gabeko prozesua izateko eskubidea, eta benetako babes judiziala gehien errespetatzen duen aukera baliatu beharko dute. Auzitegi Gorenak maiz erabiltzen du exegesi-jarraibide hau (ikusi AGA, 2018ko irailaren 18koa, 128/2018 errekurtsua).

3. Lurralde-eskumenari buruzko erregela orokorrak

3.1 Aplikatu beharreko foruaren zehaztapena

Aplikatu behar den eskumenari buruzko araua zehazteko, PZLren 50. artikuluetara eta hurrengoetara jo behar da.

50. artikulua (pertsona fisikoen forua) eta 51. artikulua (pertsona juridikoen forua) nolakotasun pertsonalaren arabera arau orokorrak ezartzen dituzte, eta 52. artikulua, berriz, egikaritutako akzioa edo hasitako prozeduraren arabera aplikatu beharreko foru bereziak ezartzen ditu. Aplikatu beharreko forua zehazteko, lehenik eta behin, PZLren 52. artikuluan *lex specialis* gisa ezarritakoa hartu behar da kontuan. Ezin bada aplikatu unean uneko kasuan, 50. eta 51. artikuluetako foru pertsonalek ordezkaturako *lex generalis* arauaren arabera zehaztu beharko da eskumena.

Aintzat hartu behar da badaudela 52. artikuluan jaso ez diren aginduzko foru bereziak, PZLren 54.1 artikulua ohartarazten duen bezala. Foru berezi horietako batzuk PZLn daude jasota, eta beste batzuk, berriz, lege berezietan. Guztiak aztertuko dira zirkular honetan.

Eskumenari buruzko irizpena ematean, *prius* logikoa izango da zer prozedura mota hasi den eta zer izaera duen egikaritutako akzioak. Kalifikazio horri esker, aplikatu behar den forua zehaztu ahal izango da, baita aginduzkoa edo aukerakoa den.

Foru berezi bat aplikatu behar ez delako –ez egikaritutako akzioagatik, ezta prozeduragatik ere–, zuzenean foru pertsonalak (50. eta 51. artikulua) aplikatu behar direnean, foru esku-emaileekin bat etorrita zehaztu beharko da eskumena.

3.2 Lurralde-eskumenari buruzko arauen izaera esku-emailea

Azaldu denez, erregela orokorra da lurralde-eskumenari buruzko arauak esku-emailek direla, hau da, PZLren 54. artikulua lehen apartatua ezarritakoarekin bat, «*aplikatuko dira, bakarrik, alderdiak esanbidez edo isilbidez jarri ez badira muga-barru zehatz bateko auzitegien eskumendean*».

Jurisdikzio zibilean, lurralde-eskumena legeetan berariaz ezarritako kasuetan baino ez da aginduzkoa.

Aurrekoaren ondorioz, epaitegi zibil batek eskumenari buruzko irizpena eskatzen duenean, fiskalek zehaztu behar duten lehenengo elementua da ea aplikatu behar den aginduzko lurralde-foru bat ezartzen duen arau bat.

Ez badago aginduzko eskumen-arau bat, bidegabekoa izango da jurisdikzio-organoak arazoa planteatzea, eta, beraz, Fiskaltzaren irizpena izan beharko da ez dela ofizioz auzitan jarri behar organo horren eskumena.

PZLren 52. artikulua 1. apartatuaren 1. zenbakian eta 4. zenbakitik 15.era eta artikulua

beraren 2. eta 3. apartatueta ezarritako erregelak aplikatu behar direnean edo arau batek unean uneko foruari berariaz aginduzko izaera ematen dionean baino ezin izango du bere eskumena ofizioz planteatu epaitegiak.

Ildo horretan, *ad exemplum*, Auzitegi Gorenaren 2020ko urtarrilaren 21eko (258/2019 errek.), 2018ko irailaren 11ko (142/2018 errek.) eta 2018ko urriaren 9ko (170/2018 errek.) autoak.

Aginduzko erregelak direla-eta, lurralde-eskumena legearen bidez finkatuta ez dagoenean, «soilik ebatzi ahal da lurralde-eskumenik ez dagoela demandatuak edo alderdi legitimoak garaiz eta forma egokiz proposatzen badu deklinatoria» (*ad exemplum* AGren 2020ko azaroaren 17ko –147/2020 errek.–, 2020ko martxoaren 3ko –317/2019 errek.– eta 2019ko ekainaren 25eko –137/2019 errek.– autoak).

Ondorio horietarako, berdin dio erreklamazioa eragin duen kontratuak esanbidez eskumendean jartzeko klausula bat izatea (ildo horretan, ikusi AGren 2019ko otsailaren 26ko –26/2019 errek.– eta 2018ko ekainaren 6ko –91/2018 errek.– autoak). Hau da, epaitegiak ezin du ofizioz auzitan jarri bere eskumena alderdietako batek auzitegi jakin batzuen eskumendean jartzea itundu duelako, kasu horietan aukera baitago isilbidez jartzeko eskumendean (*ikusi* AGA, 2017ko urtarrilaren 18koa, 1032/2016 errek.).

Prozedura hitzezko epaiketaren bidez izapidetzen bada, epaitegiak beti kontrolatu behar du ofizioz bere eskumena. Epaiketa arruntaren bidez izapidetzen bada, aginduzko foru jakin bat aplikatu behar bada baino ezin izango du egin.

Hala, adibidez, ez dagokio aginduzko forua epaiketa arruntaren demanda bati, haren xede nagusia bada hipoteka-mailegu baten mugaeguneratze aurreratua kuotak ez ordaintzeagatik, diru-kopuru bat erreklamaturik (AGren 2019ko maiatzaren 21eko –85/2019 errek.– eta 2018ko irailaren 11ko –142/2018 errek.– autoak). Ez dagokio aginduzko forua etxebizitza bat erosteagatik kontura emandako kopuruak entitate gordailuzainei erreklamatzeko epaiketa arruntaren demanda bati ere ez (AGA, 2018ko urriaren 9koa, 170/2018 errek.), ezta emandako adostasunaren akatsa dela-eta deuseztagarritasuna eskatzeko eta, subsidiarioki, kontratu bat, kalte eta galerak erreklamaturik, suntsiarazteko epaiketa arruntaren demanda bati ere (AGA, 2018ko abenduaren 11koa, 217/2018 errek.). Ez dago aginduzko foru baten pean epaiketa

arruntaren demanda bat non diru-kopuru bat erreklamatzeko akzio bat egikaritzen den ospitaleetan osasun-zerbitzu eskasa emateagatik (AGA, 2018ko abenduaren 18koa, 223/2018 errek.). Ez dago aginduzko foruaren mendean ere epaiketa arruntaren bidez izapidetu behar den kontratuz kanpoko erantzukizun zibilaren arloko akzio bat (AGA, 2014ko urtarrilaren 7koa, 179/2013 errek.), ezta salerosketa kontratu bat kalte eta galeren kalte-ordainarekin suntsiarazteko epaiketa arruntaren demanda bat ere (AGA, 2020ko martxoaren 3koa, 317/2019 errek.). Ez daude aginduzko foru baten mendean ere kalte eta galerengatik diru-kopuru bat erreklamatzeko demanda bat (AGA, 2020ko otsailaren 18koa, 276/2019 errek.), hipoteka betearazteko prozedura batean deuseztasun-akzio bat egikaritzeko epaiketa arruntaren demanda bat (AGA, 2020ko otsailaren 18koa, 297/2019 errek.) eta kreditu-erakundeak finantzaketa-mailegu baten kontratua betetzeko abiarazitako akzio bat (AGA, 2019ko abenduaren 17koa, 175/2019 errek.). Ezta enpresa batek, garraio-zerbitzu batzuk ematearen ondoriozko diruzko kondena-akzio bat egikaritzean, epaiketa arruntaren bidez egikaritutako akzio bat (AGA, 2019ko abenduaren 10ekoa, 269/2019 errek.) edo KZren 1535 artikulua babesean egikaritutako kreditu auzigaia atzera eskuratzeko akzio bat ere (AGA, 2019ko azaroaren 19koa, 219/2019 errek.). Ez dagokio halakorik, norbanakoen arteko mailegu-kontratu bat ez betetzeagatik, diruzko kondenaren arloko akzio bat dela-eta izapidetutako epaiketa arrunt bati (AGA, 2019ko urriaren 29koa, 186/2019 errek.) Ez dagokio aginduzko forua banku baten kontrako epaiketa arruntaren demanda bati, zeinean Espainiako Bankuko Arriskuen Informazio Zentralean dauden datuak ezeztatzeak akzioa egikaritzen baitzen (AGA, 2019ko ekainaren 4koa, 57/2019 errek.).

Gorago azaldu den bezala, hitzezko epaiketaren bidez erabaki behar diren auzietan ez da baliozkoa esanbidez edo isilbidez eskumendean jartzea; beraz, ez badira aplikatzekoak 52. artikuluan ezarritako foruak, pertsona fisikoen (PZL, 50. art.) edo pertsona juridikoen (PZL, 51. art.) foru orokorrak kontuan hartuta finkatu beharko da eskumena, demandatuaren izaera aintzat hartuta. Halako epaiketetan egikaritutako uzia edozein dela ere, lurralde-eskumena aginduz ezarriko da beti (ikusi, *ad exemplum*, AGren 2020ko martxoaren 10eko –233/2019 errek.– eta 2019ko uztailaren 2ko –79/2019 errek.– autoak). Hitzezko epaiketaren bidez izapidetu behar diren prozedurak PZLren 250. artikuluan daude zehaztuta.

Aginduzko foruak dira prozesu monitoriorako (PZL, 813.2 art.), kanbio-epaiketarako

(PZL, 820.3 art.) eta betearazpen-prozesurako (PZL. 545.3 art.) ezarritakoak.

Halaber, aginduzko foruak dira pertsonen gaitasunari buruzko prozesuetarako (PZL, 756 art.), ezkontzari eta adingabeei buruzko prozesuetarako (PZL, 769.4 art.), adingabeak babesteari buruzko administrazio-ebazpenen aurka egiteko prozeduretarako eta adopzioari baiezkota eman behar zaion erabakitze prozeduretarako (PZL, 779 art.) ezarritakoak, eta, Borondatezko Jurisdikzioaren uztailaren 2ko 15/2015 Legearen (aurrerantzean, B JL) 2.2 artikuluekin bat, borondatezko jurisdikzioko espedienteetarako kasu bakoitzean ezarritakoak.

Lurralde-eskumena aginduzko foruetako batek finkatzen duenean, Justizia Administrazioaren letraduak lurralde-eskumena aztertu behar du demanda aurkeztu eta berehala, eta, Fiskaltza eta pertsonatutako alderdiak entzun ondoren, ulertzen badu auzitegiak ez duela auzigaiaz arduratzeko lurralde-eskumenik, epaileari jakinaraziko dio, bidezkoa dena ebatz dezan auto bidez, eta, hala badagokio, jarduketak igorriko dizkio bere ustez lurralde-eskumena duen auzitegiari. Aukerako foruak aplikatu behar badira, ondore horietarako errekerimendua helaraziko zaio demandatzaileari eta demandatzaileak adierazitakoa beteko da (ikusi PZLren 58. art.).

Batzuetan, epaitegiek bidegabe planteatzen dute beren eskumenik eza, nahiz eta ez izan aplikatzekoa aginduzko foru bat. Kasu horietan, Fiskaltzak agerian utzi behar du auzia planteatzea bidegabea dela; izan ere, kasu horietan *«lurralde-eskumenik eza zehatz daiteke, soilik, demandatuak edo epaiketan alderdi legitimo izan daitezkeenek deklinatoria garaiz eta forma egokiz proposatzen badute»* (ikusi PZLren 59. art.).

3.3 Pertsona fisikoen foru orokorra

PZLren 50. artikuluan dago araututa. Erregela orokorra lehenengo apartatuan dago, zeinak hau ezartzen baitu: *«Legeak besterik xedatu ezean, lurralde-eskumena demandatuaren egoitzako auzitegiari dagokio, eta, demandatuaren egoitza ez badago nazioko lurraldean, epaile eskuduna izango da demandatuak lurralde horretan bizilekua non izan eta bertako auzitegia»*.

Bigarren eta hirugarren apartatuek berezitasunak ezartzen dituzte Espainian egoitza edo

bizilekurik ez dutenentzat eta enpresaburu eta profesionalentzat.

Printzipioz, arau honek ez du ezartzen aginduzko forurik, eta, beraz, epaitegiak ezin du eskumena sustatu demandatuak egoitza bere barruti judizialean ez duela uste duelako besterik gabe.

Prozedura dela eta –esate baterako, hitzezko epaiketa–, esanbidez edo isilbidez eskumendean jartzerik ez dagoenean baino ezin izango da planteatu ofizioz arazoa, eta orduan planteatu ahal izango da inhibizioa, demanda aurkezten den epaitegiaren barruti judizialean demandatuak egoitzarik ez badu. Demandatuaren egoitza-aldaketak beherago aztertuko dira (7.3 epigrafea).

Oro har, aintzat hartu behar da ohiko bizilekua, benetako egoitzari dagokiona, leku jakin batean geratzeko borondatearen isla baita (AGren 2016ko irailaren 14ko –923/2016 errek.– eta 2014ko maiatzaren 27ko –53/2014 errek.– autoak). Gauza bat da udal erroldaren bidez edo Zerga Agentziaren datuen bidez zehaztutako administrazio egoitza, eta beste bat da, oso ezberdina, pertsona batek nolabaiteko ohikotasunez duen bizilekua (AGren 2017ko maiatzaren 10eko –43/2017 errek.– eta 2016ko azaroaren 29ko –1001/2016 errek.– autoak).

Egoitzaren foruari dagokionez, oinarrizko hiru ideia hartu behar dira abiapuntutzat:

1) Lurralde-eskumena zehazteko, ohiko bizilekuak behin-behineko edo noizbehinkako bizilekuaren aurrean duen lehentasuna behin baino gehiagotan adierazi du AGk (AGren 2019ko ekainaren 11ko –17/2019 errek.–, 2016ko azaroaren 30eko –1057/2016 errek.– eta 2010eko otsailaren 9ko –328/2009 errek.– autoak). Hala, *ad exemplum*, ospitale batean izandako behin-behineko egonaldiak ez dakar egoitza-aldaketarik (AGA, 2018ko irailaren 11koa, 141/2018 errek.).

2) Demandatuaren egoitza ezaguna ez bada, lurralde-eskumena zehazteko, ezaguna den azkena hartuko da (AGren 2020ko martxoaren 3ko –16/2020 errek.–, 2013ko irailaren 24ko –148/2013 errek.– eta 2008ko urriaren 1eko –126/2008 errek.– autoak).

3) Eskuduntzat jotzen den beste epaitegi baten alde inhibitzea, demandatuaren bizilekua haren barruti judizialean dagoelako, ezin da erabaki adierazpen hutsetan oinarrituta;

dokumentu bidezko justifikazioa behar du (AGren 2020ko martxoaren 3ko –16/2020 errek.–, 2017ko urtarrilaren 11ko –1091/2017 errek.–, 2016ko urtarrilaren 8ko –1058/2016 errek.– eta 2016ko azaroaren 16ko –1037/2016 errek.– autoak).

Laneko helbidea ezin da erabili eskumenaren oinarri gisa. Ildo horretan, AGren 2020ko irailaren 29ko Autoak (9/2020 errek.) hau deklaritzen du: «jarduketak aztertuta, ez da agertzen demandatuaren egoitzarik Tarazonako barruti judizialean, eta barruti horren inhibitu zen Tuterako epaitegia, argudiatuta demandatuaren lanbide-jarduera egiten den lekua PZLren 155. artikulua jakinarazpen-egintzak egiteko erreserbatutako lekua dela, eta ez lurralde-eskumena zehaztekoa. Gainera, demandatua aldi baterako langilea izanda, ezin da esan Borjan egiten duen lanbide-jarduera noizbehinkakoa ez denik».

Demandatua Espainiatik kanpo bizi bada, PZLren 50.2 artikulua aplikatu behar da, zeinak hau ezartzen baitu: «[...] *Espainian egoitza edo bizilekurik ez dutenak demandatuak izan daitezke Espainian dauden tokian bertan, edo nazioko lurraldean izan duten azken bizilekuko tokian; eta horrela ere eskumena zehazterik ez badago, orduan auzi-jartzailearen egoitzako tokian izango dira demandatuak [...]*». AGren 2019ko otsailaren 5eko Autoak (225/2018 errek.) arau hori aplikatzen du.

Zalantzazko egoeretan, Auzitegi Gorenak egoitza egiaztatuenaren alde egin du. AGren 2016ko urtarrilaren 13ko Autoak (176/2015 errek.) aukera hau egin zuen: demandatua inoiz lokalizatua izen den leku bakarrari, zeina, gainera, bere oraingo bizileku gisa adierazi baitu, dagokion barruti judiziala.

Inoiz, Auzitegi Gorenak egoitza egiaztatutzat jotzen du auzia eragin duen kontratuan agertzen dena: «egoitzaren ikerketan egoitza Agoncillora aldatu zela agertzen bada ere, egoitza horretan egindako zitazioa negatiboa izan da; beraz, ez dago egiaztatuta demandatuak mailegu-kontratuan agertzen den egoitza ez den besterik duenik edo zuenik demanda aurkeztu zenean [...] kontratuan agertzen dena demandan adierazitakoa da; hortaz, lurralde-eskumenari dagokionez, kontratuan agertzen den egoitza hartu beharko da, zeina bat datorren demandan adierazitakoarekin» (AGA, 2019ko otsailaren 12koa, 239/2018 errek.).

Espetxeetako egonaldiak ezin dira erabili eskumena finkatzeko, kokaleku hori behin-

behinekoa baita. Ohiko egoitza edo bizilekua hartu behar da kontuan (AGA, 2012ko otsailaren 14koa, 249/2011 errek.).

3.4 Pertsona juridikoen foru orokorra

Erregela orokorra PZLren 51. artikulua ezartzen du: *«Legeak besterik xedatu ezean, pertsona juridikoak euren egoitza non izan eta bertan izango dira demandatuak. Era berean, auzipeko egoera edo harreman juridikoak non sortu edo ondoreak non izan eta bertan demandatuak izan daitezke, betiere pertsona juridikoek toki horretan dutenean jendaurrean zabalik dagoen establezimendua edo erakundearen izenean jarduteko ordezkari baimendua»*.

Bigarren apartatuak berezitasunak ezartzen ditu nortasunik gabeko erakundeentzat.

Berriro ere, arau honek, berez, ez du eragiten PZLren 54. artikuluan arau orokor gisa ezarritakoa salbuesten duen aginduzko foru bat. Artikulu horrek lurralde-eskumenei buruzko arauen izaera esku-emailea arautzen du, zentzu honetan: *«Lurralde-eskumena banatzeko lege-erregelak aplikatuko dira, bakarrik, alderdiak esanbidez edo isilbidez jarri ez badira muga-barru zehatz bateko auzitegien eskumendean»*. Epaitegiak ezin du eskumen-arazoa sustatu demandatuak bizilekua bere barruti judizialean ez duela uste duelako besterik gabe.

Prozedura dela eta –esate baterako, hitzezko epaiketa– esanbidez edo isilbidez eskumendean jartzerik ez dagoenean, demanda demandatua helbideratuta ez dagoen barruti judizial bateko epaitegi batean aurkezten bada, epaitegia inhibitu egin beharko da. Halaber, inhibizioa planteatu beharko da kasu berean, aginduzko foru batek ezartzen badu egoitzaren forua hartu behar dela aintzat.

Printzipioz, pertsona juridikoaren egoitza izango da dagokion erregistroan halakotzat agertzen dena. Merkataritzako erakunde erregularren kontra egiten den kasuetan, erakundeon egoitza Merkataritzako Erregistroan dagoena izango da (AGren 2019ko apirilaren 2ko –274/2018 errek.–, 2006ko urriaren 11ko –130/2006 errek.–, 2002ko ekainaren 6ko –5/2002 errek.– eta 2005eko otsailaren 28ko –110/2004 errek.– autoak).

Ezin da eskumena zehaztu sozietate demandatuaren administratzailearen egoitzaren arabera, benetan demandatua den erakundearen egoitza eta haren legezko ordezkariaren egoitza nahastu gabe. Horrek ez du esan nahi ezin zaizkionik bidali ordezkari horri demanda eta ordaintzeko errekerimendua (AGren 2020ko otsailaren 11ko –4/2020 errek.–, 2015eko ekainaren 17ko –81/2015 errek.– eta 2005eko martxoaren 16ko –8/2005 errek.– autoak).

Erabakia, beraz, demandatuaren kasuan inskribatuta dagoen egoitza soziala da, Merkataritzako Erregistroaren ziurtagirian ageri den bezala (AGA, 2020ko otsailaren 11koa, 331/2019 errek.). Hala ere, kasu batzuetan, erregistroko egoitza ez datorrenean bat pertsona juridikoaren eragiketen zentroarekin, Auzitegi Gorenak biak onartu ditu egoitzatzat eskumena finkatzearen ondorioetarako (ikusi AGren 2017ko apirilaren 5eko Autoa, 40/2017 errek.).

Hala, AGren 2017ko ekainaren 14ko Autoan (53/2017 errek.) hau deklaritzen da, aplikatu beharreko forua PZLren 51. artikuluan ezarritakoa izanik, «Mostolesko epaitegiak dio erakunde demandatuaren egoitza soziala dela aintzat hartu behar dena, hau da, Santander. Baina banku-erakundeak jarduketetako dokumentuetan adierazitakoa Boadilla del Monten dagoena da, eta han jarri zen demanda. Herri horretan du benetako eragiketa-zentroa eta egoitza egokia da banku-erakundearen aurkako demanda jartzeko, Kapitalen Sozietatearen Legearen 9. eta 10. artikuluetan ezarritakoarekin bat, eta areto honek osoko bilkuraren 2016ko martxoaren 16ko autoan –40/2016 gatazka– beste banku-erakunde bati dagokionez ezarritako dotrinarekin bat etorrira. Kasu honetan, Banco Santander SA erakundeari aplikatu behar zaiola ulertu behar da».

Bankiari dagokionez, ikusi AGren 2016ko martxoaren 16ko Autoa (40/2016 errek.), zeinak Madril eta Valentzia onartzen baititu egoitza gisa.

Ez da posible ere merkataritzako sozietateen eta enpresen egoitza haien sukurtsalen egoitzarekin nahastea, nahiz eta bigarren helbide hori epatzeko erabili ahal izan (AGren 2004ko otsailaren 2ko –44/2003 errek.– eta 2005eko otsailaren 28ko –110/2004 errek.– autoak).

Erakundea jendaurrean zabalik dagoen establezimendua duen barruti judizialean

demandatu ahal izateko, beharrezkoa da jasota egotea harreman juridikoa barruti horretan sortu dela, edo ondorioak barruti horretan izan behar dituela (AGren 2020ko otsailaren 4ko –266/2019 errek.– eta 2020ko otsailaren 4ko –309/2019 errek.– autoak).

Inoiz, AGk nabaritasunaren irizpidea (*notoria non egent probationem*) erabiltzen du egiaztatutzat jotzeko demandatuak jendaurrean zabalik dagoen establezimendua duela bere egoitzatik kanpo (ikusi AGren 2020ko otsailaren 25eko Autoa –320/2019 errek.–, BBVA dela eta, Alicanten).

Jendaurrean zabalik dagoen establezimenduaren ordezkotzat foruari dagokionez, oso interesgarria da AGren 2019ko abenduaren 10eko Autoa (228/2019 errek.), non hau deklaratzeko baita demandatuaren jabetzako hodi bat apurtzearen ondorioz demandatzailearen ibilgailuan eragindako kalteen ondoriozko kontratuz kanpoko erantzukizunari buruzko akzio bati dagokionez: «PZLren 51.1 artikulua aplikatuta –demandatzaileak aukeratu ahal duen forua–, auziaz arduratzeko eskumena du istripua gertatu zen eta, ondorioz, alderdien arteko harreman juridikoa sortu zen barruti judizialeko auzitegia. Barruti horretan garatzen du bere jardura guztia erakunde demandatuak, jendaurrean zabalik dagoen establezimendua hiri horretan izateaz gainera. Halaber, aukera horrek oinarria du Konstituzioan ezarritako benetako babes judizialaren printzipioaren interpretazioan, demandatzailea, eskatzen zaion erantzukizuna dela eta, alegatutako gertaerak izan ziren lekutik urrun mugitu behar izatea saihesten baitu».

Demanda aurkeztu ondoren demandatutako sozietateak izandako egoitza-aldaketak ez dio eragiten eskumenari (AGren 2004ko otsailaren 23ko –39/2003 errek.– eta 2004ko irailaren 28ko –44/2004 errek.– autoak).

Demanda izapidetzeko onartu aurretik demandatzaileak atzera egiten badu demandatutako erakundeetako bati dagokionez, ez dira gertatzen auzibitatearen ondorioak lurralde-eskumena egoitzaren arabera finkatzeari dagokionez (Aga, 2020ko otsailaren 18koa, 240/2019 errek.). Demanda izapidetzeko onartu ondoren atzera egiten bada demandatutako bati dagokionez, aldiz, ez da aldatuko lurralde-eskumena, jada gertatu direlako auzibitatearen ondorioak (AGren 2020ko otsailaren 18ko –351/2019 errek.– eta 2019ko otsailaren 26ko –262/2018 errek.– autoak).

3.5 Akzio-metaketa

Zenbait akzio aldi berean egikaritu direnean pertsona baten edo batzuen aurka, auzitegi eskuduna izango da gainerako akzioen oinarri zein akzio izan eta horri dagokion tokikoa (irizpide kualitatiboa); halakorik izan ezean, akzio metatu gehienen gaineko ardura zein auzitegik izan eta hori izango da eskuduna (irizpide numerikoa); eta, azken buruan, zenbateko handieneko akzioari dagokion tokiko auzitegia izango da eskuduna (irizpide kuantitatiboa). PZLren 53. artikuluan ezarrita dauden irizpide hauek subsidiarioki aplikatzen dira, eta aplikatzeko lehentasuna du kualitatiboak. Gainerako akzioen oinarritzat joko da auziaren funtsezko xedea lortzera jotzen duena, eta, arrakasta lortzeko edo osatzeko, gehitzen zaizkion gainerakoen aurrekari edo oinarri izango da.

Ezin dira aintzat hartu beste irizpide batzuk, hala nola akzioen aurrera egiteko aukera, horrek eragotzi egingo lukeelako erregela objektibagarriak eta zehatzak erabiltzea lurralde-eskumena finkatzeko. Ezinda erabili ere, metatutako akzio bakoitzaren egikaritzea justifikatzeko, demandan jasotako azalpena luzeagoa edo laburragoa izatearen irizpidea (AGA, 2017ko urriaren 25ekoa, 106/2017 errek.).

Zehazteko akzio guztietatik zein den gainerako oinarri, kontuan hartu da, adibidez, kalteen eragilearen kontrako kontratuz kanpoko erantzukizun zibilaren arloko akzioa erantzule zibilaren aseguratzailearen kontra metatuta abiarazitako akzioaren oinarria dela (AGA, 2019ko martxoaren 12koa, 272/2018 errek.). Txartel-kontratuaren deuseztasun-akzioa, Azcárate Legear oinarritzen baita, akzio nagusitzat jotzen da, informazio eta gardentasun falta dela eta, hari metatutako ordainketa-interesaren klausula deuseztatzeak akzio bati dagokionez (AGA, 2020ko azaroaren 24koa, 188/2020 errek.).

3.6 Demandatuen metaketa

PZLren 53. artikulua bigarren apartatuak xedatzen du, demandatu batzuk daudenean, eta, artikulua horretan eta aurrekoetan xedatutako erregelekin bat, toki bateko baino gehiagoko epaileei badagokie lurralde-eskumena, orduan demanda jarri ahal izango dela horietatik edozeinetan, demandatzaileak hala aukeratuta.

Beraz, kasu horietan aurretiaz aztertu beharko da ea eskumena 53. artikulua lehen

apartatuan ezarritako irizpideen arabera zehaztu ahal den. Ez bagaude soilik metaketa subjektibo baten aurrean, metaketa objektibo-subjektibo baten aurrean baizik, PZLren 53. artikulua lehen artikulua aplikatzea lehenetsi behar da. Hala, adibidez, demandatu baten kontrako akzioa bestearen kontrako akzioaren oinarria bada, akzio nagusiaren ardura izan beharko lukeena izango da eskuduna.

Ildo horretan, AGren 2003ko irailaren 25eko Autoa (19/2003 errek.) aipatu ahal da, zeinak deklaritzen baitu «ez dela akzio bakarra zenbait demandaturen kontra egikaritzea (metaketa subjektiboa), 53. artikulua 2. apartatuan araututa dagoena. Kasu honetan, metaketa objektibo-subjektibo baten aurrean gaude, zenbait akzio aurkeztu baitira (kontratua suntsiaraztekoa eta kalteen kalte-ordaina jasotzekoa) zenbait subjektuen aurka [...], eta, beraz, aipatutako artikulua 1. apartatuan eskumenari dagokionez jasotako lehen irizpidea aplikatu behar zaio, agerikoa baita oinarrizko akzio bat dagoela, kontratua suntsiaraztekoa, eta beste bat mendekoa dela, suntsiarazpen horrek eragindako kalteen kalte-ordainarena. Zehaztuta aplikatu beharreko artikulua, 51. artikulura jo behar da, zeinak zehazten baitu pertsona juridikoen forua dela haien egoitzari dagokiona».

Xedapen hori aplikatuko da demandatuak zenbait pertsona fisiko edo zenbait pertsona juridiko direnean, baita pertsona fisiko eta juridikoak direnean ere. Kasu horietan guztietan –ezin bada eskumena zehaztu 53.1 artikuluan ezarritako erregelen arabera–, demandatu bakoitzarentzat lurralde-eskumena duen edozein epaileren aurrean aurkeztu ahal izango du demanda auzi-jartzaileak.

4. Lurralde-eskumenari buruzko erregela bereziak

4.1 Fiskala alderdi edo esku-hartzaile den prozesuak

4.1.1 Pertsonen gaitasunari buruzko prozesuak

4.1.1.1 Gaitasunari buruzko demandez arduratzeko eskumena

PZLren 756. artikulua arabera, eskatutako adierazpenaren xede den pertsona bizi den tokiko epaitegiari dagokio lurralde-eskumena.

Foru horren azpian dagoen filosofia gaur egun izapidetze-prozesuan dagoen *desgaitasunen bat duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza emateko legedi zibila eta prozedura-legedia aldatzeko* lege-proiektuan (2020) mantendu da. Prozesu horiek erro-errotik aldatu dira, eta desgaitasunen bat duten pertsonen laguntza emateko neurri judizialak hartzeari buruzko prozesuak dira orain. Proiektu horretan, hau xedatzen du PZLren 756. artikuluan hiru garren apartatuak: desgaitasunen bat duten pertsonen laguntza emateko neurriak hartzeari buruzko eta zarrastelkeria-adierazpenari buruzko demandak aztertze eskuduna da eskatu adierazpena zein pertsonaren gainekoa izan eta hura bizi den tokiko lehen auzialdiko epailea eta, hala badagokio, borondatezko jurisdikzioa aurretiazko espedienteaz arduratu zena. Ukitutako pertsonaren bizilekuari dagokion foru bera ezartzen da borondatezko jurisdikzioa beste espediente batzuetarako, hala nola neurriak berrikusteko espedienterako (proiektuan, BJLren 42.bis.c art.) eta baimen judizialak lortzeko espedienterako (proiektuan, BJLren 62. art.).

Auzitegi Gorenaren dotrina da desgaitasuna duen pertsonaren bizilekuak zehazten duela lurralde-eskumena, PZLren 756. artikuluan xedatutakoarekin bat, eta foru hori aplikatu behar da judizialki gaitasuna aldatutzat deklaratu duten pertsonen laguntza- eta ordezkaritza-akzioetan ere (PZL, 52.5 art.). Behin eta berriz ezarritako dotrinarekin bat, tutoretzari eta pertsonen gaitasunari buruzko prozedurei ez litzaieke aplikatuko PZLren 411. artikuluan jasotako jurisdikzioaren iraunkortasunaren printzipioa *–perpetuatio iurisdictionis–* (AGren 2019ko urriaren 22ko –180/2019 errek.–, 2019ko ekainaren 11ko –17/2019 errek.–, 2018ko uztailaren 17ko –116/2018 errek.–, 2016ko uztailaren 13ko –938/2016 errek.–, 2017ko martxoaren 22ko –22/2017 errek.– autoak, besteak beste).

Perpetuatio iurisdictionis printzipioa aplikatzetik salbuesteak esan nahi du demanda aurkeztu ondoren bizilekua aldatzeak eragina izango duela lurralde-eskumenean.

Desgaitasuna duen pertsona aldi baterako ospitale batean edo osasun-zentro batean egoteak ez dakar, berez, haren bizilekua egotea zentro horri dagoen udalerrian. Eskumena ezin da lotu aldi baterako inguruabarrekin, auzia epaitegiz epaitegi ibiltzea eragin bailezake, eta hori bateraezina da luzamendurik gabeko prozesu bat izateko eskubidearekin. Salbuespen gisa, eta egonaldia oso luzea izango denean baino ez dago justifikatuta lurralde-eskumena pertsona ingratuta dagoen lekuko epaitegiak izatea (AGA, 2019ko ekainaren 11koa, 17/2019 errek.). Auto horretan aztertutako kasuan,

eskumena desgaitasuna duen pertsona eraman zen ospitaleari dagokion epaitegiak duela deklaratu zen, egonaldia denboran mugarik gabe luzatuko zela aurreikusten baitzen. Ildo beretik, AGren 2016ko azaroaren 30 Autoa aipatu behar da (1057/2016 errek.).

AGren 2016ko uztailaren 13ko Autoan (938/2016 errek.) esaten denez, «inoiz, kasuaren inguruabarren arabera ebatzi da eta eskumena bizilekuarena ez den beste leku batean finkatu da. Erabaki hori prozesuaren eraginkortasunean eta ekonomian oinarrituta hartu da, prozesua oso aurreratua zegoenean, eta ezgaia babesteko printzipioa aintzat hartuta batez ere».

Dotrina horren arabera, *perpetuatio iurisdictionis* delakoa gerta daiteke eginbide nagusiak eginda badaude. Hala ere, kasu bakoitzean aztertu eta ebaluatu behar da zer den komenigarriena gaitasuna auzitan jarri zaion pertsona babesteko. Hala, AGren 2019ko otsailaren 19ko Autoan (267/2018 errek.) deklaratzeko eskumena duela demandatua aldatu zen barrutiko epaitegiak, aintzat hartu gabe aurreko egoitzari zegokion epaitegiak ikerketa eta auzitegi-txostena eginda zituela zioen alegazioa. Erabaki bera hartu zen AGren 2019ko ekainaren 11ko Autoan (17/2019 errek.), aurreko egoitzari zegokion epaitegiak azterketa eta auzitegi-txostena eginda izan arren, eta defendatzaile judiziala izendatua egon arren.

Puntu honetan interesgarria da 2020ko lege-proiektuan ezarritakoa aipatzea: proiektuan jasotako PZLren 756. artikulua laugarren apartatuak ezartzen du, ikustaldia egin aurretik, prozesua epaitzen ari den pertsonaren ohiko bizilekua aldatzen bada, jarduketak dagozkion epaitegiari bidaliko zaizkiola, edozein dela ere haien egoera. Nabarmendu behar da, prozedura hauetan, lurralde-eskumenari buruzko araua gehiago zehazten dela, esaten baita desgaitasuna duen pertsonaren bizileku-aldaketek eskumen-aldaketa eragingo dutela, muga izanik ikustaldia egitea. Hortaz, une horretan, *perpetuatio iurisdictionis* delakoa gertatzen da.

4.1.1.2 Tutoretza, kuradoretza eta egitatezko zaintzaren arloko arazoei buruzko prozeduretarako eskumena

BJLren 43. artikulua arautzen du tutoretzari, kuradoretzari eta egitatezko zaintzari buruzko arazoen ardura hartzeko eskumena: *1. Espedientearen ardura hartzeko eskuduna izango da adingabearen edo gaitasuna judizialki aldatuta duen pertsonaren egoitzari*

edo, halakorik egon ezean, bizilekuari dagokion lehen auzialdiko epaitegia. 2. Tutoretzari, kuradoretzari edo egitezko zaintzari buruzko espediente baten ardura hartu duen organo judiziala eskuduna izango da gorabeheren eta izapideen eta geroago hartutako neurrien gaineko ardura izateko, baldin eta adingabeak edo gaitasuna judizialki aldatuta duen pertsonak bizilekua barruti berean badu. Hala izan ezean, gorabehera horietako baten gaineko ardura izateko, espedientearen lekukotza osoa eskatu beharko zaio hasieran horren ardura hartu zuen epaitegiari. Epaitegi horrek lekukotza bidaliko du eskaera jaso eta hurrengo hamar egunen barruan.

Eskumena tutoretzapekoa bizi den lekuko epaileari dagokio, PZLren 411. artikuluan jasotako *perpetuatio iurisdictionis* printzipioaren kasuan izan ezik. Dotrina hau bat dator Borondatezko Jurisdikzioaren 15/2015 Legean aplikatutako foruekin, gaitasuna judizialki aldatua duten pertsonen dagokienez. Izan ere, tutoretzari, kuradoretzari eta egitezko zaintzari buruzko auzi guztietarako ezartzen baitu espedienteaz arduratzeko eskumena adingabearen edo gaitasuna judizialki aldatuta duen pertsonaren egoitzari edo, halakorik egon ezean, bizilekuari dagokion lehen auzialdiko epaitegiari dagokiola (43. artikulua). Hau da, gaitasuna aldatua duen edo aldatzeko duen pertsonaren interesa lehenesten da, prozedura haren egoitzara edo bizilekura hurbilduta (AGren 2019ko urriaren 22ko –180/2019 errek.–, 2017ko abenduaren 13ko –196/2017 errek.–, 2012ko apirilaren 10eko –27/2012 errek.– autoak; 2008ko abenduaren 16ko Akordioa).

Tutoretzaren egikaritza eraginkorragoa izango da desgaitasuna duen pertsonaren egoitzari dagokion epaitegiaren kontrolpean, eta, gainera, pertsona horrek justizia benetan eskura izatea ahalbidetzen du, Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren 13. artikuluekin bat etorrira (AGren 2020ko otsailaren 4ko –350/2019 errek.–, 2012ko irailaren 11ko –80/2012 errek.– autoak).

Irizpide hau tutoretzapekoaren urteko kontuak onartzeko ere aplikatzen da (AGA, 2019ko urriaren 22koa, 185/2019 errek.).

4.1.1.2.1 Kautelazko neurriak betearazteko prozedurarako eskumena

Desgaitasunen bat duten pertsonen laguntza emateari buruzko prozedura batean hartutako kautelazko neurria betearaztea eta kontrolatzea pertsona hori bizi den lekuko epaileari

dagokio, eta irizpide hori hurbilago dago desgaitasuna duen pertsona babesteko printzipiotik eta borondatezko jurisdikzioari buruzko arau berrien aplikatzeko printzipiotik (AGren 2016ko azaroaren 3ko –941/2016 errek.– eta 2016ko uztailaren 13ko –938/2016 errek.– autoak).

4.1.1.2.2 Tutorea izendatzeko prozedurarako eskumena

BJLren 43.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, tutoretzapekoaren bizilekuak zehazten du tutorea izendatzeko lurralde-eskumena. Arau hori bat dator 1881eko PZLren 63.1 artikulua ezartzen zuenarekin, lege horrek indargabetu zuen arte (AGA, 2017ko urriaren 4koa, 140/2017 errek.).

4.1.1.2.3 Tutorea aldatzeko prozedurarako eskumena

Adingabeen eta gaitasuna judizialki aldatua duten pertsonen eskubideak xede dituzten espedienteetan, BJLn eskumena egotzeko nagusitzen den irizpidea da haien egoitzarena edo, halakorik egon ezean, haien bizilekuarena. Eskumena du tutoretzapekoak ohiko bizilekua duen lekuko epaitegiak, tutoretzapean dagoenaren gaitasuna aldatutzat jo zuena ez bada ere (AGA, 2018ko apirilaren 4koa, 213/2017 errek.).

AGren 2020ko urriaren 27ko Autoak (156/2020 errek.) hau deklaritzen du: «kasu honetan, badirudi ez dagoela eztabaidarik gatazkan dauden epaitegien artean Zaragozako epaitegiak gaitasuna aldatu zion pertsona gaur egun Alcalá de Henaresko barrutian bizi dela esateko. Epaitegi honek planteatzen duena da tutorea ezin dela aldatu gaitasuna aldatzeko espedienteetan, baizik eta Zaragozan borondatezko jurisdikzioko espediente bat banatu eta bertan aztertu behar zela Alcalákoaren eskumena [...]. Egia da, ikuspegi prozesalek, egokiagoa zela Alcaláko epaitegiaren planteamendua, baina badago egitate eztabaidaekin bat: modu batean edo bestean, jarduketak Alcalá de Henaresera bidali behar izan ziren. Hori dela eta, gai honetan aztertzen ari diren interesak kontuan hartuta –tutorea aldatzea, nolabaiteko premiarekin–, arauaren espiritutik eta areto honen dotrinatik –bigarren oinarrian azaldu da– hurbilago dago Alcalá de Henaresko epaitegia jotzea eskuduntzat. Hala ere, horrek ez du eragotziko organo honek egokientzat jotzen dituen auzi-mekanismoak arbitratzea tutorea aldatzeko izapideen barruan».

4.1.1.2.4 Desgaitasuna duen pertsonaren ondasunak erabiltzeko eskumena

Gaitasuna judizialki aldatuta duten pertsonen ondasunen xedatze-egintzak burutzeko baimenari buruzko kapituluaren barruan, BJLren 62. artikulua gaitasuna judizialki aldatuta duen pertsonaren egoitzari edo, halakorik egon ezean, bizilekuari dagokion lehen auzialdiko epaitegiari ematen dio espedientearen ardura hartzeko eskumena.

4.1.1.2.5 Desgaitasuna duen pertsona babesteko kontrol-neurria hartzeko eskumena

Gaitasuna judizialki aldatuta duen pertsona lokalizatzeko eta kontrolatzeko neurria ezartzeko –haren osotasun fisiko eta mentalerako arriskuak saihesteko– baimen judiziala eskatzeari dagokionez, lurralde-eskumena babes-neurria ezarri nahi zaion pertsonak egoitza duen udalerriko lehen auzialdiko epaitegiari ematea erabaki da (AGA, 2016ko azaroaren 30ekoa, 1057/2016 errek.).

4.1.1.3 Borondatezkoa ez den barneratzerako eskumena

Barneratzeko baimena emateko eskumena ezin da zehaztu PZLren 61., 410. eta 411. artikuluetan ezarritako erregelak aplikatuta, ez baitaukate loturarik hartu nahi den erabaki zehatz horren helburu espezifikoarekin. PZLren 763.1 artikuluan lurralde-eskumenaren inguruan ezarritako erregela orokorra aplikatu behar da. Izan ere, erregela horrek ezartzen du borondatezkoa ez den barneratzea baimentzeko, lurralde-eskumena ukitutako pertsonak egoitza duen lekuko epaileari dagokiola, eta neurria berresteko eskumena, berriz, –presako barneratzeen kasuan– barneratze-zentroa dagoen tokiko auzitegiari (AGren 2020ko otsailaren 25eko –348/2019 errek.–, 2016ko apirilaren 7ko –253/2016 errek.– eta 2015eko abenduaren 2ko –200/2015 errek.– autoak).

Jada abenduaren 22ko 9/2015 Zirkularrak (*Borondatezko Jurisdikzioaren Lege berrian Fiskaltzak izan behar duen esku-hartzeari buruzkoa*) gogorarazten du Auzitegi Gorenak lurralde-eskumenari buruz duen dotrina zentroz aldatzen den kasuetan barneratzearen jarraipena eta kontrola egiteko. Dotrina horren arabera, eskumena ukitutako pertsona aldatua izan den lekuko epaitegiari dagokio, eta ez barneratzea baimentzeko ebazpena eman zuen epaitegiari (2012ko martxoaren 27ko –41/2012 errek.–, 2010eko maiatzaren 11ko –359/2009 errek.– eta 2008ko abenduaren 11ko –204/2008 errek.– autoak).

4.1.2 Oinarritzko eskubideak babesteko prozesuak

PZLren 52.1.6 artikulua xedatzen du, ohorerako eskubideari, pertsonaren eta familiaren intimitaterako eskubideari eta norberaren irudirako eskubideari dagokienez, eta, oro har, oinarritzko eskubideen babes zibilari dagokionez, demandatzailearen egoitzako auzitegia izango dela eskuduna, eta, demandatzaileak egoitza Espainiako lurraldean ez badu, kasuan kasuko oinarritzko eskubidea urratu duen egitatea gertatu den lekuko auzitegia izango dela eskuduna.

Arauak demandatzailearen egoitzaren forua jasotzen du (ikusi AGA, 2018ko uztailaren 17koa, 151/2018 errek.). Foruaren xedea da iraina jaso duen pertsonaren babesa, batez ere desorekak ekiditeko, demandatua komunikazio-enpresa bat denean.

Lurralde-eskumena egozteko arau prozesal honen xedea da, argi eta garbi, kaltetua babestea, salatutako gertaerak oso garrantzitsuak direlako oinarritzko eskubideei eragiten baitiete, eta, beraz, baztertu egiten da alderdi demandatuaren bizilekuari dagokion foruaren aplikazio normala (Auzitegi Gorenaren urtarrilaren 31ko 26/2014 epaia).

Auzitegi Gorenaren urtarrilaren 31ko 26/2014 epaiak kasu hau aztertzen du: zenbait demandatzaile zeuden, eta haietako batek Sevillan zuen egoitza. Hori dela eta, eztaba daezintzat jotzen da Sevillako epaitegien lurralde-eskumena demandaz arduratzeko, lurralde-eskumen hori demandatzaileek egoitza duten herrietako edozeini dagokion epaileari egotzi ahal baitzaio. Izan ere, ez dago justifikaziorik organo eskuduna beste demandatzailea bizi den hirikoa izateko, ezta eragozpenik ere auzi-jartzaileek, bat baino gehiago izanez gero, haietako baten egoitzari dagozkion auzitegiak aukeratzeko.

Aginduzko forua interpretatzen duenean, AGren 2017ko maiatzaren 10eko Autoak (50/2017 errek.) hau deklaritzen du: «eskumena Madrilek du, demandatzaileak egoitza Madrilen zuelako demanda jarri zuenean. Han lan egiten zuen eta han zuen ohiko bizilekua. Eta ez dauka eraginik oraindik ere beste herri batean erroldatuta egoteak eta

Madrilgo erroldan inskribatzea atzeratu izanak».

Ohorerako eskubidea babesteko prozedura batean eskumen-gatazkaren inguruan emandako AGren 2010eko urriaren 19ko Autoan (337/2010 errek.), egoitza zehazteko (eta, beraz, eskumena zehazteko), oinarritzat hartzen da demandarekin batera aurkeztutako ahalordean agertzen dena.

Halako prozeduretan eskumena zehazteari dagokionez, ezin da egoitza hartu jo demandatzaileak zerbitzuak ematen dituen bulegoaren egoitza (AGA, 2020ko urtarrilaren 28koa, 305/2019 errek.).

Ohorerako eskubidea babesteko demanda bat aurkezteko, *Google Spain SL* eta *Google Ireland Limited* enpresek webgune baten IP helbidea eta zenbait erabiltzailearen helbidea eman ditzaten, egoitza soziala Bartzelonan duen enpresa batek aurretiazko eginbideak egiteko aurkeztutako eskaera dela eta, AGren 2019ko irailaren 24ko Autoak (146/2019 errek.) deklaratu du eskatutako aurretiazko eginbideez arduratzeko organo eskuduna dela ohorerako eskubidearen babesa demandatu nahi duen erakundeak egoitza duen hiriko lehen auzialdiko epaitegia.

Ildo horretan, AGren 2019ko apirilaren 2ko Autoak (8/2019 errek.) lurralde-eskumenari buruzko gatazka bat ebatzi zuen. Gatazka horretan, aurretiazko eginbideak eskatu ziren dokumentu batzuk erakusteko, ohorerako eskubidea babesteko demanda bat aurkezteko asmoz, eskatzailearen zenbait datu berankorren fitxategi batean sartu baitziren bidegabe. AGren ustez, «aurretiazko eginbideak eskatuta, PZLren 257.1 artikulua ezartzen du eskumena epaiketa prestatzeko jardunean adierazpena egin, zerbait erakutsi edo beste era batean parte hartu behar duen pertsonaren egoitzak zehaztuko du. Eransten du aurreko artikuluen 1. apartatuaren 6., 7., 8. eta 9. zenbakietako kasuetan, eskudun izango dela demanda zehatza non aurkeztu behar eta bertako auzitegia. Bada, kasu honetan eskatzaileak dokumentu bat erakusteko eskatu duenez ohorerako eskubidea babesteko demanda bat aurkezteko, bidegabe berankorren fitxategi batean sartu dutelako –PZLren 52.1.6 artikuluen arabera, demanda hori demandatzaileak egoitza duen herrian aurkeztu behar da–, egoera hori PZLren 256. artikuluen 1. apartatuaren 9. zenbakian ezarritakoan sartzen da, eta, beraz, eskumena du demanda jakin hori aurkeztu behar den auzitegiak».

4.1.3 Ezkontzari buruzko prozesuak

4.1.3.1 Esparru orokorra

Foru orokorrak PZLren 769. artikuluan daude araututa, eta bereizketa egiten da adostasunik gabe edo adostuta egindako prozedura den aintzat hartuta. Laugarren apartatuak xedatzen du auzitegiak ofizioz aztertuko duela bere eskumena eta deusezak direla alderdien hitzarmenak, artikulua horretan xedatutakoaren aurkakoak badira.

4.1.3.2 Seme-alaba adingabeen zaintzari, jagoletzari eta mantenuari buruzko aurretiazko behin-behineko neurrien demanda

PZLren 771.1 artikulua eskumenari buruzko arau berezi bat sartzen du: *«Ezkontza-deuseztasuna, banantzea edo dibortzioa lortzeko demanda jarri nahi duen ezkontideak eska ditzake Kode Zibilaren 102. eta 103. artikuluetan aipatu ondore eta neurriak, bere egoitzari dagokion auzitegian»*.

AGren 2016ko azaroaren 29ko Autoak (1001/2016 errek.) foru horren *ratioa* azaltzen du: «PZL parlamentuan izapidetu zenean, behin-behineko neurrietarako lurralde-eskumena prozedura nagusirako eskumena zuen epaitegiari egotzi nahi zion zuzenketa bat sartu zen (PZL berak 723. artikuluan kautelazko neurrietarako ezartzen duenaren antzera). Baina zuzenketa ez zen onartu eta 771.1 artikulua PZLren 769. artikuluan ezarritako orokorrak ez bezalako lurralde-foru bat ezarri zuen, kontuan hartuta eskatzailearentzat hurbilagoa eta errazagoa izango zela bere egoitzako epaitegira joatea [...]. Izan ere, PZLren 771.1 artikulua, ezkontza-deuseztasuna, banantzea edo dibortzioa lortzeko demandaren aurretiazko behin-behineko neurriez arduratzeko lurralde-eskumena eskaera aurkezten duen ezkontidearen egoitzako auzitegiari ematen dionean, 769. artikulua ezkontzari buruzko prozesuetarako eta adingabeen arlokoetarako ezartzen dituen foru orokorretatik aldentzen den foru berezi bat ezartzen du [...]. Epaitegi eskuduna ez da familiaren egoitzari dagokiona, ezta demandatuaren edo adingabeen egoitzari dagokiona, neurriak hartzeko eskatzen duen ezkontidearen egoitzari dagokiona baizik. [...] Legegileak aintzat hartu zuen behin-behineko neurriak prozesu nagusiaz arduratzeko eskumena zuen epaitegia ez zen beste batek hartzeko aukera [...]. Bestalde, badaude PZLren 771.1 artikulua interpretazio horren alde egiten duten dotrina-iritzia, hau da, aipatutako

neurriak eskatu behar dituenari erraztasunak ematearen aldekoak, eskaera prokuradorerik eta abokaturik gabe egin ahal izateko aukerarekin. Eskumen-foru horrek ez dio ezertan eragiten prozesu nagusiari, zeina PZLren 769. artikuluan ezarritako lekuetako batean bideratuko baita [...]. Ezin da ahaztu demandaren aurretiazko behin-behineko neurri hauen izaera, haien helburua ez baita ezkontideen arteko harremanak eta ezkontideek seme-alaba adingabeekin dituzten harremanak modu egonkorrean arautzea, Kode Zibilaren 102. eta 103. artikuluetan ezarritakoetara mugatzen baitira. Gainera, ondoriorik gabe geratuko dira hogeita hamar eguneko epearen barruan, neurriak hasieran hartu zirenetik zenbatuta, ez bada demandarik aurkezten PZLren 769. artikulua araberak eskumena duen epailearen aurrean [...]. Azaldutakoa ikusita, pentsa daiteke PZLren 771.1 artikuluan ezarritako foru berezia interpretatu behar dela egitezko banantze baten ondoren sortutako familia-egoera behin-behinean arautzeko premia larria baten aurrean demanda jartzen duenari eman behar zaizkion erraztasun bereziekin bat. Epaitegi eskuduna beste ezkontidea eta seme-alaba adingabeak bizi diren azken familia-egoitzatik urrun egoteak eragin ditzakeen zailtasunak konpondu egin daitezke [...] bai demandatutako ezkontideak eta seme-alabek ez daukatelako zailtasun berezirik epaitegira joateko, bizi diren lekutik hurbil dagoelako, bai froga pertsonalak egiteko bideokonferentzia erabiltzen delako. Aukera hori BJLOren 229. artikuluan ezartzen da “*deklarazioak, galdeketak, testigantzak, aurrez aurrekoak, azterketak, txostenak, peritu-txostenen berrespenak eta ikustaldiak*” egiteko».

Halaber, PZLren 771.1 artikuluko forua aplikatuko da, ezkontza-loturarik izan gabe, seme-alaba adingabearen zaintzari, jagoletzari eta mantenuari buruzko demandaren aurretiazko behin-behineko neurriak eskatzen direnean (2019ko otsailaren 26ko Autoa, 34/2019 errek., eta 2017ko otsailaren 6ko osoko bilkura, 1070/2016 errek.).

Aurretiazko behin-behineko neurriak hartzen diren guztietan (ezkontza-lotura izan zein ez) aintzat hartu behar da, neurriak hartzeko eskatzen zaion epaitegiak bere lurralde-eskumena ofizioz aztertzeko aukera badu ere, [...] ezin dela deklinatoriarik onartu lurralde-eskumenik ezan oinarrituta [...], PZLren 725. artikulua bigarren apartatuan ezarritakoarekin bat, behin-behineko neurriak hartzeko eskaera aurkeztu zaion epaitegiak lurralde-eskumenik ez duela uste bada ere. Hala ere, kasuaren inguruabarren ondorioz komenigarria bada, aurreneurri gisa, presa gehien duten kautelazko neurriak agindu beharko ditu, hala nola Kode Zibilaren 158. artikuluan ezarritakoak, eta, gero, auzitegi

eskudunari igorri beharko dizkio autoak (AGren 2016ko azaroaren 29ko osoko bilkuraren Autoa, 1001/2016 erre.).

AGk irizpide zehatzak ematen ditu prozedura honetan egoitzaren kontzeptua interpretatzeko: «maiz gertatzen da, ezkontza-krisietan, ezkontideetako batek ezkontideen egoitzatik alde egitea eta beste egoitza batera joatea bizitzera, normalean loturaren bat duen lekuren batera (bigarren egoitza, senide baten bizilekua, etab.). Beraz, ezkontza-krisia ematen den kasu horietan, “ohikotasun” izaera aintzat hartzea pertsona baten egoitza zehazteko modu zabalagoan eta ez hain hertsian interpretatu behar da beste kasu batzuekin alderatuta, eta ez da frogatzen zehatzik eskatu behar ohikotasun hori frogatzeko [...] Bestelako interpretazio batek urratu egingo lituzke PZLren 771.1 artikularen logika eta xedea, helburua baita familiaren egoitza utzi duen ezkontideari erraztasunak ematea demandaren aurretiazko behin-behineko neurri urgente horiek eska ditzan. Helburu hori bateraezina da leku batean denbora luzez bizi behar duela eskatzearekin edo egoitza-aldaketa erregistro ofizialetan jasota egotea eskatzearekin [...] Horregatik, ezkontide eskatzailearen egoitzaren aldaketa apetatsuak, beste ezkontidea eta seme-alaba adingabeak bizi diren lekutik artifizialki urruntzea eragin dutenak, salbuespenezko kasuetan baino ez dira jo behar lege-iruzurtzat, eta oinarri sendoak izan behar dira horretarako» (AGA, 2016ko azaroaren 29koa, 1001/2016 erre.).

4.1.3.3 Adostasunik gabeko deuseztasun-, banantze- eta dibortzio-prozedurak

PZLren 769.1 artikulua zenbait foru ezartzen ditu ezkontzari buruzko prozesuetan lurralde-eskumena zehaztu ahal izateko. Artikulu horren 1. paragrafoan hau xedatzen da: «*Esanbidez besterik xedatu ezean, kapitulu honetan aipatu prozedurez arduratzeko eskumena izango du ezkontideen egoitza zein tokitan izan eta toki horretako lehen auzialdiko epaitegiak. Ezkontideak epai-barruti berean bizi ez badira, auzitegi eskuduna izango da ezkontideen azken egoitzari edo demandatuaren bizilekuari dagokion auzitegia, demandatzaileak [...] hala aukeratuta*».

AGk jarraibideak eman ditu foru honen exegesisirako:

Behin eta berriz ezarri den dotrina da, ezkontideak epai-barruti ezberdinetan bizi badira, PZLren 769.1 artikuluko aukerako foruak nahi den moduan hautatu ahal direla (AGren

2019ko irailaren 24ko –170/2019 errek.– eta 2017ko abenduaren 20ko –194/2017 errek.– autoak).

PZLren 769.1 artikulua zenbait foru ezartzen ditu ezkontzari buruzko prozesuetan lurralde-eskumena zehazteko. Espainiako bizileku-baimenaren bidez ezkontideen azken egoitza Getafen zegoela egiaztatu denez eta demandatzaileak egoitza hori aukeratu duenez demanda jartzeko, prozedura honetaz arduratzeko lurralde-eskumena Getafeko lehen auzialdiko epaitegiari dagokiola deklaratu behar da (AGA, 2018ko uztailaren 4koa, 131/2018 errek.). Gauza bera deklaratu behar da auzi-jartzaileak aurkeztutako dokumentuetan ezkontideen azken egoitza behar beste egiaztatuta geratu delako (AGren 2013ko urriaren 29ko –144/2013 errek.– eta 2012ko ekainaren 5eko –100/2012 errek.– autoak).

AGren 2019ko irailaren 24ko Autoak (170/2019 errek.) egiaztatutzat jotzen du ezkontideak epai-barruti ezberdinetan bizi direla, ez dagoela jasota zein den demandatuaren bizilekua eta badagoela jasota ezkontideen azken bizileku komuna, «eta hala adierazi du demandatzaileak demandan, eta, halaber, jasota dago ezkontzaren Erregistro Zibileko inskripzioan». Beraz, arrazoi horiek aintzat hartuta, lurralde-eskumena azken egoitza horri dagokion lehen auzialdiko epaitegiari ematen zaio.

Ezkontideen egoitza benetan jasota egotetik –demandatzailearen arabera Parlan zegoen– haratago, egia da, bizilekuaren inguruan egindako ikerketaren ondoren, demandatuaren egoitza herri berean dagoela. Hori dela eta, lurralde-eskumena Parlako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegiari dagokiola deklaratu behar da (AGA, 2019ko azaroaren 5ekoa, 201/2019 errek.).

Egiaztatuta dago bikoteak PFEZaren baterako aitorpenean agerrarazitako egoitza Santander dela, eta auzi-jartzailearen enpresen egoitza ezin da erabili bizilekua zehazteko, enpresek ez dutelako zehazten pertsonen egoitza. Halaber, emazteak aurkeztutako errolda-ziurtagiria ere ezin da erabili, zaharra delako eta demandatuari buruzkoa baino ez delako (AGA, 2019ko uztailaren 2koa, 135/2019 errek.).

AGren 2021eko otsailaren 16ko Autoaren arabera (290/2020 errek.), «kasu honetan, ezkontide biak egoitza ezberdinetan bizi direla agertzen da, eta, beraz, ezkontideen azken

egoitza edo demandatuaren bizilekua aukeratu ahal du demandatzaileak eskumen-eremua finkatzeko. Hala ere, demanda Madrilgo Lehen Auzialdiko 28 zenbakiko Epaitegian aurkeztu zen, epaitegi horren eskumena arrazoitzeke ezkontideak banantzeko demandaz epaitegi hori arduratu zela argudiatuta. Nolanahi ere, jarduketak aztertuta, ez dago daturik egiaztatzeke ezkontideen azken egoitza Madrilen egon zenik, banantze-epaia eman zenean –demandatzaileak hiriburu horretako epaitegien lurralde-eskumena arrazoitzeke alegatu du– ezkontideak egoitza ezberdinetan bizi zirelako dagoeneko. Horrenbestez, ez dagoenez behar beste egiaztaturik ezkontideen azken egoitza Madrilen egon zenik, eskumena demandatuaren bizilekuari dagokion auzitegiari egotzi behar zaio».

Hondar-foru gisa, hau ezartzen da 769.1 artikulua 2. paragrafoan, *in fine*: «Egoitza edo bizileku finkorik ez dutenak demanda daitezke, demandatzaileak hala aukeratuta, dauden tokian edo euren azken bizilekuan. Era horretara ere ezin bada eskumenik zehaztu, eskumena izango du auzi-jartzailearen egoitzari dagokion auzitegiak». Foru hori aplikatu da AGren 2019ko otsailaren 19ko Autoan (227/2018 erre.): «ez dagoenez behar beste egiaztaturik ezkontideen azken egoitza [...] herrian egon zenik eta demandatua Espainiatik kanpo dagoenez eta Estatu Batuetan bizi denez, PZLren 769.1 artikuluan 2. paragrafoan *in fine* ezarritakoa aplikatu behar da. Hori dela eta, eskumen-forua auzi-jartzailearen egoitzako auzitegiari dagokio».

4.1.3.4 Behin betiko neurriak aldatzeko prozedura

PZLren 775. artikulua 1. lehen apartatuaren arabera, «fiskaltzak, seme-alaba adingabeak edo ezgaituak egonez gero, eta ezkontideek, beti, auzitegiari eska diezaiokete ezkontideek hitzartu neurriak edo hitzarmenik izan ezean hartutakoak aldaraztea, baldin eta funtsean aldatu badira neurriok onestean edo erabakitzean aintzat hartutako inguruabarrak».

Foru hori AGren osoko bilkuraren 2016ko ekainaren 27ko Autoan interpretatzen da (815/2016 erre.): «ezin da ahaztu, hurbiltasunaren foruaren birtualtasun eztaba daezinaren aurrean, eskumena aldatu nahi diren neurriak hartu zituen epaitegian mantentzeak abantailak dituela eta dakartzan eragozpenak ez direla gaindiezinak. Lehenik eta behin, eskumenari buruzko foru honek kalitatea eransten dio neurriak aldatzeko erabakiari, hartu zituen epaitegia baita ondoen ebaluatu ahal duena ea hasierako ebazpena emateko kontuan hartutako inguruabarrek funtsezko aldaketarik izan duten.

Bigarrenik, eskumena modu uniboko eta eksklusiboan epaitegi horri egozte segurtasun juridikoa bermatzen duen eta eskumen-gatazkak –PZLren 769 artikulua aplikazioan ohikoak izan direnak– saihesten dituen arau argi eta zehatza da, eta, aldi berean, jagoletza duen gurasoaren egoitza-aldaketa apetatsuak eraginda izan daitezkeen lege-iruzurrak ekiditen ditu».

Ildo bereko deklarazioak dituzte AGren 2020ko urtarrilaren 21eko (306/2019 errek.) eta 2016ko uztailaren 20ko (71/2013 errek.) autoek.

AGren 2019ko irailaren 17ko Autoak (125/2019 errek.) hau eranstean die arrazoitze horiei: «legelariak jada haztatu ditu, zuzenbide positibo bihurtuta, araua aplikatzen duten organo judizialek baztertu ezin duten konponbidearen abantailak eta eragozpenak, legezketasun-printzipioaren oinarritzko eskakizunek eraginda».

Neurriak aldatzeko sustatutako prozesuak seme-alaba adindunei baino eragiten ez dienean, AGk deklaratu du, «argi eta garbi, PZLren 769. artikulua 1. apartatua aplikatu ahal da lurralde-eskumena zehazteko» (AGA, 2013ko irailaren 10ekoa, 71/2013 errek.).

Aldatu nahi ziren neurriak atzerrian eman baziren, Espainiako organo jurisdikzionalen nazioarteko eskumena deklaratu ondoren, ezinezkoa zenez PZLren 775. artikulua aplikatzea banantze-epaia Errumaniako organo jurisdikzional batek eman zuelako, auziaz arduratze eskumena adingabearen egoitzako lehen auzialdiko epaitegiari egotzi zaio PZLren 769.3 artikuluan ezarritakoa aplikatuta (AGA, 2019ko irailaren 17koa, 125/2019 errek.).

Aurretiaz egindako banantze- edo dibortzio-prozedura bateko neurriak edo seme-alaba adingabeei buruzko neurriak aldatzeko, etorkizunean aurkez daitezkeen demanda bat prestatzeko aurretiazko eginbideak sustatzen direnean, «ezin da aplikatu PZLren 775.1 artikulua, ez baita neurriak aldatzeko demanda bat, PZLren 256.1.2 artikulua babesean aurkeztutako aurretiazko eginbideen eskaera bat baizik. Eginbide horien emaitzaren arabera erabakiko da neurriak aldatzeko demanda aurkeztea ala ez. Hori dela eta, eskumena dokumentuak erakutsi behar dituen pertsonaren bizilekuko epaitegiei dagokie» (AGA, 2016ko azaroaren 3koa, 1046/2016 errek.).

4.1.3.5 Neurriak aldatzeko demandaren aurreko premiazko neurriak hartzeko prozedura

Demanda nagusiaz arduratzeko eskumena duen epaitegia izango da eskuduna (AGA, 2015eko maiatzaren 27koa, 68/2015 errek.).

4.1.3.6 Guraso eta seme-alaben arteko neurriak, adingabe baten zaintza eta jagoletzari eta mantenuari buruzkoak

PZLren 769. artikulua hiru garren apartatuak ezartzen du kasu horietan gurasoen azken egoitza erkideari dagokion lehen auzialdiko epaitegia izango dela eskuduna. Gurasoak epai-barruti berean bizi ez badira, demandatuaren egoitzaren tokiko edo adingabearen bizilekuaren tokiko auzitegia izango da eskuduna, demandatzaileak hala aukeratuta.

Eskumen-araubide berezi honen oinarria da adingabeen –eta ezgaituen– interesen tutoretza errazago lortuko dela haien egoitzei dagozkien epaitegietan, eta auzia bizilekutik urrun bideratzeak eragin ohi dituen gehiegizko gastuak eta arazoak saihestu ahal direla (AGA, 2013ko azaroaren 19koa, 176/2013 errek.).

PZLren 769.3 artikulua arabera, adingabe baten zaintza eta jagoletzari buruz eta mantenuari buruz hartzen diren guraso eta seme-alaben arteko neurriez arduratzeko lurralde-eskumena, gurasoak ez direnez bizi epai-barruti berean, demandatuaren egoitzaren tokiko edo adingabearen bizilekuaren tokiko auzitegiei dagokie, demandatzaileak hala aukeratuta (AGren 2020ko martxoaren 3ko –16/2020 errek.–, 2019ko azaroaren 19ko –213/2019 errek.– eta 2018ko azaroaren 27ko –211/2018 errek.– autoak).

Demanda PZLren 771. artikulua babesean aurkeztu arren, egia da, fiskalak dioen bezala, ezin dela aplikatu, ez baita inolako frogarik aurkeztu demandatzailearen eta demandatuaren arteko ezkontza egiaztatzeko, ezta haien arteko bizikidetza justifikatzeko ere. Hortaz, PZLren 769.3 artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da (AGA, 2013ko abenduaren 3koa, 186/2013 errek.).

Arazoak sortzen dituzte adingabeak egin behar dituen joan-etorriak. AGren 2019ko

maiatzaren 7ko Autoak (54/2019 erre.) konponbide bat planteatzen du: egiaztatuta dagoenez aldatu egiten dela adingabearen bizilekua, herri batetik bestera lekualdatzen baitenez, alderdiek eskumena aitortu zioten lehen auzialdiko epaitegiari dagokio eskumena, organo horretan aurkeztu baitzen demanda, bertan eman baitzitzaien erantzuna, bertan egin baitzen adingabearen familia-egoeraren eta peritu-froga psikosoziala, baita neurrien komenigarritasunari buruzko froga ere. Gainera, alderdiak epaiketako egintzara agertu ziren.

4.1.3.7 Ezkontza-deuseztasunari buruzko epai kanonikoak efikazia zibila izateko eskaera

PZLren 769.1 artikuluko forua aplikatzen da (ezkontideen bizilekuko lehen auzialdiko epaitegia, eta, ezkontideak epai-barruti berean bizi ez badira, ezkontideen azken egoitzari edo demandatuaren bizilekuari dagokion epaitegia). Demandatzaileak aukeratuko du (AGA, 2019ko otsailaren 12koa, 7/2019 erre.).

4.1.4 Adingabeei buruzko prozedurak

4.1.4.1 Adingabeak babesteko neurrien aurka egiteko prozedurak

PZLren 779. artikulua arabera, prozedura horietaz *«arduratzeko eskumena du erakunde publikoaren egoitzari dagokion lehen auzialdiko epaitegiak»*.

Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren azken xedapenetako hogeita bigarrenak ezartzen du babes-erakunde publikoak direla autonomia-erkidegoek eta Ceutak eta Melillak beren antolaketa-arauekin bat etorrita izendatzen dituztenak.

Horrenbestez, aplikatu beharreko forua izango da, eskumenak emateko arau autonomikoak direla bide, errekurritutako ebazpena eman duen organoaren egoitzarena. Organo hori gobernu autonomikoaren sail bat izan daiteke, edo sail eskuduneko zuzendaritza nagusi bat edo probintzia-ordezkaritza bat. Kasu horietan, ezin da aplikatu PZLren 779. artikulua *«eta, halakorik izan ezean»* adierazpidearekin sartzen duen ordezko forua, administrazio-ebazpen bat bada aurkaratutakoa, eman duena beti izango

delako erakunde publiko bat.

Xedapen horiek oinarri hartuta, AGren 2019ko ekainaren 25eko Autoak (88/2019 erre.) hau deklaratu du: «aplikatu beharreko eskumen-forua aintzat hartuta –erakunde publikoaren egoitza–, bai Santa Cruzen bai Las Palmasen gizarte-gaien arloko eskumena duen gobernu autonomikoko sailaren ordezkaritza bat dago, baina prozedura honetan adingabeen amak aurkaratu duen babesgabezia ebazpena Kanaria Handiko Las Palmasen egoitza duen Kanarietako Gobernuak Haurrak eta Adingabeak Babesteko Zuzendaritza Nagusiak eman zuenez, lurralde-eskumena udalerrri horretako [...] lehen auzialdiko epaitegiari dagokio, eta amak horren aurrean aurkeztu zuen bere aurkakotza, egoitza hiri horretan duen erakundea arduratu baita adingabeak babestez».

4.1.4.2 Nazioarteko adingabe-osteari buruzko prozedurak

PZLren 778 quater artikulua bigarren apartatuarekin bat, *«prozesu horietan, eskuduna izango da, halakorik balego, probintziako hiriburuko edo Ceutako edo Melillako lehen auzialdiko epaitegia, familia-zuzenbidearen gaian eskumenak dituen, zeinaren mugabarruan lekualdatze edo atxikitze ez-zilegi baten objektu izan den adingabea dagoen, eta, halakorik ezean, banaketa-txandaren arabera egokitzen dena. Auzitegiak ofizioz aztertuko du bere eskumena»*.

Foru honen interpretazioa azaroaren 17ko 6/2015 Zirkularraren (Nazioarteko adingabe-ostearen alderdi zibilei buruzkoa) 8.4.2 epigrafean aztertzen da, eta haren edukia hemen jasotzat jo behar da.

4.1.4.3 Adingabeak babesteko neurriak nahitaez betearazteko, bizilekuetara eta gainerako tokietara sartzeko baimena emateko prozedura

PZLren 778 ter artikulua lehen apartatuarekin bat, *«Erakunde publikoak berak egoitza duen tokian eskumena daukan lehen auzialdiko epaitegiari eskatu beharko dio egoitzetan eta gainerako eraikinetan eta tokietan sartzeko baimena, erakunde horrek adingabe bat babesteko hartutako neurriak nahitaez betearazteko beharrezkoa denean hura, betiere haietan sartzeko haien titularraren edo okupatzailearen adostasuna behar bada. Ebazpen judizial batek konfirmatutako egintza baten betearazpena denean, hura eman*

zuen organoari zuzenduko zaio eskaera».

4.1.4.4 Adopzioari buruzko prozedurak

1/2001 Zirkularrak adopzioaren arloko lurralde-eskumenari buruz xedatzen duena gainditutzat jo behar da BJL argitaratu ondoren, zeinak hau xedatzen baitu 33. artikuluan: *«Adopzioari buruzko espedienteetan, adopziogaiaren babesa aginduta duen erakunde publikoaren egoitzari dagokion lehen auzialdiko epaitegia izango da eskuduna, eta, halakorik ez badago, adoptatzailearen egoitzari dagokiona».*

PZLren 779. artikulua eta etorrita, Kode Zibila 179. artikuluan (guraso-ahala kentzeko ezarritakoaren antzera eta arrazoi berberengatik, adopzio-hartzaileari adopzioak eragindako eskubideak eta betebeharrak kentzeko prozesuak) eta 180. artikuluan (errurik izan gabe, adopzio-espedientearen esku hartu ez duen gurasoak eskatuta, adopzioa azkentzeko prozesua) ezarritako kasuetan, adopzio-hartzailearen egoitzari dagokion auzitegiak izango du eskumena.

Erditzeari eta guraso biologikoei buruzko informazioa lortzeko, ospitale bateko dokumentuak ikusi ahal izateko, adoptatu baten borondatezko jurisdikzioko espediente-demanda bati dagokionez, KZren 180.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, AGren 2016ko martxoaren 2ko Autoak (189/2015 errek.) eskuduntzat jo zuen demandatzailearen egoitzari zegokion epaitegia, zeina ez baitzegoen ospitalea zegoen udalerrian. AGren iritziz, «ez gaude oinarritzko eskubideak babesteko kasu baten aurrean, zeinari PZLren 52. artikuluan jasotako 6. erregelari xedatutakoa aplikatu beharko bailitzaioke; eskatzailea jaio zen ospitaleko liburuak eta artxiboak kontsultatzeko eskaera baino ez da, guraso biologikoak nortzuk ziren jakiteko. Ospitaleak baimen judiziala eskatzen du kontsulta horretarako, baina kasu horretan ez da aurreikusten epaitegi eskuduna izatea dokumentuak erakutsi behar diren lekuko epaitegia».

4.1.4.5 Seme-alaba adingabeari buruz premiazko neurriak hartzeko prozedura

BJLren arabera, eskaera *«Esku-hartze judiziala, guraso-ahala egikaritzeko desadostasun kasuetan»* atalean ezarritako bidea erabilita zein *«Adingabeen edo gaitasuna judizialki aldatuta duten pertsonen zaintza-ahala egikaritzean edo haien ondasunak*

administratzean modu desegokian jokatzeari buruzko babes-neurriak» atalean ezarritako bidea erabilita izapidetuta, kasu bietan, lehenengo kasuan BJJren 86. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, eta bigarren kasuan 87. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, «Adingabearen edo gaitasuna judizialki aldatuta duen pertsonaren egoitzari edo, halakorik ezean, bizilekuari dagokion lehen auzialdiko epaitegia izango da eskuduna» (AGA, 2016ko martxoaren 9koa, 34/2016 errek.).

4.1.4.6 Jokabide-arazoak dituzten adingabeentzako zentroetan sartzeko baimena emateko prozedura

Ekainaren 24ko 2/2016 Zirkularraren (*Jokabide-arazoak dituzten adingabeak babes-zentro berezietan sartzeari buruzkoa*) 4.2 epigrafean dago landuta gai hau, eta haren edukia hemen jasotzat jo behar da.

4.1.4.7 Guraso-ahala kentzeko prozedura arrunta

Aplikatu beharreko eskumen-forua da PZLren 769.3 artikuluan ezarritakoa, Lehen Aretoak behin eta berriz ezarritakoaren arabera, AGren auto hauetan, besteak beste: 2019ko otsailaren 26koan (81/2018 errek.), 2016ko martxoaren 2koan (244/2015 errek.), 2014ko urriaren 7koan (124/2014 errek.), 2013ko maiatzaren 14koan (200/2012 errek.), 2012ko azaroaren 13koan (200/2012 errek.), 2012ko urriaren 2koan (146/2012 errek.).

Demandatuaren egoitza ezezaguna zen kasu batean, AGren 2018ko maiatzaren 9ko Autoak (76/2018 errek.) hau deklaratu zuen: «Prozedura Zibilaren Legearen 769. artikulua irizpide ezberdinak ezartzen ditu Laugarren Liburuaren Lehen Tituluaren IV. kapituluaren aipatutako prozesuez arduratzeko eskumena emateko, kontuan hartuta prozesuen xedea ezkontza-krisiak diren edo seme-alaba adingabeak zaintzeari eta jagoteari buruzko edo mantenuari buruzko prozesuak diren. Azken kasu honetan, gurasoak epai-barruti berean bizi ez badira, artikuluko horren 3. apartatuak aukera ematen dio demandatzaileari demandatuaren egoitzaren tokiko edo adingabearen bizilekuaren tokiko auzitegia aukeratzeko. Azaldutakoarekin bat, aztertutako kasuan, gurasoak ez direnez bizi epai-barruti berean eta adingabea Zaragozan bizi denez bere amarekin, eta demandatzaileak, demanda aurkeztu duenean, adingabearen bizilekua aukeratu duenez, Fiskaltzarekin bat eginda, Zaragozako Lehen Auzialdiko 13. zenbakiko Epaitegia jo

behar da erreferentziako auziaz arduratzeko eskuduntzat».

4.1.5 Hartzekodunen konkurtsoa

Uztailaren 9ko 22/2003 *Konkurtso* Legearen (aurrerantzean KL) 10.1 artikulua bere lehen paragrafoan xedatzen du konkurtsoa deklaratzeko eta izapidetzeko eskumena dagokiola zordunak bere interes nagusien zentroa duen lurraldeko merkataritza-arloko epaileari.

KLren 10.1 artikulua bigarren paragrafoak zordunaren interesen nagusien zentrotzat legez zer ulertu behar den azaltzen du, 1346/2000 EB Erregelamenduaren hitzaurretik hartuta: *«Zordunak bere interesak ohikotasunez eta hirugarrenek ikusteko moduan non administratu, eta toki hori interes nagusien gunea dela ulertuko da. Zorduna pertsona juridikoa izanez gero, uste izango da bere interes nagusien gunea dela sozietatearen egoitza. Ondore horietarako ez da eragingarria izango konkurtso-eskariaren aurreko sei hilabeteetan egindako egoitza-aldaketa»*.

Sei hilabeteko epe hori zenbatzeko, kontuan hartu behar da AGren 2009ko martxoaren 11ko Autoa (195/2008 errek.): «Konkurtso Legearen 10.1 artikulua bigarren paragrafoko azken hitz-tartearen helburua da lurralde-eskumena zordunaren borondatearen arabera zehazteko aukera eragozte, eta, interpretatzeko, ulertu behar da sei hilabeteko epea zenbatzen hasteko hasiera-data dela egoitza sozialaren aldaketa Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen data, eta ez akordio soziala hartu zenekoa, konkurtsoaren adierazpenak bere izaeragatik hirugarren batzuentzat duen garrantzi nabarmenagatik».

KLren 10. artikulua laugarren apartatuak zehazten du aginduzko foru bat dela.

Foruaren *ratioa* argia da: helburua da prozesua erraztea, konkurtsopekoak jarduera egin duen lekuan kokatuta eta konkurtsoa hartzekodunek jakin gabe izapidetzea eta zordunaren egoitza-aldaketa batek hartzekodunen erreklamazioak oztopatzea eragotzita.

Uztailaren 23ko 1/2013 Instrukzioak (*Fiskalak konkurtso-prozesuan izan behar duen esku-hartzeari* buruzkoa) ezartzen du, lurralde-eskumenari buruzko gaiak aztertzen ez baditu ere, arlo zibileko atalek planteatu daitezkeen eskumen-arazoez arduratu behar

dutela.

Foru berezi hori interpretatzen dute AGren 2017ko urtarrilaren 18ko (1019/2016 erre.), 2013ko maiatzaren 21eko (56/2013 erre.) eta 2010eko maiatzaren 25eko (200/2010 erre.) autoek.

Baliteke eskumena zehaztuko duen zordunaren interes nagusien gunea ez izatea sozietate zordunaren estatutuetan agertzen dena, eta lehentasuna izango du lehenengoak. Ildo horretan eman zuen epaia AGren 2010eko apirilaren 6ko Autoak (404/2009 erre.), zeinak hau deklaritzen baitu: «kasu honetan epaitegi eskuduna izango da zordun eskatzaileak eta pertsona juridikoak interes nagusien zentroa duen lekukoa, eta jarduketetan dagoen dokumentaziotik ondorioztatzen da haren interesak administratzeko gune nagusia ez datorrela bat estatutuetan agertzen denarekin. Izan ere, gutxienez gaur egun, Avilan dagoela dio, eta han egiten zituela konkurtsoaren eskatzaileak, ohikotasunez eta hirugarren batzuek aitortzeko moduan, interes horien administrazioa. Hirugarrentzat jo behar dira kontratatzaileak, orain hartzekodun direnak, eta inoiz ez konkurtsoa eskatu duen sozietatearen administratzaileak. Hori dela eta, epaitegi eskuduna izango da udalerri horretako lehen auzialdiko 1 zenbakiko epaitegia. Bestalde, horrek erraztu egingo du hartzekodunen pertsonatzea, baita Konkurtso Administrazioaren jarduketak ere, eskatzailearen ondasun ia guztiak Avilan baitaude». Ildo beretik, AGren 2021eko otsailaren 16ko Autoak (282/2020 erre.) deklaritzen du pertsona juridiko baten interes nagusien zentroa haren egoitza soziala delako presuntzioa *iuris tantum* ulertu behar dela, eta, beraz, kontrakoaren froga aurkeztu ahal dela.

AGren 2013ko maiatzaren 21eko Autoarekin (56/2013 erre.) bat etorrira, «lurralde-eskumenari buruzko gatazka honetan, Zaragozako Merkataritza-arloko 11 zenbakiko Epaitegiaren alde ebatzi behar da [...] aurkeztutako dokumentuetan oinarrituta, haren interes nagusien gunea Zaragozan dago, herri horretan baitzituen lokalak irekita eta han egiten baitzuten lan sozietateko langileek. Gainera, hartzekodun gehienak udalerri horretan daude, eta Logroñon administratzaile bakarraren egoitza baino ez dago, eta akziodunen batzarrak baino ez dira egin han».

Eskumena ez da ematen helburu sozial gisa finkatutako jarduera garatzeko lekuaren arabera, erakundearen administrazio-zentroaren arabera baizik (AGA, 2021eko otsailaren

16koa, 282/2020 erre.).

KLren 10.1 artikulua bigarren paragrafoak hau dio: «*Horrez gain, zordunak bere egoitza Espainian badu eta egoitza hori ez badator bat zordun horren interes nagusien gunearekin, gune hori zein lurraldetan izan eta bertako merkataritzako epailea ere eskuduna izango da; hartzekodun eskatzaileak aukeratuko du bien artean*». Bi premisak betetzen direnez, foruak, bere aginduzko izaerari eutsita, aukera ematen dio hartzekodunari bi aukeretako baten alde egiteko.

AGren 2010eko maiatzaren 25eko Autoak (1213/2009 erre.) deklaratu du zordunaren egoitza aukerako foru gisa ezartzen duen araua ezin dela aplikatu analogikoki borondatezko konkurtsoan: «eskumen-arauaren espiritua eta xedea da hartzekodunei, oro har hirugarrenei, erraztea zordunaren konkurtso-prozedura judizial bat dagoela jakitea, erraztasun hori bermatzeko zordunaren interes nagusien zentroa dagoen lekuari dagokion epai-barrutian izapidetzen bada [...] bestela, eskumen-araua borondatezko konkurtsoan analogikoki aplikatzea onartuta, aukera emanda haren egoitzaren lekua hautatzeko interes nagusien zentroarenarekin bat ez datorrenean, konkurtso-prozedura hartzekodunek ezagutzen ez duten leku batean izapidetu ahal izango litzateke, eta ez lukete ezagutuko, ez direlako han egin, zordunaren eta hirugarrenen arteko merkataritzako edo bestelako eragiketak. Izatez, konkurtso-legeen multzoaren helburua da hartzekodunei erraztea prozedura judizialaren berri izatea eta hura eskura izatea, haien kredituen eraginkortasuna bermatzeko konkurtso-masaren aurrean».

AGren 2020ko uztailaren 21eko Autoaren arabera (108/2020 erre.), «konkurtoa deklaratzeko lurralde-eskumena Konkurtso Legearen 10.1 artikulua ezartzen du. Besteak beste, artikulua horrek ezartzen du zordunak bere interes nagusien gunea zein lurraldetan izan eta bertako merkataritzako epaileari dagokiola konkurtsoa adierazi eta horren izapideak egiteko eskumena, eta zordunak bere interesak ohikotasunez eta hirugarrenek ikusteko moduan non administratu, eta toki hori interes nagusien gunea dela ulertuko dela. Zorduna pertsona juridikoa izanez gero, uste izango da bere interes nagusien gunea dela sozietatearen egoitza. [...] Gatazka honetan, borondatezko konkurtso bat denez, ezin da aplikatu zordunaren egoitza aukerako foru gisa interesen zentroaren egoitzaren orde. Halaber, konkurtsoaren eskatzailearen oraingo egoitza ordaintzeko auzibidetik kanpoko akordio bat lortzeak ezin du baldintzatu eskumena».

Aintzat hartu behar da KLren 8.1 artikulua arabera, konkurtsoko epailearen eskumen

esklusibokoak eta besterentzailekoak direla *«konkurtsopekoaren aurka zuzendutako akzio zibilak, ondarean eragina dutenean, salbu eta (...) gaitasun, seme-alabatasun, ezkontza eta adingabeei buruzkoak»*, eta KLren 8.3 artikulua ezartzen duela konkurtsoaren epaileak eskumen eskusiboa eta besterentzailea duela *«konkurtsopekoak dituen ondasunen eta ondare-izaerako eskubideen kontrako exekuziorako»*, eta, KLren 50.1 artikuluekin bat etorrira, *«lege honetan ezarritakoaren arabera demanda baten gaineko eskumena konkurtsoko epaileari dagokionean eta demanda hori arlo zibil edo lan-arloko epaileen aurrean aurkeztu denean, epaileok ez dute horren gaineko eskumenik hartuko, eta alderdiei ohartaraziko diete, euren eskubidea konkurtsoko epailearen aurrean erabil dezaten. Demanden izapidetza onartzen bada, jardun guztia artxibatzea aginduko da, eta jardun hori ez da baliozkoa izango»*.

Xedapen horiekin bat etorrira, AGren 2019ko uztailaren 16ko Autoak (157/2019 erre.) hau deklaratu du, egiaztatuta dagoenez konkurtsoa kanbio-epaiketa izapidetzeko onartu baino lehen deklaratu zela: *«epaitegiak ez zuen demanda izapidetzeko onartu behar ez baitzeukan eskumen objektiborik. Aitzitik, KLren 50.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, abstenitu egin behar zuen, jardun guztia artxibatzeke erabakia hartu behar zuen eta alderdi auzi-jartzaileari jakinarazi behar zion demanda hori konkurtsoaz arduratzen zen merkataritza-arloko epaitegian aurkeztu behar zuela. Hala egin ez zuenez, egindako jarduketak deusezak dira eta, ondorioz, ab initio eskumen objektiborik ez zuen ezin zuen deklaratu ez zuela lurralde-eskumenik»*. Hori dela eta, lurralde-eskumenari buruzko gatazkaren aurrean, AGk eskuduntzat jotzen du kanbio-epaiketa izapidetzeko onartu zuen epaitegia, *«baina horrek ez du eragozten epaitegi horrek KLren 50.1 artikuluan xedatutakoaren arabera jardutea»*.

Bestalde, KLren 51.1. artikuluan xedatutakoa aplikatuta, zorduna alderditzat duten epaiketa adierazleen izapideak gauzatzen ari badira konkurtsoa adierazteko unean, epaiketa horiei eutsiko zaie ebazpena irmoa izan arte (AGren 2011ko azaroaren 22ko – 196/2011 erre.– eta 2009ko otsailaren 12ko –212/2008 erre.– autoak).

Erregela honek salbuespen bat du, zeina KLren 51.1 artikuluen bigarren paragrafoan ezarrita baitago: konkurtsoari ofizioz metatuko zaizkio, konkurtsopeko pertsona juridikoari kalte-ordainak erreklamatzeko, haren izatezko edo zuzenbidezko administratzaile edo likidatzaileen aurkako eta auditoreen aurkako epaiketa guztiak,

betiere lehenengo auzialdian badaude eta epaiketako ekitaldia edo ikustaldia amaitu ez bada.

Konkurtsopekoaren ondarearen kontrako demanda hitzarmena onartu eta gero aurkezten bada, ezin zaio eman konkurtsoaren epaileari 22/2003 Legearen 8. artikuluan ezarritako eskumen eskusibo eta besterentzailea. Aurrekoa gorabehera, epai babesle hipotetiko batean aitor daitekeen kreditua, epaia konkurtsoa deklaratu aurretik eman bada, konkurtsoaren eraginpean egongo da eta, zehazki, 143.1 artikuluan ezarritako hitzarmenaren ondorioen eraginpean (AGA, 2012ko maiatzaren 14koa, 178/2011 erre.).

Epaitegiari bidalitako negoziazioen hasierari buruzko notario-jakinarazpenari dagokionez, ezin da eskumen-gatazkarik planteatu. KLren 242 bis artikulua ezartzen du notarioak, egiaztatu ondoren aurkeztutako dokumentazioa nahikoa dela eta, ordaintzeko, epaiketaz kanpoko akordioaren negoziazioa bidezkoa dela, ofizioz jakinarazi beharko diola konkurtsoa deklaratzeko epaitegi eskudunari negoziazioak hasi direla. AGren iritziz, notario-jakinarazpen hutsa da, zeinak ez baitu aurretik zehazten, inola ere, gerora izapidetu ahal den konkurtsoaren eskumena eta ez baitio epaitegiari eskatzen inolako prozesurik izapidetzeko. KLren 10. artikuluan aginduzko izaerarekin ezarritako konkurtsoaren lurralde-eskumenari buruzko erregelak soilik aplikatuko dira konkurtsoa geroago deklaratzeko bada, eta, ondorioz, notario-jakinarazpena jaso duen epaitegiari ez dagokio analisirik egitea, gerora konkurtsoa deklaratu gero, eskumena nori legokiokkeen zehazteko. Nahikoa da jakinarazpena erregistratzea eta KLren 5 bis artikuluan xedatutakoa betetzea –egoera hori bada– (AGA, 2017ko martxoaren 29koa, 9/2017 erre.).

AGren 2017ko urtarrilaren 18ko Autoak (1019/2016 erre.) hau deklaratu du: «KLren 242.1 eta 232.3 artikulua integratu behar dira KLren 10.1 artikuluari dagokionez, eta, ordaintzen epaiketaz kanpoko akordiorik lortu ezin delako edo akordioa bete ez delako, pertsona fisikoa den eta merkataria ez den zordun baten kontra eskatutako konkurtso kontsekutiboaz arduratzeko lurralde-eskumena zordunaren egoitzako epaitegiari dagokiola ulertu behar da, salbu eta haren interes nagusien zentroaren egoitzarekin bat ez datorrela egiaztatzen bada. Kasu horretan, zordunaren interes nagusien zentro hori dagoen lekuko epaileak izango du eskumena».

Zordun bat baino gehiago dagoenean, pasiborik handiena duen zordunaren egoitza lehenetsiko da (AGA, 2014ko urtarrilaren 14koa, 199/2013 erre.).

Konkurtsu Legearen testu bategina onesten duen maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretua 2020ko irailaren 1ean jarri zen indarrean.

Aztertutako gaiak ez du funtsezko aldaketarik, artikuluen zenbakietan ez bada. Merkataritza-arloko epaileen eskumen objektiboa 44.1 artikuluan zehazten da, salbu eta lehen auzialdiko epaileek enpresaburu ez den pertsona fisiko baten hartzekodunen konkurtsoa deklaratzeko eta izapidetzeko duten eskumena (44.2 artikulua).

Lurralde-eskumena 45. artikuluan arautzen da, eta zordunak interes nagusien zentroa duen lurraldeko epailearen foruari eusten zaio, pertsona juridikoa den zordunak bere interesen zentroa egoitza sozialaren lekuan duela ezartzen duen presuntzioa jasotzen da, baita aurreko sei hilabeteetan gertatutako egoitza-aldaketaren eragingarritasunik eza eta zordunaren egoitzako epailearen aurrean demandatzeko aukera ere, zordunaren egoitza eta interesen zentroa Espainiako lurraldean badaude.

Lurralde-eskumenaren ofiziozko azterketa 50. artikuluan arautzen da.

52.2 artikulua ezartzen du konkurtsoaren epaileak jurisdikzio eskusibo eta besterentzailea duela konkurtso-kredituei dagozkien exekuzioetarako edo masa aktiboan jasotako edo jasotzen diren konkurtsopekoaren ondasun eta eskubideen gaineko masari dagokionez, agindu duen auzitegia edo administrazio-agintaria edozein dela ere, lege horretan ezarritako salbuespenak salbu.

142. artikulua exekuzioak eta premiamenduak hasteko debekua arautzen du.

136.1.1 artikuluekin bat, konkurtsoa deklaratzeko denetik hitzarmenaren eraginkortasun-datara arte, edo, hitzarmenik onartu ez bada edo onartutakoa bete ez bada, prozedura amaitu arte [...], arlo zibileko eta lan-arloko epaileek ez dituzte izapidetzeko onartuko konkurtsoaren epailearen eskumenekoak diren akzioak egikaritzeko aurkeztzen diren demandak, eta alderdiei jakinarazi beharko diete epaile horren aurrean baliatu behar dutela haien eskubidea.

137. artikulua izapidetzen ari diren deklarazioko judizioen jarraipena arautzen du, eta
138. artikulua, berriz, izapidetzen ari diren deklarazioko judizioen metaketa, judizio horietan erantzukizunaren arloko akzioak egikaritu badira administratzaileen eta parekoen aurka.

583. artikulua negoziazioen hasieraren jakinarazpena arautzen du.

4.1.6 Seme-alabatasunari buruzko prozesuak

Seme-alabatasunari buruzko prozesuei dagokienez (PZL, 748.2 art.), legetan ez dago xedapen berezirik lurralde-eskumena dela eta. Hitzeko epaiketaren bidez ebatzi behar diren gaiak direnez (753.1 artikuluan jasotzen da prozesu hori erabili behar dela), ondorioztatu behar da ez dela baliozkoa esanbidez eskumendean jartzea, ezta isilbidez egitea ere, PZLren 54.1 artikuluan xedatutakoarekin bat. Foru berezirik ez dagoenez, demandatuaren egoitzari edo bizilekuari buruzko foru orokorra aplikatu beharko da (PZL, 50. art.).

Beraz, prozesu horietan, demandan demandatuaren egoitzaren forua aplikatu behar da nahitaez (AGren 2019ko ekainaren 8ko –128/2019 errek.–, 2019ko urtarrilaren 15eko –220/2018 errek.–, 2014ko maiatzaren 27ko –53/2014 errek.–, 2013ko irailaren 24ko –148/2013 errek.– autoak),

4.1.7 Mantenuari buruzko epaiketa

Abenduaren 2ko 3/2005 Kontsultaren (*Prozedura Zibilaren Legearen 250.1.8 artikuluko mantenuari buruzko epaiketan, adingabeen alde bideratzen denean, Fiskaltzak izan behar duen esku-hartzeari buruzkoa*) ondorioa izan zen fiskaltzat esku hartu egin behar duela PZLren 250.1.8 artikuluko hitzeko epaiketaren izapideak jarraitzen dituzten mantenua eskatzeko erreklamazio-prozeduretan, betiere uzia adingabeen edo ezgaituen alde egikaritzen bada, interes publikoa aintzat hartuta, haren eginkizuna baita interes hori zaintzea.

PZLren 250.1.8 artikulua ezartzen duenez, «*hitzeko epaiketan erabakiko dira, euren munta edozein izanik ere, honako demanda hauek: [...] Lege-xedapen edo bestelako titulu baten bidez, zor den mantenua eskatzeko demandak*».

Prozedura hauetan, ez dagoenez foru berezirik, demandatuaren egoitzari dagokion forua aplikatuko da, nahitaez (ikusi AGren 2020ko otsailaren 4ko Autoa, 247/2019 errek.).

AGren 2019ko otsailaren 5eko Autoak (253/2018 errek.) guraso demandatzaileak mantenua erreklamatzeko aurkeztutako hitzezko epaiketaren demandak eragindako gatazka ebazten du. Mantenua auzilariak duten seme adindunarentzako eskatzen da, eta erreklamazioa amaren kontra jarri da. AGk uste du, izatezko elkartzeko batean jaiotako seme adindun baten alde, guraso batek bestearen kontra aurkeztutako mantenuaren erreklamazio autonomo bat dela, eta seme-alaba adindunentzako mantenua eskatzeko akzioa ez dagoela sartuta PZLren IV. liburuan araututako ezkontzari buruzko prozesuen barruan, legelariak berariaz erabakita, ezkondu gabe dauden bikoteen kasuan, seme-alaba adingabeei dagozkien gaiak baino ez baitira jaso (PZL, 748.4, 769.3 eta 770.6 artikulua). Ez gaude bikote baten harremanari amaiera emateko beste seme-alaba adingabe batzuk zaindu eta jagoteari buruzko prozedura baten izapidetzeari dagokion neurri osagarri baten aurrean, zeinak, prozesuaren ekonomian oinarrituta, eskaera hori batera izapidetzea justifikatzen duen. Ez da, halaber, seme horri dagokionez neurriak aldatzeko prozedura bat. Horrenbestez, PZLren 250.1.8 artikuluekin bat, mantenuari buruzko erreklamazioa hitzezko epaiketaren bidez ebatziko da, munta edozein dela ere. Eta PZLren 54.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, demandatuaren egoitzari edo bizilekuari dagokion foru orokorra (PZL, 50. art.) aplikatu behar da.

Kontseiluaren 2008ko abenduaren 18ko 4/2009 (EE) Erregelamendua aplikatuta (*Mantenuaren inguruko betebeharren arloko eskumenari, aplikatu beharreko legeari, aitorpenari, ebazpenen betearazpenari eta kooperazioari buruzko erregelamendua*), Estatuaren Abokatuak jarritako demandak direla eta, demandatuaren egoitzari dagokion forua aplikatu beharko da (ikusi AGA, 2015eko ekainaren 10ekoa, 79/2015 errek.). Hala ere, aldi berean, Estatuaren forua aplikatuko da (demandatuaren egoitzak demanda aurkeztu behar den probintziako hiriburua zehaztuko luke).

4.1.8 Borondatezko jurisdikzioari buruzko xedapen orokorrak

Espediente hauetan, lurralde-eskumena abenduaren 22ko 9/2015 Zirkularrean (*Borondatezko Jurisdikzioaren Lege berrian Fiskaltzak izan behar duen esku-hartzeari*

buruzkoa) aztertzen da, eta haren edukia hemen jasotzat jo behar da (2.6 epigrafea). Hala ere, espediente horiek zirkular honen beste epigrafe batzuetan aipatuko dira, tratamendu berezi bateratua behar duten gaiekin duten loturagatik.

Nabarmendu behar da espediente horietan beti aplikatu behar direla aginduzko foruak eta, epaitegiak uste badu ez duela lurralde-eskumenik, eskumen hori duela uste duenari bidali behar diola (BJL, 16.3 art.), adiskidetze-egintzen kasuan izan ezik, BJLren 140. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar baita. Artikulu horren arabera, bizileku edo egoitzari buruzko ikerketa egin eta gero emaitzarik lortzen ez bada edo adiskidetzera errekeritua beste barruti judizial batean aurkitu bada, espedientea amaitutzat joko da, eta espedientea berriro epaitegi eskudun baten aurrean sustatzeko eskubidea erreserbatuko zaio adiskidetzearen eskatzaileari (ikus AGA, 2016ko azaroaren 30ekoa, 1036/2016 errek.).

Interesgarria da aipatzea epailearen zaintzapean jarritako espediente bat, zeinak BJLren 98.2 artikuluan ezarritako foru berezia bete behar baitu. Artikulu horrek xedatutakoaren arabera, *«betebeharra non bete behar den, leku horretako lehen auzialdiko epaitegia izango da eskuduna, eta, hainbat lekutan bete ahal bada, leku horietako edozeinetakoa, eskatzailearen aukeran. Halakorik egon ezean, zordunaren egoitzari dagokiona izango da eskuduna»*. AGren 2018ko urtarrilaren 24ko Autoak (202/2017 errek.) deklaritzen duenez, *«betebeharra betetzeko leku zehatzik zehaztuta egon ezean, BJLren 98.2 artikuluan xedatutako foru subsidiarioa (zordunaren egoitza) aplikatu behar da. Gainera, bat dator Kode Zibilaren 1.171 artikuluan jasotako ordaintzeko lekuari buruzko erregela orokorrarekin»*. AGren 2020ko irailaren 29ko Autoak (136/2020 errek.) deklaritzen du, istripu baten ondoriozko kalte-ordain gisa, aseguratzaileak epailearen zaintzapean jarritako espediente bat dela eta, *«istripua gertatu zen lekuak ez dauka garrantzirik borondatezko jurisdikzioko espediente horretan lurralde-eskumena zehazteko. Betebeharra betetzeko leku zehatzik zehaztuta ez badago, BJLren 98.2 artikuluan xedatutako foru subsidiarioa (zordunaren egoitza) aplikatu behar da. Gainera, bat dator Kode Zibilaren 1.171 artikuluan jasotako ordaintzeko lekuari buruzko erregela orokorrarekin»*. Epailearen zaintzapean jarritako beste espediente bati dagokionez, AGren 2020ko abenduaren 15eko Autoak (240/2020 errek.) hau deklaritzen du: *«kasu honetan, alderdiek erabaki zuten betebeharra errentatzaileak Bancajaren Elcheko sukurtsal batean zabaldutako kontuan beteko zela; hori dela eta, aipatutako arauetan*

adierazitako foru nagusia aplikatu behar da. Alderdiek ez dute aipatzen non dagoen errentan hartutako finka».

4.2 Fiskala alderdi edo esku-hartzaile ez den prozesuak.

4.2.1 Hitzezko epaiketa

Azaldu den bezala, hitzezko epaiketan ez da baliozkoa esanbidez edo isilbidez eskumendean jartzea, PZLren 54.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita. Lurralde-eskumena beti zehazten da aginduzko izaerarekin –hitzezko epaiketan egikaritutako uzia edozein dela– kasu bakoitzean legez ezarritako foruekin bat: lehenik eta behin, PZLren 52. artikuluan ezarritakoarekin bat aplikatu beharreko foru berezia eta, bestela, demandatuaren egoitzari edo bizilekuari dagozkion foru orokorrak (PZLren 50. artikulua, pertsona fisikoen kasuan, eta 51. art., berriz, pertsona juridikoen eta nortasunik gabeko erakundeen kasuan) –*ad exemplum* AGren 2019ko uztailaren 16ko (151/2019 errek.) eta 2019ko ekainaren 25eko (123/2019 errek.) autoak–.

4.2.2 Kanbio-prozesua

PZLren 820. artikuluekin bat, *kanbio-epaiketan eskumena du demandatuaren egoitzako lehen auzialdiko epaitegiak*.

PZLren 820. artikulua lurralde-eskumenari buruzko aginduzko erregela bat ezartzen du kanbio-epaiketarako. Erregela horretan xedatzen da demandatuaren egoitzako lehen auzialdiko epaitegia izango dela prozesu horretaz arduratzeko eskuduna. Aginduzko foru hori ofizioz aitortu beharko da eta, ondorioz, baztertu egiten du esanbidez edo isilbidez eskumendean jartzeko aukera (AGren 2020ko azaroaren 10eko –144/2020 errek.–, 2019ko irailaren 10eko –171/2019 errek.–, 2019ko uztailaren 9ko –114/2019 errek.– eta 2018ko urriaren 9ko –113/2018 errek.– autoak).

Zordun batzuen kontrako kanbio-epaiketa bat denean eta zordunek egoitza ezberdinak badituzte, PZLren 820. artikulua aplikatu ahal da, zeinak ezartzen baitu eskuduna izango dela haietako edozeinen egoitzakoa, baita PZLren 53. artikulua ere, zeinak demandatzaileari ematen baitio hautatzeko aukera, eta, ondorioz, demanda jarri ahal

izango da haietako edozeinetan, demandatzaileak hala aukeratuta (AGA, 2013ko urriaren 29koa, 161/2013 errek.).

Lurralde-eskumena zehazteko, aintzat hartu behar den egoitza da demandatuak demanda jarri zenean zuena (ikusi AGren 2011ko azaroaren 22ko –180/2011 errek.– eta 2010eko irailaren 28ko –386/2010 errek.– autoak).

Forua demandatuaren egoitza sozialak zehazten du. Ondorio hauetarako, ez dauka eraginik ordaintzeko errekerimendua egoitza beste lekua batean duen pertsona bati egiteak eta sozietate anonimoaren akzioak beste egoitza bat duen pertsona baten titulartasunekoak izatea (AGA, 2004ko azaroaren 12koa, 74/2004 errek.).

Merkataritzako sozietateen egoitza da merkataritzako erregistroan jasota dagoena (AGren 2016ko maiatzaren 18ko –153/2016 errek.– eta 2014ko urtarrilaren 17ko –205/2013 errek.– autoak). Eta soilik egoitza soziala ezagutzeko aukerarik ez dagoenean hartu ahal izango da kontuan zerga-egoitza eskumena zehazteko (AGA, 2010eko maiatzaren 25koa, 171/2010 errek.). Arau hori kanbio-epaiketari zein merkataritzako sozietateen aurkako prozesu monitorioan aplikatzen da. Hala ere, ikertutako zerga-egoitza erabili ahal izango da erakunde demandatua epatzeko eta zitzatzeko (AGA, 2019ko urriaren 1koa, 129/2019 errek.).

Ordaindukua galdu izanari buruzko espedienteari dagokionez, «Kanbio-agirien eta Txeekeen 19/1985 Legearen 84. artikulutik 87. artikulura xedatutakoarekin eta, zehazki, 96. artikuluan ezarritakoaren ondorioz, ordaindukoari aplikatu beharreko 85. artikulua xedatutakoarekin bat etorrira, 13/2009 Legearen zazpigarren artikulua emandako idazkeran, 85. artikulua horrek, bere lehen paragrafoan [...] ezartzen du auzitegi eskuduna izango dela letran ordainketarako ezarritako udalerrikoa (AGA, 2013ko maiatzaren 14koa, 10/2013 errek.)».

4.2.3 Atariko eginbideak hartzeko prozedura

PZLren 257. artikuluaekin bat, *aurreko artikuluan aipatu eskaera eta eskabideak ebazteko, eskudun izango da lehen auzialdiko epailea, epaiketa prestatzeko jardunean adierazpena egin, zerbait erakutsi edo beste era batean parte hartu behar duen pertsonaren egoitzakoa bada. Aurreko artikuluko lehen apartatuaren 6., 7., 8. eta 9.*

zenbakietako kasuetan, eskudun izango da demanda zehatza non aurkeztu behar eta bertako auzitegia. Kasu horietan, ordura arte gauzatutako eginbideen emaitza dela-eta beste batzuk eskatzen badira, auzitegi berari eskatu ahal izango zaizkio edota aurreko eginbidean ikertutako egitateak direla-eta uzi beraz edo ebentualki meta daitezkeen beste uziez arduratzeko eskumena duenari.

PZLren 257. artikulua bigarren apartatuak eskumenari buruzko prozedura-erregela berezi bat ezartzen du: *ez da deklinatoriarik onartuko atariko eginbideetan; hala ere, eginbideak zein epaileri eskatu eta epaile horrek ofizioz berrikusiko du bere eskumena, eta, eskabidearen gaineko ardura ez dagokiola uste badu, ardura horretaz abstenituko da, eta eskatzaileari adieraziko dio lehen auzialdiko zein epaitegitara jo behar duen. Azken epaitegi horrek ere bere eskumenari uzten badio, epaitegi bien artean dagoen goragoko auzitegi erkideak gatazka negatiboa erabakiko du, lege honen 60. artikuluan ezarritakoaren arabera.*

Aginduzko foru honen interpretazioak kasuistika aberatsa sortu du, AGren auto hauetan kontsulta daitekeena: 2019ko martxoaren 26koa (15/2019 erre.), 2018 urriaren 16koa (155/2018 erre.), 2009ko ekainaren 2koa (109/2009 erre.), 2013ko abenduaren 10ekoa (184/2013 erre.), 2016ko martxoaren 29koa (243/2015 erre.) eta 2010eko maiatzaren 25ekoa (129/2010 erre.).

Foru honek erregela orokorra eta salbuespenak aplikatuta nola funtzionatzen duen argitzeko, AGren 2019ko martxoaren 26ko Autoa (15/2019 erre.) nabarmendu behar da. Auto horrek deklaritzen duenez, «kasu honetan, aurretiazko eginbideak eskatu dira – dokumentazioa erakustea– eta, lurralde-eskumenari dagokionez, egoera hori PZLren 257.1 artikuluan araututa dago. Artikulu horren arabera, organo eskuduna da lehen auzialdiko epailea, epaiketa prestatzeko jardunean adierazpena egin, zerbait erakutsi edo beste era batean parte hartu behar duen pertsonaren egoitzakoa bada. Ikuspegi horretatik, organo eskuduna Madrilgo epaitegia litzateke, hiri horretan baitu egoitza dokumentuak erakusteko eskatu zaion erakundeak. Hala ere, erregela horrek zenbait salbuespenezko kasu batzuk ditu, legearen artikulua horretan jasota. Kasu horietan, eskudun izango da demanda aurkeztu behar den lekuko epaitegia. Kasu horietako bat da lege bereziek zenbait eskubide babesteko ezarritako eginbideak eta ikerketak egiteko eskaerak (PZLren 256. artikulua 1. apartatuaren 9. zenbakia). Kasu honetan egoera hori da, alderdiak

lotzen dituen harremana agentzia-kontratuarena baita, eta, ondorioz, lurralde-eskumenari dagokionez, eskumena izango du demanda non aurkeztu behar eta bertako auzitegia. Inguruabar hori zehazteko Agentzia Kontratuaren maiatzaren 27ko 12/1992 Legera jo behar da. Haren xedapenek arau prozesal garrantzitsu bat dute (xedapen gehigarria), non hau ezartzen baita: Agentzia-kontratutik eratorritako akzioez arduratzeko eskumena agentearen egoitzari dagokion epaileak izango du eta deuseza izango da aurkako edozein itun».

Demandatzaileak, kontsumitzaile gisa, aseguru-kontratu batetik eratorritako dokumentazioa erakusteko eskatzen badu, kasu hori PZLren 256. artikuluan 1. apartatuaren 9. zenbakian sartutakotzat jotzen da eta, beraz, eskudun izango da demanda zehatza non aurkeztu behar eta bertako auzitegia. Eta etorkizunean demandatzaile izango denak egikaritutako duen akzioa aseguru-kontratu batetik eratorritako kontsumitzailearen akzio indibidual bat denez, PZLren 52.2 artikuluan eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren testu bateginaren 90.2 artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da. Horien arabera, auzitegi eskuduna izango da asegurudunaren, erosle edo mailegu-hartzailearen edo eskaintza onartu duenaren egoitzakoa, hurrenez hurren, edo PZLren 50. eta 51. artikuluetako arauekin bat dagokiona, demandatzaileak aukeratuta (AGA, 2018ko irailaren 11koa, 124/2018 erre.).

Interes berezia du AGren 2017ko martxoaren 1eko Autoak (16/2017 erre.): «kasu honetan eskatzaileak dokumentazioa erakustea nahi du, telefonia mugikorraren arloko zerbitzuak emateko kontratu batetik eratorritako akzio bat egikarituta, demanda bat jartzeko, kontsumitzaile gisa. Kasu hori PZLren 256. artikuluan 1. apartatuaren 9. zenbakian jasotakoaren barruan sartzen da, eta, beraz, eskudun izango da demanda zehatza non aurkeztu behar eta bertako auzitegia. Eta etorkizunean demandatzaile izango denak egikaritutako duen akzioa telefonia mugikorraren arloko zerbitzuak emateko kontratu batetik eratorritako kontsumitzailearen akzio indibidual bat denez, PZLren 52.2 artikuluan eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren testu bateginaren 90.2 artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da. Artikulu horietan, lehentasuna ematen zaio kontsumitzailearen edo erabiltzailearen egoitzari».

Banku-erakunde baten aurkako demanda prestatzeko, dokumentuak erakusteko aurretiazko eginbidea eskatzen denean, sukurtsala desagertu egin bada, nabarmentzekoa

da AGren 2016ko martxoaren 29ko osoko bilkuraren autoa (243/2015 errek.): «harreman juridikoak ondorioak izan behar dituen udalerrria Huelva denez –Bankiak herri horretan du demandatzailearen egoitzaetik hurbilen dagoen sukurtsala eta bertan dago erakutsi beharreko dokumentazioa, Lepeko bulegoa itxi ondoren–, ondorioztatu behar da eskumena herri horretako epaitegiei dagokiela».

Dokumentuak erakutsi edo ematea pertsona juridiko bati dagokionean, eskaera ez da nahitaez aurkeztu behar demandatuaren egoitzari dagokion barruti judizialean; establezimendua jendaurrean zabalik duen barrutian ere aurkeztu ahal da, demandatzaileak erakundearekin izan dituen harremanak sukursal horretan izan badira. AGren ustez, beste erabaki batek urratu egingo luke ezinbestean demandatzailearen benetako babes judizialerako eskubidea, dokumentuak erakustea lortzeko, eskaera Alacanten aurkeztu ondoren –demandatzailearen egoitzaetik hurbil demandatuak zabalik duen sukursal bakarra delako–, Madrileko epaitegi batera jo beharko bailuke hori baita demandatuaren egoitza soziala, eta auzitegiek saihestu egin behar dituzte halako egoerak (ikus AGren 2019ko otsailaren 26ko –12/2019 errek.–, 2017ko otsailaren 22ko –3/2017 errek.– eta 2016ko urtarrilaren 13ko –174/2015 errek.– autoak)

Orokorrean, aurretiazko eginbideak pertsona juridiko baten kontra eskatzen badira, PZLren 51. artikulua aukera ematen du demanda harreman juridikoak ondorioak izan behar dituen lekuan jartzeko, betiere toki horretan jendaurrean zabalik dagoen establezimendu bat badu (AGren 2020ko irailaren 29ko –115/2020 errek.–, 2019ko otsailaren 19ko –268/2018 errek.– eta 2016ko apirilaren 20ko –33/2016 errek.– autoak).

Demandatuak egoitza atzerrian zuen kasu batean, AGren 2004ko irailaren 20ko Autoak (38/2004 errek.) hau ebatzi zuen: «gertaeren ustezko erantzulea atzerritarra denez, lehentasuna du –PZLren 50. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren aurrean– Kontseiluaren 2000ko abenduaren 22ko 44/2001 EEE Erregelamenduaren proiektzioak. Erregelamendu horren 5-3 artikulua xedatzen du, beste herrialde bateko herritarren aurka aurkeztu ahal diren erreklamazioen kasuan, egitateak gertatu ziren estatuko epaitegian aurkeztu ahal dela demanda. Hortaz, lehentasuna ematen zaio *locs comissi factis* foruari, auzi-jartzailearen egoitzaren foruaren aurrean. Jokaera hori bateragarria da oinarri soziologiko honekin: akzioaren jasotzailea atzerritarra denez, haren tutoretza modu hobean gauzatuko da egitatearen lekuko jurisdikzioan, auzi-jartzailearen

egoitzakoan baino, azken jurisdikzio honek ez baitu inolako loturarik ukituaren lurralde-atzeritartasunarekin».

Aurretiazko eginbideak pertsona bat baino gehiagoren kontra eskatzen badira, eskatzaileak haietako edozeinen egoitzako epaitegia aukeratu ahal izango du (AGren 2019ko otsailaren 19ko –268/2018 errek.–, eta 2016ko maiatzaren 18ko –189/2016 errek.– autoak).

4.2.4 Prozesu monitorioa

Prozesu monitorioko lurralde-eskumenari dagokionez, PZLren 813. artikuluan ezartzen da eskumen hori eta aginduzkoa da. Artikulu horren arabera, *zordunaren egoitzari edo bizilekuari dagokion lehen auzialdiko epaileak bakarrik du prozesu monitorioaren gaineko eskumena; edo, egoitza nahiz bizileku horiek ezezagunak badira, auzitegiak ordainketa-agindeia egiteko ondoreetarako, eskuduna da zorduna aurki daitekeen tokiko lehen auzialdiko epailea, salbu eta 812. artikulua 2. paragrafoko 2. zenbakian aipatu zorraren erreklamazioa denean. Kasu horretan, finka dagoen tokiko auzitegia ere izango da eskuduna, eskatzaileak hala aukeratuta.*

Edozein kasutan, ez dira aplikatuko I. liburuko II. tituluaren II. kapituluko 2. atalera esanbidezko nahiz isilbidezko eskumendean jartzeari buruz bildutako arauak.

Baldin eta idazkari judizialak egoitzari edo bizilekuari buruz kasuan kasuko ikerketak egin ondoren emaitzarik lortzen ez bada edo zorduna beste barruti judizial batean lokalizatu bada, epaileak prozesua amaitutzat ematen duen autoa emango du, non agerraraziko baitu inguruabar hori eta hartzekodunari erresebatuko baitio epaitegi eskudunaren aurrean prozesua berriro hasteko eskubidea.

Aginduzko foru honen oinarria da zordunaren benetako babes judizialerako eta defentsarako eskubidea indartzea, jurisdikzio-organoa eskura izateko aukera emanda, aintzat hartuta prozesu berezi honen izaera eta xedeak, helburua baita kreditu-eskubide batzuen babes azkarra lortzea.

Aurreko lege-irizpide horren aplikaziotik ondorioztatzen da legegileak erregelen araubide berezi bat ezarri duela ofizioz zehazteko prozesu monitorioan lurralde-eskumenik ez dagoela, eta, hala, PZLren I. liburuan jasotako erregela orokorretik bereizten du. Erregela

horren arabera, lurralde-eskumenik ez dagoenean, epaileak autoa emango du prozesua amaitutzat jotzeko, eta hartzekodunari epaitegi eskudunaren aurrean prozesua berriro hasteko eskubidea erreserbatzeko, PZLren 58. artikuluko izapidea aktibatu beharrik gabe, eta epaitegi eskudunaren alde inhibititu beharrik gabe. Egia da PZLren 813. artikulua azken paragrafoaren edukiak aurreikuspen hori gerora sortutako lurralde-eskumenik eza dagoen kasuetarako baino ez duela ezartzen, eta ez hasieran lurralde-eskumenik eza dagoenerako, baina ez dago arrazoirik tratamendu ezberdina ezartzeko, hasierako eskaera irakurrita bakarrik egiaztatzen baita, inolako ikerketarik egin gabe, zorduna beste barruti judizial batean dagoela (AGren 2020ko otsailaren 18ko –26/2020 errek.– eta 2015eko abenduaren 9ko –171/2015 errek.– autoak).

Eskabidea aurkezten zaion epaitegiak uzia onartu, eta lurralde-eskumena duela adierazten duenean –PZLren 813. artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz–, ez da ari bidegabe ezartzen bere lurralde-eskumena, nahiz eta oker zehaztu zorduna dagoen lekua. Aitzitik, lurralde-eskumenaren inguruko deklarazioa zuzena da eskaeran jasotako datuak aintzat hartuta, eta datu horiek ezinbestekoak dira prozedurari hasiera emateko. Zorduna ez bada lokalizatzen adierazitako egoitzan, onar daiteke egoitzaren inguruko lehen ikerketa bat egitea eta, emandakoa ez den beste egoitza bat agertuz gero, baina barruti judizial berean badago, errekerimendua egiteko saiakera egin daiteke. Baina emaitzarik lortzen ez bada edo aurkitutako egoitza beste barruti judizial batean badago, ez da aktibatu beharko PZLren 58. artikuluan ezarritako mekanismoa legearen arabera modu egokian deklaratu zen lurralde-eskumena ukatzeko. Kasu horretan, jarduketak artxibatu egin beharko dira, eta aurkeztutako dokumentazioa itzuli beharko zaio hartzekodunari, bere eskubideak defendatzeko, berriro hasi dezan egokitze jotzen duen lekuan edo zuzenean jo dezan deklarazio-prozesura. Konponbide hau modu orokorrean aplikatu ahal zaio prozesu monitorioari, jabetza horizontalaren araubidetik eratorritako zorren kasuan izan ezik, kasu horretan, PZLren 815.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, araubide berezia baitago zorduna lokalizatzeari dagokionez (AGren 2010eko urtarrilaren 5eko osoko bilkuraren Autoa –178/2009 errek.– eta 2019ko azaroaren 19ko autoa –270/2019 errek.–).

Demandatu bat baino gehiago egonez gero, prozesu monitorioa haietako edozeinen egoitzari dagokion epaitegian sustatu ahal izango da, demandatzaileak aukeratuta (AGren 2010eko urtarrilaren 26ko –371/2009 errek.– eta 2009ko irailaren 8ko –210/2009 errek.–

autoak).

Lan ibiltariaren ondorioz kokalekuz etengabe aldatzen duelako, demandatua egoitza edo bizileku egonkorrik ez duen pertsona bat bada, AGk ondorioztatzen du epaiketa monitorioaz arduratzeko lurralde-eskumena demandatuak lan egiten duen enpresak egoitza duen udalerriko epaitegiari dagokiola deklaratu behar dela, eta bertan gauzatu behar dela unean uneko prozesuan eskatutako prozesu-eginbidea (AGA, 2005eko apirilaren 1ekoa, 17/2005 erre.).

AGren 2005eko irailaren 12ko Autoan (78/2005 erre.) aztertzen da ea lehentasuna eman behar zaion prozesu monitorioa eskatzea eragin duen kontratuan finkatutako zordunaren egoitzari, zeinean efikaziaz gauzatu baita errekerimendua, ala behin-behineko espetxeratzea betetzen ari den espetxeari dagokionari, espetxealdi hori eskaera aurkeztu aurretik hasi, baina prozesuan geroago izan bada horren berri. AGren iritziz, «establezimendu horretako egonaldia behin-behinekoa da eta ezin da lehenetsi, ohikotasuna zehazteko, finantzaketa-kontratuan haren helbide gisa agertzen denaren eta errekerimendua egiteko erabili denaren ezaugarrien aurrean».

Prozesu monitorioaren kasu berezi bat da jabeen erkidego baten zorrengatik bideratutakoa. Kasu horretan, finka dagoen lekua ezartzen da aukerako foru gisa. Ildo horretan, ezartzen da, zordunaren egoitza edo bizilekuari dagokion epaileaz edo zorduna dagoen lekuko epaileaz gainera, eskumena izango duela finka dagoen lekuko epaileak ere, eskatzaileak hala aukeratuta. Horrenbestez, auzi-jartzaileak bere eskaera Madrilen aurkeztu ondoren, ulertu behar da finkaren lekua aukeratu zuela, arauak aukeratzeko emandako ahalmena baliatuta (AGren 2012ko martxoaren 27ko –11/2012 erre.–eta 2010eko otsailaren 23ko –438/2009 erre.– autoak).

Muntak ez baditu gaintitzen hitzezko epaiketaren mugak, aurka eginez gero, eskumena monitorioaz arduratu zen epaitegiak izango du (ikus AGren 2019ko otsailaren 12ko –248/2018 erre.–eta 2016ko ekainaren 29ko –749/2016 erre.– autoak). Erregela hau aplikatu behar da jabeen erkidego baten zorrak erreklamatzeko bideratutako prozeduran: monitorioa zordunaren egoitzako epaitegietan planteatu bazen, gero hitzezko prozesuaren eskumena epaitegi horrek izan behar du, eta ezin da inhibitu finka dagoen lekuko epaitegiaren alde (AGA, 2015eko abenduaren 16koa, 158/2015 erre.).

Muntak hitzezko epaiketaren mugak gainditzen baditu, aurka eginez gero, ez da mantenduko hasierako monitorioa izapidetu zuen epaitegiaren eskumena (AGA, 2016ko ekainaren 1ekoa, 453/2016 errek.), eta bigarren prozesu horri berezko erregelak aplikatuko zaizkio (ikusi AGA, 2016ko azaroaren 3koa, 979/2016 errek.).

PZLren 813. artikulua lurralde-eskumena demandatuaren egoitzako epaitegiari ematen dionez aginduzko izaerarekin, alderdi bakoitzak erreklamazioaren oinarritzko harremanean duen egoera edo izaera juridikoa bereizi gabe, kasuari ezin zaio aplikatu PZLren 52.2 artikuluan xedatutakoa –kontsumitzailearen forua– (AGA, 2016ko otsailaren 11koa, 182/2015 errek.).

Epaitegi bat bidegabe inhibitzen denean zordunak ez duelako egoitza bere barruti judizialean, eskumen-gatazka konpontzeko, eskuduntzat jo behar da inhibititu behar ez zuen lehen auzialdiko epaitegia. Horrek ez du eragotziko dagokion ebazpena hartzea –artxibatzea eta hartzekodunari prozesua epaitegi eskudunaren aurrean hasteko eskubidea erreserbatzea– (AGA, 2019ko uztailaren 16koa, 136/2019 errek.).

4.2.5 Ezkontzaren ondasun-eraentza likidatzeko prozedura

PZLren 807. artikulua arabera, *likidazio-prozeduraz arduratzeko eskumena du deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-prozesuaz arduratzen ari den edo arduratu den lehen auzialdiko epaitegiak, edo legeria zibilean ezarritako arrazoen ondorioz ezkontzaren ondasun-eraentza desgitearen inguruko jardunaz arduratzen ari denak edo arduratu denak.*

AGren 2012ko apirilaren 17ko Autoak (47/2012 errek.) interpretatzen du araua: aintzat hartu behar da PZLren 769.1 artikuluan ezarritako irizpidea, zeinak zenbait foru ezartzen baititu ezkontzari buruzko prozesuetan lurralde-eskumena zehazteko, eta, lehen paragrafoan ezartzen duenez, «*ezkontideak epai-barruti berean bizi ez badira, auzitegi eskuduna izango da ezkontideen azken egoitzari edo demandatuaren bizilekuari dagokion auzitegia, demandatzaileak [...] hala aukeratuta*». Alderdi demandatzaileak ezkontideen azken egoitza aukeratu duenez –Valladoliden zegoela egiaztatu du–, PZLren 769.1 artikuluko eskumen-foruak aplikatu behar dira eta, beraz, ondorioztatu behar da

eskumena Valladolideko epaitegiari dagokiola (AGA, 2012ko apirilaren 17koa, 47/2012 errek.). Ildo beretik jo zuen AGren 2013ko urtarrilaren 8ko Autoak (228/2012 errek.).

4.2.6 Betearazpen-prozedurak

4.2.6.1 Xedapen orokorrak

PZLren 545. artikulua aginduzko foru bat ezartzen du lehen paragrafoan: *«Titulu betearazleak badira ebazpen judizialak, edota idazkari judizialek emandako ebazpenak, zeinei lege honek titulu betearazlearen izaera aitortzen dien, edota judizialki homologatutako edo onetsitako transakzioak eta akordioak, betearazpen-agindu orokorra eta haren abiaraztea dauzkan autoa emateko eskudun izango da lehen auzialdian edo transakzioa edo akordioa homologatu edo onetsi zenean auzigaiaz arduratu zen auzitegi bera».*

Ondorengo apartatuetan, PZLren 545. artikulua zenbait berezitasuna ezartzen ditu betearazteko forua zehazteko.

Adostasun bat dago esateko foru horren luzaezintasunaren oinarria dela uziak jurisdikzio-organoen artean modu ekitatiboan banatzen direla erraztea.

Dotrina orokorra 2008ko abenduaren 16ko Akordioan dago. Haren arabera, betearazpen-prozesuetan lurralde-eskumena aginduzko arauak ezartzen dute. Hori dela eta, ofizioz aztertu ahal da (PZL, 546. art.), baita alderdi batek deklinatoria bidez eskatuta ere (PZL, 547. art.).

Gai horri dagokionez, eskumen-gatazkak PZLren 546.2 artikuluan xedatutakoarekin bat ebazten dira. Artikulu horrek denbora-muga zorrotza ezartzen du: betearazpena agindu ondoren, auzitegiak ezin izango du bere lurralde-eskumena ofizioz berrikusi.

Denboran ezarritako muga hori nabarmentzen du AGk (AGren 2019ko abenduaren 10eko –232/2019 errek.–, 2013ko uztailaren 9ko –26/2012 errek.– eta 2012ko abenduaren 4ko –205/2012 errek.– autoak). Ildo horretan, AGren 2013ko azaroaren 26ko Autoak (24/2013 errek.) hau deklaritzen du: «lurralde-eskumenik ez zegoela deklaratu zuen

autoa betearazpena agindu ondoren eman zen eta kasu horretan –betearazpena agindu ondoren– lurralde-eskumenik eza soilik xedatu ahal da betearazpenpekoak deklinatoria garaiz eta forma egokiz proposatzen badu».

Kasu horietan, eskumena berrikusteko, prozedura-arau bereziak daude: PZLren 546.1 artikulua araberaz: «*betearazpena agindu aurretik, auzitegiak ofizioz aztertuko du bere lurralde-eskumena, eta, titulu betearazlearekin eta demandarekin batera ekarritako gainerako agiriak aintzat hartuta, auzitegiak ulertzen badu ez duela lurralde-eskumenik, autoa eman, eta, betearazpena ez agintzeaz gain, demandatzaileari adieraziko dio zein auzitegitan aurkeztu behar duen demanda. Ebazpen horren aurka errekurtsioa jar daiteke, 552 paragrafoan xedatutakoaren arabera*». PZLren 552.2 artikulua hau ezartzen du: «*Betearazpena agintzeari ezetza zein autok eman eta hori zuzenean gora jo daiteke, gora-jotzea hartzekodunarekin bakarrik gauzatuz. Era berean, hartzekodunak, hala eskatzen badu, gora jotzeko errekurtsioa jarri aurretik, birjartze-errekurtsioa aurkez dezake*».

Horren ondorioz, halako kasuetan, betearazpen-demanda ematen zaion epaitegiak ezin du eman inhibitzeko autorik. Lurralde-eskumenik ez duela uste badu, betearazpena agintzeaz abstenitu behar da, eta demandatzaileari adierazi behar dio zein auzitegitan aurkeztu behar duen betearazpen-demanda. Hala egiten ez badu, eta inhibitzen bada, gatazka bidegabekoa eragin du eta PZLren 546.1 artikuluan ezarritako errekurtsioen araubidea aldatu du, eta alderdi betearazleari horretarako aukera kendu dio. Hori dela eta, kasu horietan, inhibititu den epaitegiari itzuli behar zaizkio jarduketak (ikus AGA, 2019ko martxoaren 19koa, 254/2018 errek.)

4.2.6.2 Titulu ez-judizialen betearazpena

Titulu ez-judizialak betearazteko demandetarako aginduzko forua aplikatu behar da, PZLren 546. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hala ere, foru hori aukerakoa da betearazpenean demandatzaile denarentzat, eta, beraz, demandatuaren egoitzako lehen auzialdiko epaitegian, tituluaren arabera betebeharra bete behar den lekuko epaitegian edo enbargatu ahal diren betearazpenpekoaren ondasunak dauden beste edozein lekuko epaitegian eska dezake, PZLren 545. artikulua 3. apartatua ezarritakoarekin bat. Halaber, 3. apartatu horretan ezartzen da, alderdi exekutatu batzuk badaude, auzitegi eskuduna izango dela, aurreko paragrafoaren arabera, edozein exekutaturi begira eskudun izan daitekeena, alderdi betearazleak aukeratuta.

AGren 2020ko urtarrilaren 21eko Autoak (289/2019 errek.) aztertzen du kasu bat zeinean egikaritutako akzioa ez baita hipoteka bat betearaztekoa, betearazpen arruntekoa baizik, zorra aitortzeko eta hipoteka eratzeko titulu ez-judizial bat dela bide (PZLren 517.2.4 artikuluan aipatzen da kasu hau). AGk dio, titulu ez-judizial bat denez, aginduzko foru bat aplikatu behar dela, PZLren 546. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira.

Ezin da zalantzan jarri betearazleak legez ezarritako aukeren artean aukeratutako epaitegiaren eskumena: «betearazleak Madrilgo epaitegietan aurkeztu zuen demanda betearazlea, PZLren 545.3 artikulua babesean, eta jakinarazi zuen foru hori aukeratzeko zuela demandatuak bertan zituelako ondasun enbargagarriak. Hori dela eta, legezko aukera bat denez, gaiaz arduratzeko eskumena Madrilgo Lehen Auzialdiko Epaitegiari dagokio» (AGren 2018ko urriaren 9ko –144/2018 errek.– eta 2016ko ekainaren 1eko –654/2016 errek.– autoak).

Epaitegiek kontrola dezakete ea demandatzaileak demandatuaren egoitza gisa identifikatutakoa minimoki egiaztatu dagoen: AGren 2014ko azaroaren 18ko Autoak (137/2014 errek.) bere ebazpena arrazoitzeke dio ez dela inolako frogarik aurkeztu alderdi exekutatuaren egoitza non dagoen justifikatzeko, eta demandan adierazitakoa ez datorrela bat polizan adierazitakoarekin.

Kasu horietan ere aplikatu behar da PZLren 546.2 artikulua, eta, beraz, betearazpena agindu ondoren, auzitegiak ezin izango du ofizioz berrikusi bere lurralde-eskumena (AGren 2013ko apirilaren 2ko –28/2013 errek.– eta 2012ko urtarrilaren 10eko –207/2011 errek.– autoak).

AGren 2020ko azaroaren 17ko Autoak (176/2020 errek.) hau deklaritzen du, ondorio horietarako: «titulu ez-judizial baten betearazpenaz arduratzeko eskumena PZLren 545.3 artikuluan ezarritako aginduzko foruak eraentzen du eta foru hori aukerakoa da betearazpenaren demandatzailearentzat, zeinak demandatuaren egoitzako lehen auzialdiko epaitegian, tituluaren arabera betebeharra bete behar den lekuko epaitegian edo enbargatu ahal diren betearazpenpekoaren ondasunak dauden beste edozein lekuko epaitegian aurkeztu ahal izango baitu demanda [...]. Titulu betearazlearen eta

demandarekin batera aurkezten diren gainerako dokumentuen arabera, lurralde-eskumena ofizioz aztertu behar du auzitegiak betearazpena agindu baino lehen, eta PZLren 546.2 artikulua ezartzen du, betearazpena agindu ondoren, auzitegiak ezin izango duela bere lurralde-eskumena ofizioz berrikusi».

Eskumenaren ondorioetarako, AGk titulu judizial eta arbitraje-titulu ez direnetan oinarritutako akzio betearazletzat jotzen du notarioak kontu-harturiko merkataritzako kontratu baten polizan funtsatu eta oinarritutako demanda bat –halako poliza titulu betearazletzat jo da PZLren 517.2.5 artikuluan–, eta esaten du, demandarekin batera, likidazioa egin ondoren, erreklamazioaren xede den polizaren zenbatekoa zehazten duen arbitraje-laudoa aurkeztea ez dela arrazoi nahikoa artikulua horren aplikazio-eremutik salbuesteko. Hori dela eta, «PZLren 545.3 artikulua aplikatu behar da, kasu honetan betebeharra bete behar den lekua Bartzelona delarik, betearazteko eskatu den merkataritzako kontratuaren polizan jasota dagoenaren arabera. Inguruabar horretan oinarrituta, alderdi betearazleak 545.3 artikulua baimendutako aukera baliatu du eta Bartzelonako epaitegian aurkeztu du demanda» (AGA, 2012ko martxoaren 6koa, 240/2011 errek.).

4.2.6.3 Gehieneko zenbatekoko autoen betearazpena

Auzitegi Goreneko Lehen Aretoko Magistratuen 2004ko martxoaren 11ko Batzar Orokorrak erabaki zuen «gehieneko zenbatekoko autoa –Ibilgailu motordunen zirkulazioko erantzukizun zibilaria eta aseguruari buruzko Legearen 10. eta 15. artikuluetan dago jasota– betearazteko lurralde-eskumena kalteak eragin ziren lekuko epaileari dagokiola, Prozedura Zibilararen urtarilaren 7ko 1/2000 Legearen 52.1.9 artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta, gehieneko zenbatekoko auto hori 2000ko PZLren 517.2.8 artikuluan jasotako titulu judizial bat baita; ondorioz, ezin da aplikatu 2000ko PZLren 545.3 art. eta ezin da lotu lege horren 50. eta 51. artikuluetan ezarritakoarekin».

Irizpide hau AGren auto hauetan aplikatu da, besteak beste: 2013ko ekainaren 11koan (42/2013 errek.), 2004ko irailaren 17koan (39/2004 errek.) eta 2006ko martxoaren 2koan (4/2006 errek.).

4.2.6.4 Atzerriko titulu judizialaren betearazpena

Eskumena dagokio, jarduketak prozesuko zein izapidetan dauden aintzat hartuta, betearazteko agindu orokorra eman aurretik, atzerriko titulu bat bete beharrekoa zela aitortzeko ebazpen judiziala, zeina jakinarazpenaren zain dagoen eta probintzia- auzitegian errekurritu ahal zen, eman zuen lehen auzialdiko epaitegiari (AGA, 2013ko otsailaren 12koa, 189/2012 errek.).

4.2.6.5 Arbitraje-laudoaren betearazpena

2008ko abenduaren 16ko Akordioaren arabera, foru eskuduna da arbitraje-laudoa eman zen lekuari dagokiona, PZLren 545.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuta *Arbitrajeko* 60/2003 Legearen 8.4 artikuluari dagokionez.

Besteak beste, AGren 2008ko uztailaren 24ko Autoan (54/2008 errek.) aplikatu da irizpide hori: «PZLren 545.2 artikuluekin eta Arbitrajeko 60/2003 Legearen 8.4 artikuluen bat etorrita, planteatutako eskumen-arazo negatiboa Madrileko Lehen Auzialdiko 47 zenbakiko Epaitegiaren alde ebatzi behar da, leku horretan eman baitzen laudoa, eta aipatutako arauak ezin dira aplikatu epaitegi horrek emandako autoan ez dutelako eraentzen betearazpen-prozesua, zeinaren erregulazioak baztertu egiten baitu deklarazioko prozesurako ezarritakoa, salbu eta hutsuneren bat dagoenean edo igorpen-arauren bat dagoenean».

4.2.6.6 Ondasun pignoratuaren edo hipotekatuen gaineko betearazpena

PZLren 684. artikulua aginduzko foru bat ezartzen du kasu hauetarako, eta aplikazio ezberdina du ondasuna higiezin bat, ontzi bat, higigarri bat edo ondasun pignoratu bat bada.

Hipoteka-betearazpena bazegoen aginduzko foru baten mende Hipoteka Legearen 131. artikuluan, apirilaren 30eko 10/1992 Legeak emandako idazkeran. PZLk indargabetu egin zuen erregulazio hori.

PZLren 684.1.1 artikulua ezartzen du hipotekatutako ondasun higiezinen kasuan eskudun izango dela «*finka zein tokitan egon eta bertako lehen auzialdiko epaitegia.*

Finka barruti judizial batean baino gehiagotan egonez gero, finka batzuk izan eta barruti desberdinetan daudenean bezala, barruti horietatik edozeinetako lehen auzialdiko epaitegia izango da eskuduna, demandatzaileak hala aukeratuta, eta ez dira aplikagarri izango lege honetan esanbidez edo isilbidez eskumendean jartzeari buruz jasotako arauak».

Foru hori interpretatzen dute AGren 2018ko otsailaren 21eko (220/2017 errek.), 2010eko apirilaren 27ko (88/2010 errek.) eta 2007ko uztailaren 13ko (94/2007 errek.) autoek. Azken ebazpen horretan, «Torrijoseko Lehen Auzialdiko 3 zenbakiko Epaitegiaren eta Valdemoroko 3 zenbakiko Epaitegiaren arteko lurralde-eskumenaren arazoa planteatzen da. Hipoteka betearazteko prozesu bat da [...] Prozesu horretan, Valdemoroko eta Torrijoseko barruti judizialetan kokatutako finkak zeuden, eta hipoteka-hartzekodunak Valdemoroko barruti judiziala aukeratu zuen. Gero, uziak prozesutik kanpo betetzeko akordioa lortu zen Valdemoroko Jabetza Erregistroan inskribatutako erregistro-finkari dagokionez, eta finka horren gaineko hipoteka ezerezteko eskritura egiletsi zen. Hala ere, Torrijoseko Jabetza Erregistroan erregistratutako finkaren gaineko betearazpena aginduta zegoenez, ez zen aldatu jada hasitako prozesuaren eskumena, Prozedura Zibilaren 1/2000 Legearen 411. artikulua xedatzen baitu, prozesua hasi ondoren gertatu aldaketak alderdien egoitzari, auzigaiaren egoerari eta epaiketaren objektuari buruzkoak badira, aldaketa horiek ez dituztela jurisdikzioa eta eskumena aldatuko; jurisdikzioa eta eskumena auzibitatearen hasierako unean zer egiaztatu eta horren arabera zehaztuko baitira».

AGren 2018ko abenduaren 11ko Autoan (213/2018 errek.), ordaindu gabeko kreditu bat erreklamatzeko, hipoteka betearazteko prozesuarekin jarraitzeko kasu bat aztertzen da: «hipoteka betearazteko prozesuaren jarraipenaren aurrean gaude, erreklamaturako kredituaren kopuru batzuk ordaindu gabe baitaude. Jarraipen hori diruzko betearazpenaren arau arruntekin bat etorritako izapidetu behar da, eta, ondorioz, hipoteka betearazteaz arduratu zen epaitegiak izango du eskumena».

PZLk prozedura bakarrean batzen ditu higiezinak, higigarriak, ontzien eta ondasun pignoratuen hipotekak betearazpena. Hala ere, esanbidez eskumendean jartzea higiezinak hipotekarako baino ez du baztertzen, baina xedapen komun gisa ezartzen du «*auzitegiak ofizioz aztertuko duela bere lurralde-eskumena*» (PZL, 684.2 art.).

4.2.7 Zuzenketa-eskubidea egikaritzeko prozedura

Zuzenketa Eskubidea arautzen duen martxoaren 26ko 2/1984 Lege Organikoaren 4. artikulua xedatzen du kalteak zuzenketa-akzioa egikaritu ahal izango duela, egutegiko hurrengo zazpi egunetan, bere egoitzari dagokion lehen auzialdiko epailearen aurrean edo komunikabidearen zuzendaritza zein tokitan izan eta toki horretako lehen auzialdiko epailearen aurrean.

Zuzenketa-eskubideari buruzko uziak gaiaren arabera prozedura berezi gisa izapidetzen dira (hitzezko epaiketa, 2/1984 LOren 6. artikuluan ezarritako berezitasunekin). Ez dira izapidetzen oinarriko eskubideak babesteko prozedura gisa (ikus AGren 2017ko martxoaren 15eko –2595/2016 errek.– eta 2009ko ekainaren 23ko –1629/2007 errek.– autoak).

Fiskaltzak ez du esku hartzen halako prozeduretan. Ildo beretik jo zuten Estatuko Fiskaltzaren apirilaren 5eko 1/2001 Zirkularrak (*PZL berriak fiskalak prozesu zibiletan duen esku-hartzeetan duen eraginari buruzkoa*) eta urtarilaren 3ko 1/2020 Zirkularrak (*Jurisdikzio zibilararen arloko arau-hauste prozesalaren ondoriozko kasazio-errekursoari eta aparteko errekursoari buruzkoa*), zeinak berariaz deklaratu baitu, zuzenketa-eskubideari dagokionez, eskubide horren babesa hitzezko epaiketaren bidez eskatuko dela, fiskalak esku hartu gabe (PZLren 250.1.9 art. eta 2/1984 LOren 6. art.).

Foruaren aginduzko izaeraren oinarria da, batetik, jarraitu beharreko prozedura hitzezko epaiketa dela, eta, bestetik, lege organikoaren 5. artikuluen bigarren paragrafoan xedatutakoa: «*Epaileak, ofizioz eta demandatuak esan beharrekoa entzun gabe, autoa emango du demandaren izapidetza ez onartzeko, baldin eta uste badu ez duela eskumenik*». Fiskalaren entzunaldia berariaz aurreikusten ez bada ere, PZLren 4. artikuluan jasotako ordezkotza izaerari buruzko klausula aplikatuta, ulertu behar da demanda helarazi behar zaiola irizpena eman dezan aurretiaz.

5. Arau bereziak

5.1 ENZNren (gaur egungo Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren

Zuzendaritza Nagusia) ebazpenen aurkako demandak

5.1.1 Erregistro zibilari dagokionez

Erregistro Zibilaren uztailaren 21eko 20/2011 Legeak (EZL) 17. zenbakia gehitzen dio PZLren 52. artikulua 1. apartatuari, eta haren bidez xedatzen da, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak erregistro zibilaren gaian —bizilekuagatiko nazionalitate-eskaerak salbu— emandako ebazpenen eta egintzen aurkako prozesuetan, errekurtsogilearen egoitzaren probintziako hiriburuko lehen auzialdiko epaitegia izango dela eskuduna.

EZLren 87. artikulua lehen apartatuarekin bat etorrita, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenak eta egintzak errekurtsogilearen egoitzari dagokion probintziako hiriburuko lehen auzialdiko epaitegian aurkaratu ahal izango dira, Prozedura Zibilaren urtarilaren 7ko 1/2000 Legearen 781 bis artikuluan xedatutakoarekin bat.

EZLren azken xedapenetako hamargarrenean ezarritakoarekin bat, 2020ko ekainaren 30ean jarriko da indarrean. Ikuspuntu horretatik, kontuan hartu behar da apirilaren 28ko 16/2020 Errege Lege Dekretuaren (*Justizia Administrazioaren esparruan COVID-19ari aurre egiteko neurri prozesalena eta antolaketa-neurriena*) azken xedapenetako bigarrenak atzeratu egin duela EZL indarrean jartzeko data 2021eko apirilaren 31ra.

AGren 2019ko irailaren 10eko Autoak (145/2019 erre.) Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen baten aurkako epaiketa arruntaren demanda baten inguruko eskumen-arazoa ebazten du. Ebazpen horren bidez, ukatu egiten da jaiotza bat epez kanpo inskribatzea eta Espainiako jatorriko nazionalitatea deklaratzeko sustatzailearen presuntzio hutsaren balioan oinarrituta. Demanda Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren aurka aurkeztu da. EZLren 87. artikulua eta PZLren 781. bis artikulua eta 52. artikulua 1. apartatuaren 17. zenbakia oraindik indarrean jarri gabe zeudela ikusi ondoren, AGk deklaratu zuen «kasu honetan demanda epaiketa arruntekoa dela eta, egikaritutako akzioa aintzat hartuta, lurralde-eskumena ez dagoela lege ezarrita aginduzko erregelak direla bide. Hori dela eta, Madrilgo epaitegia bidegabe inhibititu zen, aginduzko forurik ez zegoenez, lurralde-eskumenik ez zuela erabakitzeke, alderdi legitimoak deklinatoria proposatu behar baitzuen garaiz eta forma

egokiz, eta ez da halakorik gertatu. Ondorioz, Fiskaltzaren txostenarekin bat, demandaz arduratzeko eskumena Madrilgo Lehen Auzialdiko 64 zenbakiko Epaitegiari dagokio, demanda aurkeztuta, haren eskumendean jarri baita isilbidez demandatua».

AGren 2020ko urriaren 13ko Autoak (137/2020 erre.) gatazka negatibo bat aztertzen du, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen baten aurkako hitzezko epaiketaren demanda batean, lurralde-eskumena Bilboko epaitegi bati edo San Bartolomé de Tirajanako bati zegokion ebazteko. Zuzendaritza nagusiaren ebazpen horren bidez, ukatu egiten da jaiotza bat epez kanpo inskribatzea eta Espainiako jatorriko nazionalitatea deklaratzeko sustatzailearen presuntzio hutsaren balioan oinarrituta. Demanda Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren aurka aurkeztu da. Berririo ikusten da EZLren 87. artikulua eta PZLren 781. bis artikulua eta 52. artikuluan 1. apartatuaren 17. zenbakia oraindik indarrean jarri gabe zeudela, eta hau deklaritzen du: «PZLren 59. artikuluan arabera, aginduzko erregelek lurralde-eskumena lege zehaztu duten kasuetatik kanpo, lurralde-eskumenik eza zehatz daiteke, soilik, demandatuak edo epaiketari alderdi legitimo izan daitezkeenek deklinatoria garaiz eta forma egokiz proposatzen badute. [...] Hitzezko epaiketari ez da baliozkoa esanbidez edo isilbidez eskumendean jartzea, PZLren 54.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorruta. [...] Edonola ere, badirudi gatazkan dauden bi epaitegiak ados daudela eskuduna demandatzailearen egoitzari dagokiona izan behar dela esaten denean, eta, kasu honetan, errolda-ziurtagiritik ondorioztatzen da egiaztatuta dagoela alta eman zitzaizola Durangon, 2019ko apirilaren 8an, eta egia bada ere notario-ahalordean eta bizileku-baimenean Santa Lucia de Tirajanan eman zela agertzen dela, bi dokumentu horiek lehenagokoak dira. Horregatik, eskuduntzat jotzen da Bilboko Lehen Auzialdiko 4 zenbakiko Epaitegia, ez baitago egiaztatuta demanda aurkeztu zenean egoitza Santa Lucía de Tirajanan zuenik».

5.1.2 Jabetza erregistroari dagokionez

Abiapuntutzat hartu behar da HLren 328. artikulua, zeinak lehen paragrafoan xedatzen baitu *erregistratzailearen kalifikazio negatibo* eta *erregistratzaileen kalifikazioen kontrako errekursoetan Erregistro eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak emandako esanbidezko zein isilbidezko ebazpenei errekursoa jar dakekeela jurisdikzio zibileko organoetan; halakoetan, hitzezko epaiketaren arauak aplikatu behar dira.*

Bigarren paragrafoan ezartzen du *demanda bi hilabeteko epean jarri behar dela, kalifikazioa jakinarazten denetik edo, bestela, interesdunari zuzendaritza nagusiak emandako ebazpena jakinarazi zaionetik zenbatzen hasita; administrazio-isiltasunaren bidez errekurtoa ezetsi denean, epea bost hilabete eta egun batekoa izango da, errekurtoa jarri zenetik zenbatzen hasita. Ondasun higiezinak zein tokitan izan eta toki horri dagokion probintziaren hiriburuko auzitegietan jarri behar da demanda edo, hala denean, Ceuta eta Melillako auzitegietan.*

AGren 2016ko irailaren 21eko Autoak (929/2016 errek.) lurralde-eskumenari buruzko gatazka negatibo bat ebatzi zuen, hitzezko epaiketaren demanda baten barruan. Demanda horren xedea zen Erregistro eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak jabetza-erregistratzaileen kalifikazioaren aurkako errekurtoan emandako ebazpena aurkaratzeko egintza. AGk ondorioztatu zuen demandaz arduratzeko lurralde-eskumena Madrilgo epaitegiei zegokiela, higiezinak kokatuta dagoen lekuari dagokion probintziaren hiriburua baita.

5.2 Estatuaren kontrako demandak

Gure ordenamenduan tradizioz aitortu zaio Estatuari pribilegiozko foru bat. 1882ko urriaren 14ko BJLOren lege osagarriaren 57. artikuluan jada deklaratu zen kasu horietan eskumena zegokiela auzitegia zegoen lekuko epaitegiei.

Azaroaren 27ko 52/1997 Legearen (*Estatuari eta Institutuzio Publikoei Laguntza Juridikoa emateari buruzkoa*) 15. artikulua ezartzen du Estatua, erakunde publikoak edo organo konstituzionalak alderdi diren prozesu zibilez arduratzeko eta haietan ebazpena emateko eskumena dutela egoitza probintziako hiriburuetan, Ceutan edo Melillan duten epaitegiei eta auzitegiei. Arau hori lehenetsiko da prozeduran aplikatu behar den lurralde-eskumenari buruzko beste edozein arauen aurrean.

Artikulu horretan xedatutakoa ez da aplikatuko epaiketa unibertsalitatean eta aurrerantzeko interdikzioetan (ikus AGA, 2006ko urtarrilaren 25ekoa, 141/2005 errek.).

Estatuaren pribilegio honek dotrinan eragin dituen kritikak gorabehera, KAren urriaren 26ko 324/1993 Autoak ezetsi egin zuen aurreko PZLn antzeko arau bat ezartzen zuen 71. artikulua kontrako aurkeztutako konstituzio-contrakotasuneko auzia. KAk esan zuen ez

dela zentzurik gabeko neurria organo publikoak auzitan jardutea beren zerbitzuek egoitza duten lekuetan, hiriburuan [...], interes publikoa babesteko, hala eraginkortasuna eta efikazia bermatzen baitira.

Pribilegio prozesal hori autonomia-erkidegoei ere aplikatu ahal zaie. Lege autonomiko batzuek berariaz sartzan dute (ikusi *Andaluziako Juntaren Administrazioaren* urriaren 22ko 9/2007 Legearen 47. art.). Edonola ere, 52/1997 Legearen laugarren xedapen gehigarriaren hirugarren apartatuak ezartzen du, 15. artikuluan xedatutakoari dagokionez, autonomia-erkidegoak eta haien mendeko zuzenbide publikoko erakundeak alderdi direnean prozeduran, eskudun izango direla egoitza autonomia-erkidegoaren hiriburuan duten epaitegiak eta auzitegiak, hiriburu hori ez denean probintziaren hiriburua.

Foru hori Aseguruen Konpentsazio Batzordeari aplikatu ahal zaio, zuzenbide publikoko erakunde bat baita, bere jardunean ordenamendu juridiko pribatuari lotu behar bazaio ere (ikusi AGren 2016ko urriaren 2ko –1043/2016 errek.– eta 2013ko urtarrilaren 29ko –250/2012 errek.– autoak).

5.3 Kautelazko neurrien inguruko eskabideez arduratzeko eskumena, oro har

PZLren 723. artikulua arautzen du gai hau, eta bere lehen apartatuan ezartzen du, kautela-neurrien inguruko eskabideei dagokienez, lehen auzialdian auziaren gaineko ardura duen auzitegia dela eskuduna, edo, prozesua ez bada hasi, demanda nagusiaren gaineko ardura duen auzitegia.

Artikulu horren bigarren apartatuak erregela bat ezartzen du bigarren auzialdia bideratzean edo prozesuko arau-haustearen ondoriozko errekurso berezia nahiz kasazio-errekursoa bideratzean formulatzen diren kautela-neurrien inguruko eskabideei dagokionez: eskuduna izango da bigarren auzialdiaren edo errekurso horien gaineko ardura duen auzitegia.

PZLren 725. artikulua berezitasun batzuk ezartzen ditu eskumena ofizioz zehazteari dagokionez.

Prozesu nagusia oraindik hasi ez bada, foru hau aginduzkoa den edo ez zehazteko, aintzat hartuko da prozesu hori halako foru baten mende dagoen ala ez (*accessorium sequitur principale*). Hala, AGren 2015eko urtarrilaren 28ko Autoak (159/2014 erre.) deklaratu duenez, «kautelazko neurriak eskatuta eta eskabide horietaz arduratzeke eskuduna demanda nagusiaz arduratuko den auzitegia denez prozesua oraindik hasi ez delako, etorkizuneko epaiketa arruntaren demandaren helburua izango da alderdien artean sinatutako frankizia-kontratuaren existentzia eta indarraldia deklaratzeko, baita demandatuak alde bakarretik erabakitako aurretiazko suntsipena bidegabetzat eta arrazoirik gabekotzat jotzea. Hortaz, egikaritutako akzioa ezin da sartu PZLren 52. artikuluan ezarritako aginduzko foruetan eta, beraz, ezin da sartu artikulua horren 2. apartatuan ezarritako kasuen artean ere. Horren ondorioz, ez dagoenez aginduzko araurik, PZLren 51. artikuluko pertsona juridikoen foru orokorra aplikatu behar da, eta, ez denez PZLren 54. artikuluan ezarritako lurralde-eskumenari buruzko arauen izaera esku-mailetik salbuesten duen aginduzko foru bat, PZLren 56.1 artikulua lege beraren 54.1 artikuluari dagokionez xedatzen duena bete behar da. Horren arabera, izaera esku-maila duten lurralde-eskumenari buruzko arauak (guztiak, aginduzko foruak ezartzen dituztenak izan ezik) soilik aplikatuko dira alderdiak esanbidez edo isilbidez muga-barru zehatz bateko auzitegien eskumendean jarri ez badira. Kasu honetan, demandatzailea isilbidez eskumendean jarri dela esan behar da, kautelazko neurrien inguruko eskabidea demandatutako erakundeetako baten egoitzari dagokion foruan aurkeztu baitzuen; beraz, PZLren 59. artikulua aplikatuta, aginduzko erregularik ez zegoenez, lurralde-eskumenik eza soilik zehaztu ahal zen demandatuak garaiz eta forma egokiz proposatutako deklinatoriaren bidez».

6. Foru bereziak egikaritutako akzioa dela eta

6.1 Ondasun higiezinaren gaineko akzio errealeko forua

PZLk *forum rei sitae* delakoa onartzen du. Auzitegi eskuduna izango da auzigaia dagoen lekukoa. Akzio erreala zenbait ondasun higiezinaren gainean edo esparru desberdinetan dagoen ondasun higiezin baten gainean egikaritu denean, auzitegi eskuduna euren euren edozein izango da, demandatzaileak hala aukeratuta (PZL, 52.1.1 art.).

Foru hau soilik aplikatzen da akzio errealekin, eta kanpoan geratzen dira akzio

pertsonalak eta mistoak.

Horren oinarria da errazagoa dela frogatzea eta hala erraztu egiten dela geroko betearazpen-prozesua.

Akzio errealak gainerako akzioetatik bereizteko, interes berezia du AGren irailaren 14ko 540/2016 Epaia, zeinak hau deklaratu baitu: «akzio errealen bereizgarria da halako eskubide baten titularrari ahalmena ematen diola zuzenean jotzeko epaitegietara bere eskubidearen xede den ondasuna edo gaia dela eta. Akzio errealak erraztu egiten du ondasunen atzetik joateko aukera, titularrari ahalmena ematen baitio makineria judiziala aktibatzeke, eskubidea itzul diezaioten. Akzio pertsonala pertsonen arteko harreman juridiko baten ondorio da, eta betebeharra duenaren kontra edo, hala badagokio, harekin lotura dutenen aurka baino ezin da bideratu akzioa».

Izaera erreala duen akzioa da jabetza-eskubide erreale baten titularrak egiten duena eskubide hori babesteko izaera erreale bera duen beste baten eskubide baten (hipoteka) inskripzioa azkentzeko eta ezerezteko deklarazioaren bidez, azkentze eta ezerezte horiek hartzekodunaren aldebakarreko borondatearen emaitza izan ez direlako, nahiz eta hartzekodunak bere bermatutako kreditu-eskubidea ordaindu izan errealtate zibilean. Hori dela eta, PZLren 52.1 artikuluko lehen erregela aplikatu behar da (AGA, 2011ko irailaren 27koa, 47/2011 errek.).

Foru hori ondasun higiezinak zatitzeko akzioari ere aplikatzen zaio (AGA, 2011ko urtarrilaren 11koa, 578/2010 errek.).

Foru hau aplikatzen zaio enbargoaren prebentziozko idatzoharra ezerezteko akzio bati: enbargoaren idatzoharra eragin duen kreditua babesteko kautelazko neurri bat da eta, beraz, ez du erreale edo hipotekario bihurtzen aurretiaz izaera hori ez zuen akzioa. Hau horrela bada idatzoharra bere alde lortu duen hartzekodunari dagokionez da. Hirugarren batzuei dagokienez, erregistro-publikotasuna du eta, beraz, ezin dute alde batera utzi. Hortaz, idatzoharra egin duenak bere eskubidea egikaritzearen mende egongo dira (HLren 71. art.), eta, gainera, lehentasuna izango du higiezin tratuaren prezioarekin ordaindua izateko, idatzoharra egin ondoren zordunaren hartzekodun diren gainerako enbaretatik (KZ, 1923.4 art.). Laburbilduz, enbargoaren erregistroko idatzoharrak

hipotekaren antzeko *erga omnes* ondorioak sortzen ditu. Hori dela eta, zentzuzko da akzio errealean barruan sartzea demanda honetan egikaritutakoa (AGA, 2005eko urriaren 17koa, 98/2005 erre.).

Higiezin baten gaineko alde bakarreko hipoteka bat eratzeko eskrituraren deuseztasun-akzioak izaera pertsonala du, eta, beraz, PZLren 50. eta 51. artikulua aplikatu behar dira. Artikulu horietan ezarritako erregelak ez dira aginduzkoak eta, ondorioz, epaitegiak ezin zuen ofizioz zehaztu bere eskumena garaiz eta forma egokiz aurkeztutako deklinatoriaren bidez ez bazen (AGren 2019ko abenduaren 3ko –287/2019 erre.–, 2010eko urriaren 5eko –206/2010 erre.– eta 2016ko apirilaren 13ko –203/2015 erre.– autoak).

KZren 1454. artikulua arabera, akzioa pertsonala da: «ezin da ulertu auzi-jartzaileak bere demandan egikaritu zuen akzioa erreala denik, haren xede bakarra baita eskatzea demandatuak kontratu batetik sortutako betebeharrak betetzeko, eta, beraz, nabaria da izaera pertsonala. Izan ere, G L andreari ez zaio 2002ko “erres dokumentua”n aipatzen den pisuaren gaineko jabaririk edo eskubide errealik eskualdatu, dokumentu horren irismena kontuan hartuta, ez baitzaio higiezina eman eta ez baita salmentaren eskritura publikorik egiletsi. Alderdiek elkarri erreserbatu dizkiote Kode Zibilaren 1454 artikuluan ezarritako ahalmenak, besterik ez, eta, hain zuzen ere, ahalmen horiek eraginkor bihurtzea da demandatzaileak planteatutako uziaren helburua» (AGA, 2003ko uztailaren 18koa, 11/2003 erre.).

Ez da foru hau aplikatzen epaiketa arruntean egikaritutako salerosketa-kontratua betearazteko akzioaren kasuan. Demandaren oinarri dira KZren 1098., 1445., 1278., 1279. eta 1280. artikulua. Salerosketa-kontratua betearazteko akzioa pertsonala da, ez erreala (AGA, 2019ko uztailaren 2koa, 148/2019 erre.).

AGren erabakiren batean foru hori aplikatu da, analogiaz: «egia bada ere demandan egikaritutako akzioa ez dela berez akzio erreal bat eta haren bidez ez dela eskatzen hipoteka betearazteko prozedura judizialaren deuseztasuna, egia da, halaber, eskatzeko kausa identifikatzen dela prozedura horrekin duen lotura estuagatik, hipotekaren bidez bermatutako betebeharra dela-eta, horretarako konputatutakoak baino kopuru gehiago ordaindu direla uste delako. Hortaz, lege, zentzuzkoena da PZLren 52.1 artikulua 3. zenbakian 1. zenbakiari dagokionez ezarritako erregela aplikatzea» (AGA, 2005eko

apirilaren 27koa, 105/2004 erre.).

6.2 Besteren ondasunen administratzaileen kontuen aurkezpen eta onarpenaren gaineko demanden forua

Auzitegi eskuduna izango da kontu horiek aurkeztu behar diren tokikoa; toki hori zehaztuta ez badago, mandatugile, ahalorde-emaile edo ondasun-jabearen egoitzakoa edo administrazioa gauzatzen duen tokikoa izango da eskuduna, auzi-jartzaileak hala eskatuta. (PZL, 52.1.2 art.)

Foru esku-emaile bat da. AGren 2013ko apirilaren 30eko Autoak (36/2013 erre.) deklaritzen duenez, «ez dagoenez jasota kontuak non aurkeztu behar diren eta, jarduketetan aurkeztutako auzietarako ahalordean jasotakoaren arabera [...], baita udalerri horretako erroldaren ziurtagiriaren arabera, auzi-jartzailearen egoitza Cambrilsen dagoenez (Reusko barruti judizialean), eta auzi-jartzaileak berariaz aukeratu duenez foru hori bere demandan, ondorioztatu behar da eskumena Reusko Lehen Auzialdiko 5 zenbakiko Epaitegiari dagokiola».

6.3 Aurreko betebeharrak batzuk bermatzeko edo osatzeko betebeharren gaineko demanden forua

Auzia erabakitzeke auzitegi eskuduna izango da betebeharrak nagusiaren gaineko eskumena duena edo jada horren gaineko arduraren diharduena. (PZL, 52.1.3 art.)

Foru hau betebeharrak nagusiaren foruaren mende dagoenez, esku-emaileak izan arren, aginduzkoa bihurtu daiteke betebeharrak nagusia halako foru baten mende badago.

6.4 Jarauntsi-arazoetarako forua

6.4.1 Xedapen orokorra

Auzitegi eskuduna izango da hildakoaren azken egoitzari dagokion tokikoa, eta, hildakoak azken egoitza atzerrian izan badu, Espainian izandako azken egoitzaren tokiko

auzitegia, edo haren ondasun gehienak diren tokiko auzitegia, demandatzaileak hala aukeratuta (PZL, 52.1.4 art.).

«Haren ondasun gehienak diren tokiko» aukera kasu bietan aplikatu ahal da, hau da, hildakoak azken egoitza Espainian izan badu, zein atzerrian izan badu. PZLren 52.1.4 artikulua aginduzko erregela bateragarria da demandatzaileak legean jasotako bi aukeren artean hautatzeko duen marjinarekin (AGren 2020ko otsailaren 4ko –304/2019 errek.–, 2019ko martxoaren 26ko –31/2019 errek.– eta 2010eko azaroaren 16ko –514/2010 errek.– autoak).

Aginduzko foru bat da ere (AGA, 2013ko irailaren 17koa, 122/2013 errek.).

Jarduketetan aurkeztutako dokumentazioak zalantzak eragiten baditu egoitzari dagokionez, kasu horretan irizpidea da halakotzat joko dela hildakoak hil den unean benetan zuen egoitza eta hori baino ez (AGren 2018ko ekainaren 13ko –110/2018 errek.–, 2017ko abenduaren 20ko –185/2017 errek.–, 2016ko irailaren 14ko –923/2016 errek.– eta 2015eko maiatzaren 20ko –54/2015 errek.– autoak).

Azken egoitza zehazteari dagokionez, interesgarria da AGren 2019ko azaroaren 5eko Autoa (231/2019 errek.): eskumena kausatzailearen azken egoitza zegoen lekuko epaitegiari ematen zaio, Madrilen erroldatuta baitago, eta, «heriotza-ziurtagirian Hondarribikoa agertzen bada ere azken egoitza gisa, hala agertzen da bertan pasatzen zituelako oporraldiak eta udan hil delako, baina Hondarribiko bizilekua behin-behinekotzat jotzen da; haren benetako egoitza Madrilen dago, non bizi baitzen urte osoan zehar, oporraldietan izan ezik. Aurrekoari gehitu behar zaio demandatzaileek hildakoaren azken egoitza aukeratu dutela PZLren 52.1.4 artikulua aukeratzeko uzten duen tartearen barruan, eta alderdi biek –demandatzaileek eta demandatuek– egoitza Madrilen dutela».

Artikulu hori interpretatuta, AGren 2014ko urtarrilaren 14ko Autoak (194/2013 errek.) hau deklaratu du: «prozedura honetaz arduratzeko eskumena Madrilgo Lehen Auzialdiko 36 zenbakiko Epaitegiari dagokio, bertan baitago kausatzaile den T jaunaren azken egoitza, eta kausatzaile den G andrearen kasuan, heriotza-ziurtagirian azken egoitza Cerezo de Arriban zegoela agertzen bada ere, Erregistro Zibileko idazpenen zehaztasun-presuntzioak kontrakoa frogatzen du, eta, kasu honetan, testamentuaren

eskritura publikoaren kopian egoitza Madrilen zuela agertzen da, eta heriotzaren ziurtagirian bertan Guadarramako ospitalean (Madril) hil zela dago jasota. Aurrekoari gehitu behar zaio demandatzaileek hildakoen azken egoitza aukeratu dutela PZLren 52.1.4 artikulua aukeratzeko uzten duen tartearen barruan, eta auzi-jartzaile guztiek egoitza Madrilen dutela, baita demandatuek ere». Ildo beretik, AGren 2011ko ekainaren 7ko (44/2011 erre.) eta 2010eko ekainaren 8ko (254/2010 erre.) autoak kontsulta daitezke.

AGren 2016ko irailaren 14ko Autoan (923/2016 erre.), modu berean interpretatzen da azken egoitzaren kontzeptua: «kausatzaileak El Prat de Llobregaten hil ziren eta han bizi izan ziren azken hilabeteetan, Leongo Otero de Naraguanes herritik etorrira. Herri horretan bizi izan ziren hil baino hilabete batzuk lehenagora arte, han dituzte jarauntsiko ondasun gehienak eta han lurperatu zituzten. M. jaunaren errolda-ziurtagiria ikusita, egoitza-aldaketa 2005eko apirilaren 13an izan zen, eta 2005eko ekainaren 25ean hil zen, hau da, bi hilabete geroago. 2003ko abuztuaren 10ean hil zen C andrearen errolda-ziurtagirian ez da agertzen egoitza-aldaketarik edo lekuz aldatzearen ondoriozko bazarrik. M jaunaren heriotza-ziurtagirian Leongo Otero de Naraguanes herrikoa agertzen da egoitza gisa, eta C. andrearen kasuan, berriz, El Prat de Llobregatekoa, nahiz eta haren errolda-ziurtagirian, azaldu den moduan, aldaketarik izan ez. [...] hildakoen azken egoitza Leonen zegoela uste da, eta, beraz, prozedura honetaz arduratzeko eskumena Ponferradako epaitegiei dagokie. Hala da, egiaztatutzat jo delako El Prat de Llobregatera behin-behinean joan zirela, han kokatzeko haien ohiko bizilekua».

Ildo beretik, AGren 2015eko maiatzaren 20ko Autoa (54/2015 erre.) aipa daiteke: «dagoen dokumentaziotik ondorioztatzen da benetan egiaztatuta dagoela kausatzaileak [...] herrian zuela egoitza, egoitza hori agertzen baita sustatutako prozeduran deuseztatu nahi den haren testamentuan [...]. Testamentu hori [...] (e)an egin zen, [...] hil baino egun batzuk lehenago. Egoitza bera agertzen da Madrilgo [...] osasun-zentroko [...] agiri medikoetan. Zentro horretan jaso zuen tratamendua, eta bertan egon zen ospitaleratuta. Halaber, egoitza hori agertzen da Pedro Jesús semeak jarauntsia onartzeko eskrituran. Helbide horretan bizi zen hildakoarekin. Horrez gainera, egoitza fiskala Durangon zeukanaren inguruko zalantzak zerga-administrazio berak argitu ditu, egoitza hori zuzendu, eta Madrilen zuen benetako egoitza jarri baitu».

Azken egoitza egiaztatzeari dagokionez, bereziki garrantzitsua da Erregistro Zibilak emandako heriotza-ziurtagiria, baina kontrako froga onar daiteke (AGA, 2018ko ekainaren 13koa, 110/2018 errek.). AGren 2014ko irailaren 2ko Autoak (87/2014 errek.) hau deklaratzeko du: «Requenako Erregistro Zibilak emandako heriotza-ziurtagirian Valentziako [...] herrian dagoena agertzen da azken egoitza gisa eta, Erregistro Zibileko idazpenen zehaztasun-presuntzioak kontrako froga onartzen badu ere, Vilassar de Dalteko biztanleen errolda kontsultatuta, egiaztatu da hildakoa ez dela agertzen inskribatuta 1940tik. Hori dela eta, ez da indargabetu [...] hil zenean egoitza Requenaz zuela adierazten duen erregistroko presuntzioa».

Forua jarauntsiaren fruituen inguruko auzietan ere aplikatzen da: «prozedura honetaz arduratzeko eskumena Montoroko Lehen Auzialdiko 1 zenbakiko Epaitegiari dagokiola deklaratu behar da, jarauntsiari buruzko auzi bat plazaratzen duen akzio bat baita. Beraz, 52.1.4 artikuluan ezarritako aginduzko forua bete behar du [...] Demandan eskatzen da deklaratzeko jarauntsiko ondasunen fruituak jaraunseleak direla, hiru zati berdinetan, jarauntsia indibisio dagoen bitartean, eta demandatuari zigorra ezartzeko, kontu komunera itzul dezan hamabi mila eta laurogeita hamalau euro eta laurogeita hamalau zentimoko zenbatekoa, gehi legezko interesak. Kopuru hori itzultzeko erreklamazioaren oinarria dira jarauntsiko ondasunen erkidego bat eta fruituen jabetzari buruzko deklarazioa, eta gatazka sortu da jarauntsiko hartzearen eta jaraunskideen inguruan» (AGA, 2013ko irailaren 17koa, 122/2013 errek.).

Foru hau oinordeko izateko duintasunik eza deklaratzeko akzioari, jaraunsgabetzearen aurkaratzeari eta preterizioaren ondoriozko oinordetza-akzioei aplikatu ahal zaie.

Halaber, foru hau aplikatu ahal zaie 1881eko PZLk 63. artikularen 5. eta 6. apartatuetan jasotako gaiei: testamentu edo abintestato epaiketak eta xedetzat ondasunak behartsuen, ahaide edo testamentugileak deitutako –haien izenetatik izendatu gabe– beste pertsona batzuen artean banatzea duten testamentu epaiketak.

6.4.2 Jaso gabeko jarauntsiaren administratzailearen izendapena

AGren 2014ko uztailaren 8ko Autoan (91/2014 errek.), jaso gabeko jaraunspen baten aldeko administratzaile judizial bat izendatzeko borondatezko jurisdikzioko demanda batez arduratzeko eskumena aztertzen da. Demanda horren kausa aurretiaz egindako

epaiketa arrunt bat da, zeinaren xedea baitzen hildakoarekin bere egunean sinatutako salerosketa-kontratu baten eskritura publikoa egitea. Kontratuaren xedea Madrilen dagoen etxebizitza bat da, eta epaiketa arruntaz Madrilgo epaitegiak arduratu ziren. AGk deklaratu zuen PZLren 52.1.4 artikulua hau ezartzen duela: «Jarauntsi-arazoei buruzko epaiketetan, auzitegi eskuduna izango da hildakoaren azken egoitzari dagokion tokikoa, eta, hildakoak azken egoitza atzerrian izan badu, Espainian izandako azken egoitzaren tokiko auzitegia, edo haren ondasun gehienak diren tokiko auzitegia, demandatzaileak hala aukeratuta». Kasu honetan, auzi-jartzaileak Madril aukeratu duenez borondatezko jurisdikzioko demanda aurkezteko –borondatezko jurisdikzioko espediente honen kausa den ondasuna hiri horretan dago–, Madrilgo epaitegiei dagokie demandaz arduratzeko eskumena.

6.4.3 Jarauntsiaren zatiketa

PZLren 52.1.4 artikulua aplikatu behar zaio jarauntsiaren zatiketa judiziala eskatzeko akzioari (AGA, 2018ko ekainaren 13koa, 110/2018 errek.), eta, beraz, hildakoak azken egoitza izan zuen lekuko epaitegiari dagokio eskumena (AGren 2014ko urtarrilaren 14ko –194/2013 errek.–, 2013ko maiatzaren 7ko –38/2013 errek.– eta 2012ko martxoaren 13ko –21/2012 errek.– autoak).

Foru berezia aplikatu behar zaio ere deuseztasuneko epaiketa arruntari edo, horren orde, kausatzailearen jarauntsia banatzeko eragiketak hutsaltzeko epaiketa arruntaren demandari (AGA, 2019ko martxoaren 26koa, 31/2019 errek.).

AGren 2016ko irailaren 14ko Autoak (923/2016 errek.) irabazpidezko ondasunen sozietatea likidatzeko eta jarauntsiaren zatiketa judiziala egiteko demanda bati dagokion lurralde-eskumenaren inguruko gatazka bat ebazten du, PZLren 52.1.4 artikuluko forua aplikatuta, hau da, jarauntsiei buruzko auzien forua aplikatuta. Alderdi horri buruzko arrazoirik ematen ez badu ere, ulertu behar da auto horren abiapuntua dela akzio nagusia jarauntsiaren zatiketa dela, eta irabazpidezko sozietatearen likidazioa akzio erantsia edo nagusiaren instrumentala dela.

Berariaz, duela gutxi emandako AGren 2021eko urtarrilaren 26ko Autoak (206/2020 errek.) hau dio irabazpidezko ondasunen sozietatea likidatzeko eta jarauntsiaren zatiketa

judiziala egiteko demanda batean: metatutako bi akzioetatik, nagusia jarauntsi-arazoei buruzko da. Hori dela eta, PZLren 52.1.4 artikuluko jarauntsi-arazoei buruzko forua aplikatzen du.

6.4.4 Banaketa-koadernoaren eskritura publikoa egilesteko eta sinatzeko akzioa

Akzio honi 52.1.4 artikuluko aginduzko forua aplikatu behar zaio ere (AGren 2012ko martxoaren 13ko –21/2012 errek.–, 2010eko ekainaren 8ko –254/2010 errek.– eta 2011ko uztailaren 5eko –81/2011 errek.– autoak).

6.4.5 Oinordetza noblezia-tituluetan

Ohorezko eskubideak ez dira sartzen pertsona baten jarauntsi-ondarearen barruan (AGren apirilaren 3ko 251/2008 epaia).

Jarauntsiari buruzko prozedura bat dela baztertuta, PZLren 52. artikulua ez dauka foru berezirik pertsona baten ohorezko eskubideei buruzko auzietarako, eta, ondorioz, eskumena emateko arau orokorrak aplikatzen dira. Arau horiekin bat, soilik ebatzi ahal da lurralde-eskumenik ez dagoela demandatuak edo alderdi legitimoak garaiz eta forma egokiz proposatutako deklinatoria dela bide (AGA, 2019ko ekainaren 11koa, 74/2019 errek.).

6.4.6 Jarauntsia onartzeko eta hari uko egiteko baimena

AGk aplikatzen zuen irizpidea zen aplikatu beharreko arautzat jotzea BJLren 62. artikulua eta eskumena ematea adingabearen edo gaitasuna judizialki aldatua duen pertsonaren egoitzari edo, halakorik ezean, bizilekuari dagokion epaitegiari (AGren 2019ko ekainaren 25eko –78/2019 errek.– eta 2018ko uztailaren 4ko –102/2018 errek.– autoak). Jarauntsiari uko egiteko ere aplikatzekotzat jotzen zen BJLren 62. artikulua (AGren 2019ko ekainaren 25eko –78/2019 errek.–, 2019ko ekainaren 11ko –130/2019 errek.– eta 2018ko uztailaren 4ko –102/2018 errek.– autoak).

Hala ere, duela gutxi aldatu egin da irizpide hori. AGren 2020ko urtarrilaren 14ko Autoak (293/2019 errek.) hau deklaritzen du: «adingabe batek izan ditzakeen jarauntsi-

eskubideei uko egiteko baimen judiziala lortzeko eskaera bat denez, eskuduna izango da kausatzailearen azken egoitzari edo, halakorik ezean, azken bizilekuari dagokion lehen auzialdiko epaitegia».

Illo beretik, hau deklaratu da: «eskaeraren xedea bada adingabe edo gaitasuna judizialki aldatua duen pertsona baten aldeko jarauntsiari edo legatuari uko egiteko behar den baimen judiziala eskatzea, edo xede bakarra bada jarauntsia inbentario-onurarik gabe onartzeko baimena eskatzea, eskuduna izango da kausatzailearen azken egoitzari edo, halakorik ezean, azken bizilekuari dagokion lehen auzialdiko epaitegia, eta, azken egoitza atzerrian izan badu, Espainian izandako azken egoitzaren tokiko auzitegia, edo haren ondasun gehienak diren tokiko auzitegia, eskatzaileak hala aukeratuta» (AGren osoko bilkuraren 2019ko abenduaren 10eko –187/2019 erre.– eta 2019ko abenduaren 10eko –203/2019 erre.– autoak).

6.4.7 Jarauntsia banatzeko baimena

Kasu hauetan, jarauntsia onartzeko edo arbuiatzeko baimenen kasuan bezala, aginduzko forua dago kasu bakoitzean manu batek ezarrita, eta ez dago aukerarik esanbidez edo isilbidez eskumendean jarrita aldatzeko (hala ondorioztatzen da BJLren 2.2 eta 16. artikuluetatik).

BJLren 62. artikulua aplikatu behar da, eta ez 94. artikulua, lehenengoak xedatzen baitu, adingabeen edo gaitasuna judizialki aldatuta duten pertsonen ondasunen eta eskubideen xedatze- edo kargatze-egintzak edo bestelakoak burutzeko baimen edo onespen judiziala lortzeko, eskuduna izango dela adingabearen edo gaitasuna judizialki aldatuta duen pertsonaren egoitzari edo, halakorik egon ezean, bizilekuari dagokion lehen auzialdiko epaitegia. Hori dela eta, eskumena tutoretzapeko pertsonaren egoitzako/bizilekuko epaitegiari dagokio. Eskumenari buruzko irizpide hori, gainera, bat dator tutoretzapekoa babesteko printzipioarekin, tutoretza hori modu eraginkorrangoan gauzatu ahal baita tutoretzapekoa bizi den lekuko epaitegiaren kontrolpean. Horrez gainera, justizia eskura izatea ahalbidetzen du, Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren 13. artikuluekin bat etorrira (AGren 2020ko otsailaren 4ko –350/2019 erre.–, 2018ko uztailaren 4ko –102/2018 erre.–, 2017ko maiatzaren 17ko –67/2017 erre.– eta 2016ko azaroaren 30eko –1057/2016 erre.– autoak).

Ohikoa da tutoreek sustatutako espedienteetan zenbait eskaera metatzea, eta horrek zaildu egiten du lurralde-eskumenaren tratamendua. Eskaeraren xedea bada jarauntsia banatzeko baimen judiziala lortzea eta, banaketa eta banatzeko adjudikazioen onarpenaz gainera, jarauntsiaren onarpena (onarpen huts soila barne) formalizatzen eta sartzen bada, espediente horietaz arduratzeko eskumena izango du adingabearen edo gaitasuna judizialki aldatuta duen pertsonaren egoitzari edo, halakorik egon ezean, bizilekuari dagokion lehen auzialdiko epaitegiak (BJL, 62. art.). Egokiagotzat jotzen da irizpide hori, hurbiltasuna eta efikazia aintzat hartuta, erregela orokor gisa, beharrezkoa izaten baita tutoretzapekoa entzutea jarauntsiaren banaketa onartzeko, eta, hala, erraztu egiten da justizia eskura izatea, Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren 13. artikuluekin bat etorruta (AGren osoko bilkuraren 2019ko abenduaren 10eko –187/2019 errek.– eta 2019ko abenduaren 10eko –203/2019 errek.– autoak).

6.5 Higiezin errentamenduen ondoriozko akzioetarako eta utzarazpen-akzioetarako forua

6.5.1 Dotrina orokorra

PZLk *forum rei sitiae* delakoa onartzen du. Eskudun izango da finka kokatuta dagoen lekuko auzitegia (PZL, 52.1.7 art.). Aginduzko foru berezietako bat da (AGren 2013ko uztailaren 9ko –107/2013 errek.– eta 2013ko abenduaren 3ko –180/2013 errek.– autoak).

Foruaren oinarria da komeni dela prozesuaren xedea jurisdikzio-organora hurbiltzea, froga egitea errazteko eta, betearazpena bideratu behar bada, izapideak azkartzeko.

Eztabaidaren muina bada egikaritutako akzioa errentamendu-kontratu baten ondorioa den (PZLren 52.1.7 artikuluko aginduzko forua aplikatu beharko litzateke) ala kontratuarekin loturarik ez duen diruzko kondena ezartzeko akzio bat den (kasu horretan PZLren 50. eta 51. artikuluetan ezarritako foru orokorra aplikatu beharko litzateke), egikaritutako akzioari buruzko zalantzak –errentamendu-kontratuarekiko independentea den ala ez– aginduzko araua aplikatuta argitu behar dira, are gehiago errentamendu-kontratua interpretatu edo aztertu behar bada erreklamazioa bidezkoa den ala ez erabakitzeko

(AGren 2021eko urtarrilaren 19ko –232/2020 errek.–, 2019ko azaroaren 5eko –239/2019 errek.–, 2019ko uztailaren 16ko –151/2019 errek.–, 2019ko apirilaren 9ko –59/2019 errek.– eta 2018ko maiatzaren 30eko –17/2018 errek.– autoak).

Foru hau lokalen errentamenduei ere aplikatzen zaie (AGA, 2019ko urriaren 8koa, 168/2019 errek.), eta ulertu behar da landa-errentamenduei ere aplikatu ahal zaiela. Izan ere, hala ezartzen zen berariaz *Landa-errentamenduen* abenduaren 31ko 83/1980 Legearen (LEL) 123. artikuluan, urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen xedapen indargabetzaile bakarraren bidez indargabetu zen arte.

Finkak barruti judizial bat baino gehiago hartzen badu, bi aukera daude: exegesi historikoa erabilita, LELen 123. artikulua bigarren apartatuak ezarritako irizpidea aplikatu ahal da: lekua dela eta, eskudun badira hainbat epaitegi, finkaren zati nagusia dagoen lekuko epaitegiari emango zaio eskumena. Finkaren zati nagusitzat joko da errentariaren edo apartzeroaren landetxea dagoen zatia edo, halakorik ez badago, tamaina handieneko zatia.

Beste aukera da PZLren 52.1 artikuluan higiezinaren gaineko akzio errealetarako ezarritako arauak eta PZLren 684.1.1 artikuluan higiezinaren hipotekak betearazteko ezarritako erregelak betetzea, analogiaz, eta aukera hau lehenetsi beharko dute fiskalek kontrako jurisprudenzia-irizpiderik zehazten ez den bitartean: akzioa zenbait ondasun higiezinaren gainean edo esparru desberdinetan dagoen ondasun higiezin baten gainean egikaritzen denean, auzitegi eskuduna haietako edozeinetan dagoena izango da, demandatzaileak hala aukeratuta. Aukera honek bere alde du sinpletasuna, eta froga-arazo konplexuak saihesten dituela.

6.5.2 Errentaren inguruko erreklamazioak

Foru hau aplikatzen zaie errentamendu-kontratutik eratorritako diru-kopuruen erreklamazioei (AGren 2021eko urtarrilaren 19ko –232/2020 errek.–, 2020ko otsailaren 4ko –312/2019 errek.– eta 2014ko apirilaren 22ko –28/2014 errek.– autoak).

Hiri-errentamenduei buruzko kontratuetatik eratorritako diru-kopuruak erreklamatzeko akzioari aplikatzen zaio, errenten ordainketari zein ordaindu gabeko kopuru parekatuei

(AGA, 2013ko irailaren 10ekoa, 95/2013 errek.).

Instalazio fotovoltaiko bat jartzeko, erabilera industrialeko eraikin baten estalkiaren errentamendu-kontratu baten errentak ez ordaintzearen ondorioz, diru-kopuruak erreklamatzeko egikaritutako akzio bati dagokion epaiketa arruntaren demanda bati aplikatzen zaio (AGA, 2016ko abenduaren 14koa, 1060/2016 errek.).

6.5.3 Hornidurei buruzko erreklamazioak

Foru berezi hau aplikatzen da hitzezko epaiketaren demanda batean, zeinean egikaritzen baita ur-hornidura erreklamatzeko akzio bat, eta errentatzaile batek aurreko errentariari erreklamatzeko dio errentamendu-kontratu bat dela eta (AGren 2019ko ekainaren 25eko – 123/2019 errek.– eta 2018ko maiatzaren 30eko –17/2018 errek.– autoak). Halaber, gasa, argia eta telefonoa hornitzeko erreklamazio-akzio bati aplikatu ahal zaio (AGA, 2019ko martxoaren 12koa, 20/2019 errek.).

6.5.4 Fidantza-itzulketak

Etxebizitza baten errentamendu-kontratu batetik eratorritako fidantza itzultzeko akzioa egikaritzen bada, PZLren 52.1.7 artikuluko aginduzko forua aplikatu behar da (AGren 2019ko azaroaren 5eko –239/2019 errek.–, 2018ko maiatzaren 9ko –22/2018 errek.–, 2013ko uztailaren 2ko –88/2013 errek.– eta 2013ko otsailaren 19ko –264/2012 errek.– autoak).

Dotrina hau aplikatuta, ulertzen da foru hau aplikatu behar dela emandako eta errentatzaileak atxikitako zenbatekoa erreklamatzeko akzio bati dagokionez, errentariak atzera egin ondoren, etxebizitza baten errentamendu-kontratu bat dela eta (AGA, 2019ko apirilaren 9koa, 59/2019 errek.).

Foru hau aplikatu beharrian, kontsumitzaileena aplikatu behar da oporretako alokairu batean jarritako fidantza itzultzeko demanda batean (AGA, 2019ko maiatzaren 7koa, 1/2019 errek.).

6.5.5 Errentariak eragindako kalteen ondoriozko erreklamazioak

Aginduzko forua aplikatu behar zaio errentan hartutako etxebizitzan eragindako kalteen ondoriozko diru-kopurua erreklamatzeko akzio bati (AGren 2019ko uztailaren 16ko –151/2019 errek.– eta 2013ko irailaren 10eko –95/2013 errek.– autoak).

6.6 Jabetza horizontalari buruzko akzioen forua

Eskudun izango da finka kokatuta dagoen lekuko auzitegia (PZL, 52.1.8 art.). Aginduzko foru bat da (AGren 2020ko urtarrilaren 14ko –315/2019 errek.– eta 2014ko urtarrilaren 7ko –191/2013 errek.– autoak).

Jada *Jabetza Horizontalaren* uztailaren 21eko 49/1960 Legeak, apirilaren 6ko 8/1999 Legeak emandako idazkeran, aginduzko foru hau ezarri zuen bere 21.3 artikuluan.

Foru hau aplikatu behar zaie ordaindu gabeko komunitateko kuoten erreklamazioei (AGren 2017ko otsailaren 1eko –1112/2016 errek.– eta 2016ko urriaren 5eko –1011/2016 errek.– autoak).

JHLren 10.1 artikularen babesean, jabeen erkidegoak higiezin mantentzeko eta zaintzeko betebeharrak ez betetzeagatik egikaritutako diru-kopurua erreklamatzeko akzioari aplikatzen zaio; auzi-jartzailearen higiezin, komunitateko hodiaren butxatzeak eragindako kalteen inguruko erreklamazioa ere aurkeztu zen, KZren 1902. artikularen babesean (AGA, 2017ko azaroaren 8koa, 105/2017 errek.).

Kode Zibilaren 1902. eta 1903. artikuluen eta Jabetza Horizontalaren Legearen 9. artikularen babesean, ur-iragazketen ondorioz diru-kopuru bat eta zerbait egiteko kondena erreklamatzeko hitzezko epaiketaren demanda batean foru hau aplikatu behar da egikaritutako akzioa, KZren 1902. artikuluan oinarritzeaz gainera, Jabetza Horizontalaren 9. artikularen b), c), d) eta g) letretan oinarritzen denean, PZLren 52.1.8 artikuluan

ezarritako kasuan sartzen baita. Aginduzko foru horrek berariaz ezartzen du jabetza horizontalari buruzko epaiketetan finka non egon eta bertako auzitegiak izango duela lurralde-eskumena (AGA, 2018ko maiatzaren 30ekoa, 57/2018 errek.).

Halaber, foru hau aplikatu behar zaie erkidegoak erabakiak hartzearen inguruko prozesuei.

6.7 Ibilgailu motordunen zirkulazioak eragindako kalte eta galeren kalte-ordainari buruzko akzioen forua

6.7.1 Araubide orokorra

PZLk *locus comissi factis* forua onartzen du, eta abiapuntua da eztabaidagaia egintza ez-zilegi zibil bat egin dela. PZLren 52.1.9 artikulua aginduzko arau gisa ezartzen du, ibilgailu motordunen zirkulazioak eragindako kalte-galeren ordaina eskatzen den epaiketetan, lurralde-forua izango dela kalteak eragin ziren lekuko jurisdikzio-organoarena; ezin dira aplikatu esanbidez edo isilbidez eskumendean jartzeari buruzko arauak. Ofizios ezarriko du jurisdikzio-organoak, PZLren 58. artikulua ezarritakoarekin bat (AGA, 2013ko irailaren 17koa, 146/2013 errek.).

Foru honen izateko arrazoia da egoera onartezin bat sortuko litzatekeela egoitzari dagokion foru orokorra aplikatuz gero trafiko-istripuetan, kaltetu ugari daudenean eta aseguru-erakundeek eta erantzule zibil ugari esku hartu behar dutenean, elkarren artean baztertzailleak diren zenbait epaitegi izan daitezkeelako eskudun (AGA, 2014ko azaroaren 4koa, 121/2014 errek.). Gainera, eskumena horrela egozteak erraztu egingo du froga egitea.

Jurisprudentziak malgutasunez interpretatzen du «zirkulazio-egitatea» kontzeptua, eta, hala, AGren urriaren 19ko 556/2015 epaiak «gidariaren atsedenaldiekin lotutako gelditzea edo aparkatzea» sartzen du aparkatuta zegoela sute bat eragin zuen ibilgailuak sortutako kalteen kasu bati dagokionez. Halaber, «zirkulazio-egitatea» da eta foru berezi hau aplikatzen da istripua animalia batek eragiten duenean (ikusi AGA, 2009ko irailaren 22koa, 206/2009 errek.). Ildo horretan, AGren 2012ko irailaren 18ko Autoak (158/2012 errek.) hau deklaritzen du: «kaltea kaltetutako ibilgailua bide batetik zirkulatzen ari

zenean gertatu zenez, kalteak eragin zituen animalia bidean sartu zenean, 52.1.9 artikuluko aginduzko erregela aplikatu behar da [...], zeinak eskumena gertaerak izan ziren lekuko auzitegiari ematen baitio (nahiz eta kaltea ez eragin beste ibilgailu batek, kanpoko elementu batek baizik)».

6.7.2 Errentan hartutako ibilgailuan izandako kalteen ondoriozko erreklamazioa

Ezin da aplikatu PZLren 52.1.9 artikuluan ezarritakoa egikaritzen ari dena ez delako zirkulazio-istripu baten ondoriozko kalte-galerei dagokien kontratuz kanpoko erantzukizun zibilaren akzio bat, ibilgailuaren jabe den erakunde errentatzaileak sustatutako demanda bat baizik. Izan ere, errentatzaileak erreklamazioa aurkeztu du erakunde errentariak ibilgailuan eragindako kalteen ondorioz (gidatzen zuenak sortu zituen kalteak), eta, beraz, akzio bat da, jatorria merkataritzako bi sozietateak lotzen zituen errentamendu-kontratuan duena [...] kalteak ibilgailua gidatzean sortu badira ere, ez da, berez, istripuan izandako kalteen kasu bat, alteritatea falta baita, kalteak errentan hartutako ibilgailuan bertan eragin zirelako, dirudienez gidariaren hutsegite baten ondorioz. [...] Kontratua ez betetzeagatik aurkeztutako diru-kopuru baten erreklamazioa da, eta, horregatik, ez du inolako berezitasunik. Horrenbestez, ezin zaio aplikatu PZLren 52.1 artikuluen 9. erregela, eta lege beraren 50. eta 51. artikuluetan jasotako lurralde-eskumenari buruzko erregela orokorrak aplikatu behar dira (AGren 2017ko otsailaren 1eko –1111/2016 errek.– eta 2014ko azaroaren 4ko –121/2014 errek.– autoak).

6.7.3 Kaltedunaren zuzeneko akzioa, istripuaren eragilearen aseguratzailearen kontra

Eskuduna da trafiko-istripua gertatu zen lekuko epaitegia (AGA, 2017ko ekainaren 28koa, 100/2017 errek.).

«Zuzeneko akzioa [...] ez da aseguratuak aseguratzailearen aurka sustatutako akzio bat, kaltetuak aseguruaren aurka sustatutakoa baizik, eta kontratuz kanpoko erantzukizunaren bideetatik planteatu da. Hori dela eta, akzio horri ez zaizkio aplikatzen Aseguru Kontratuaren Legeko arauak [...] Aseguru-kontratuaren Legearen 76. artikuluko zuzeneko akzioan ez da bete behar lege beraren 24. artikuluan ezarritako eskumenari buruzko erregela, Prozedura Zibilaren Legearen 52.1.9 artikuluko erregela baizik, eta,

beraz, epaile eskuduna kaltea gertatu zen lekukoa da» (AGA, 2003ko urriaren 30ekoa, 30/2003 erre.).

6.7.4 Aseguratzailen arteko berreskaera-akzioa

Aseguru Kontratuaren Legearen 43. artikuluko konpainien arteko subrogazio-akzioan (aseguratzaile baten berreskaera-akzioa, aseguratuak izandako trafik-istripu baten ondorioz ordaindutako kopuruak direla eta) PZLren 51.1 artikuluko erregela orokorra aplikatu behar da. Aseguru Kontratuaren Legearen 43. artikuluko akzioa da ordaindutako kopuruaren ondoriozko berreskaera eta ez istripuak eragindako kalte eta galeren ondoriozko erantzukizun-akzioa, eta, beraz, baztertuta geratzen da PZLren 52.1 artikuluan 9. erregela aplikatzea. Berezitasunik ez duenez, lege beraren 51. artikuluan ezarritako lurralde-eskumenari buruzko erregela orokorra aplikatu behar da, hau da, auziaz arduratzeko eskumena demandatutako pertsona juridikoak egoitza duen lekuko organo judizialak izango du (AGren 2020ko azaroaren 17ko –102/2020 erre.–, 2020ko martxoaren 3ko –20/2020 erre.–, 2018ko uztailaren 4ko –103/2018 erre.–, 2018ko martxoaren 14ko 20/2018 erre.– eta 2017ko apirilaren 19ko –20/2017 erre.– autoak).

Demanda ibilgailuaren jabearen eta haren aseguratzailaren aurka aurkezteak ez du aldatzen inguruabar hori, akzio bera egikaritu baita biei dagokienez, hau da, Aseguru Kontratuaren Legearen 43. artikuluko subrogazio-akzioa, zeina ez den mugatzen aseguratzailen arteko erreklamaziora (AGren 2020ko martxoaren 3ko –20/2020 erre.–, 2018ko apirilaren 4ko –44/2018 erre.–, 2018ko ekainaren 13ko –75/2018 erre.– eta 2018ko otsailaren 7ko –221/2017 erre.– autoak).

Irizpide hori ez da aplikatu behar soilik Aseguru Kontratuaren Legearen 43. artikuluan oinarritutako berreskaera-akzioen kasuan; Ibilgailu motordunen zirkulazioko erantzukizun zibilari eta aseguruari buruzko Legearen –aurrerantzean IMZEZAL– 11. artikuluan oinarritutako akzioetan ere aplikatu behar da (AGren 2014ko apirilaren 22ko –16/2014 erre.– eta 2016ko urriaren 24ko –1043/2016 erre.– autoak), baita IMZEZALen 10. artikuluan oinarritutakoetan ere (AGA, 2019ko urriaren 15ekoa, 169/2019 erre.).

Subrogazio-akzioari emandako tratamenduaren antzekoa ematen da istripuan

kaltetutakoak bere akzioa beste erakunde bati lagatzen dionean, dagozkion kalte-ordainak erreklamatzeko bidezkoak diren legezko akzioak egikaritu ditzan (AGA, 2019ko urriaren 29koa, 190/2019 erre.).

6.7.5 Aseguratuaren kontrako berreskaera-akzioa

Trafiko-istripu bat dela eta, aseguru-etxe batek IMZEZALen 7.a) artikuluko berreskaera-akzioa egikaritu zuen kaltetuei ordainutako kalte-ordainen zenbatekoa erreklamatzeko. Istripu horretan, demandatuak –istripuaren eragilea– demandatzailearen aseguru-etxean zuen asegurua. Kasu horren inguruko epaiketa arruntean sortutako lurralde-eskumenaren arazoan, AGk ulertu zuen PZLren 52.2 artikuluan ezarritako aginduzko erregela (aseguruen forua) aplikatu behar zela, eta gaiaz arduratzeko eskumena demandatutako aseguratuaren egoitzako epaitegiari zegokiola (AGA, 2014ko urtarrilaren 14koa, 169/2013 erre.), prozeduran egikaritutako akzioa ez delako zirkulazio-istripuak eragindako kalte eta galeren ondoriozko erantzukizun-akzioa, trafiko-istripuan kaltetutakoei ordainutako kalte-ordainen berreskaera-akzioa baizik –istripuaren erantzulea aseguru-etxe demandatzailean zegoen aseguratuta– (AGA, 2012ko martxoaren 6koa, 254/2011 erre.).

Emaita berarekin, baina oinarri ezberdinarekin, IMZEZALen 10. artikuluan ezarritako berreskaera-akzioa dela bide aurkeztutako erreklamazio baten aurrean, egiaztatuta zegoenez asegurututako ibilgailuaren gidaria edari alkoholikoen eraginpean gidatzen ari zela, eta, ondorioz, sortutako kalteak eta aseguratzaileak ordainutakoak ez zeudenez jasota polizan, AGk ebatzi zuen egikaritutako akzioak ez zuela inolako berezitasunik (IMZEZAL, 10. art.), eta, beraz, ez zela aplikatu behar PZLren 52.1.9 artikuluko aginduzko lurralde-foru berezia, dotrinak behin eta berriro ezarri baitu foru hori –kalteak sortu ziren lekuko auzitegiari dagokiona– soilik aplikatu behar dela istripuaren erantzulearen kontrako erantzukizun zibilaren arloko akzioak ebazteko, istripuan sortutako kalte eta galeren ordaina eskatzen denean, baina ezin dela aplikatu berreskaera-akzioen kasuan. Hori dela eta, ez dagoenez foru berezirik, lege beraren 50. eta 51. artikuluetan jasotako lurralde-eskumenari buruzko erregela orokorrak aplikatu behar dira, eta, pertsona fisikoen kasuan, ezartzen da egoitza duten lekuan demandatu behar direla (AGren 2018ko martxoaren 14ko –31/2018 erre.– eta 2017ko azaroaren 22ko –179/2017 erre.– autoak).

6.7.6 Aseguratuaren zuzeneko akzioa, bere konpainiaren kontra

Ez da aplikatzen PZLren 52.1 artikuluko 9. erregela, aseguratuaren egoitzari dagokion forua baizik.

Kasu hauetan, egikaritutako akzioa ez da zirkulazio-istripu batek eragindako kalte eta galeren ondorioz kalteen eragilearen kontra sustatutako erantzukizun-akzio bat, aseguratuak, bien arteko aseguru-poliza dela bide, bere aseguru-etxearen aurka sustatutako akzio bat baizik, eta, beraz, ezin da aplikatu PZLren 52.1.9 artikulua, *Aseguru Kontratuaren* 50/1980 Legearen 24. artikuluan xedatutakoa baizik. Artikulu horrek ezartzen du aginduzko forua dela aseguratuaren egoitza (AGren 2017ko maiatzaren 10eko -47/2017 errek.-, 2012ko azaroaren 20ko -201/2012 errek.- eta 2012ko maiatzaren 29ko -89/2012 errek.- autoak).

Irizpide hori aplikatu ahal da aseguratuak bere aseguru-etxearen kontrako akzioa trafiko-istripuan eragindako kalteen ondorioz sustatzen duenean ere (AGA, 2019ko otsailaren 19koa, 222/2018 errek.).

Halaber, irizpide bera aplikatzen da, defentsa juridikoa jasotzen duen aseguru-kontratutik eratorritako zuzeneko akzioa dela bide, aseguratuak libreki izendatutako letraduaren zerbitzu-sarien ondoriozko kopuruak erreklamatzeko dizkionean aseguru-etxeari. Dotrina horren oinarria da PZLren 52.2 artikuluan eta Aseguru Kontratuaren Legearen 24. artikuluan xedatutakoa (AGren 2021eko urtarrilaren 26ko -244/2020 errek.-, 2018ko otsailaren 21eko -14/2018 errek.- eta 2014ko irailaren 23ko -100/2014 errek.- autoak).

Hala ere, aseguratuak, estaldura juridikoa dela eta, bere kreditua lagatzen badio zerbitzua eman zion bulegoari, azken horiek aseguru-etxearen aurka sustatutako akzioan ezin da aplikatu PZLren 52.2 artikuluko foru berezia (AGA, 2021eko otsailaren 23koa, 309/2020 errek.).

6.7.7 Aseguratzaillearen eta aseguratuaren akzioa, istripua eragin duen beste ibilgailuaren jabearen eta haren aseguratzaillearen aurka

Foru berezia aplikatu behar da eta, beraz, eskuduna da trafiko-istripua gertatu zen lekuko

epaitegia (AGA, 2018ko apirilaren 4koa, 5/2018 erre.).

6.7.8 Aseguratzailaren berreskaera-akzioak, autobideko emakidadunaren kontra

Planteatzen da ea aplikatu ahal den PZLren 52.1.9 artikuluko forua aseguru-etxeak autobideko sozietate emakidadunaren aurka aurkeztutako demandan, zeinaren bidez erreklamatzeko baitu, galtzada inbaditu zuten hiru txakur harrapatzearen ondorioz ibilgailuak izandako istripu bat dela eta, aseguratuari ordaindutako kalte-ordaina. AGk uste du egikaritutako akzioak (Aseguru Kontratuaren Legearen 43. art.) ez duela inolako berezitasunik, eta ez dela sartzen PZLren 52.1.9 artikuluko aginduzko lurralde-foru berezian, dotrinak behin eta berriro ezarri baitu foru hori –kalteak sortu ziren lekuko auzitegiari dagokiona– soilik aplikatu behar dela istripuaren erantzulearen kontrako erantzukizun zibilaren arloko akzioak ebazteko, istripuan sortutako kalte eta galeren ordaina eskatzen denean, baina ezin dela aplikatu Aseguru Kontratuaren Legearen 43. artikuluan oinarritutako berreskaera-akzioen kasuan. Hori dela eta, ez dagoenez foru berezirik, lege beraren 50. eta 51. artikuluetan jasotako lurralde-eskumenari buruzko erregela orokorrak aplikatu behar dira –hitzezko epaiketetan, ezinezkoa denez eskumendean jartzea, aginduzko foruak dira– (AGren 2018ko maiatzaren 23ko –63/2018 erre.–, 2018ko otsailaren 14ko –203/2017 erre.– eta 2018ko martxoaren 14ko –20/2018 erre.– autoak).

6.7.9 Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren berreskaera-akzioa

Akzio honek ez du inolako berezitasunik, eta, beraz, ez da sartzen PZLren 52.1.9 artikuluko aginduzko lurralde-foru berezian, dotrinak behin eta berriro ezarri baitu kalteak sortu ziren lekuko forua soilik aplikatu behar dela istripuaren erantzulearen kontrako erantzukizun zibilaren arloko akzioak ebazteko, istripuan sortutako kalte eta galeren ordaina eskatzen denean, baina ezin dela aplikatu berreskaera-akzioen kasuan, ez Aseguru Kontratuaren Legearen 43. artikuluan oinarritutakoetan, ez IMZEZALen 11. artikuluan oinarritutakoetan, ezta IMZEZALen oraingo 10. artikuluan (aurreko testuko 7.a) artikulua) oinarritutakoetan ere, eta kasu hori da oraingoa. Hori dela eta, ez dagoenez foru berezirik, PZLren 50. eta 51. artikuluetan jasotako lurralde-eskumenari buruzko erregela orokorrak aplikatu behar dira (AGren 2019ko uztailaren 16ko –108/2019 erre.–, 2016ko urriaren 26ko –1043/2016 erre.– eta 2013ko urtarrilaren 29ko –250/2012

errek.– autoak).

IMZEZALen 11.3 artikuluan xedatutakoa dela bide, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak kaltetuari ordaindutako kopuruen ondoriozko berreskaera gisa aurkeztutako erreklamazio-demanda bat dela eta (ibilgailu batek harrapatu ondoren egin zitzaion ordainketa kaltetuari, eta ibilgailuaren jabe eta gidariak ez zuen asegururik), egikaritutako akzioak ez du inolako berezitasunik, eta, beraz, ezin da aplikatu PZLren 52.1.9 artikuluko aginduzko lurralde-foru berezia. Hori dela eta, eskuduntzat jotzen da demandatuaren egoitzako epaitegia (AGA, 2019ko uztailaren 2koa, 142/2019 errek.).

Gogoratu behar da, gorago azaldu den bezala, Partzuergoak jarduten duenean, 52/1997 Legearen (*Estatuari eta Instituzio Publikoei Laguntza Juridikoa emateari buruzkoa*) 15. artikuluko erregela ere aplikatu behar dela (AGA, 2014ko apirilaren 22koa, 16/2014 errek.).

6.7.10 Osasun-laguntzaren emailearen akzioa, istripuaren eragilearen aseguruen kontra

Trafiko-istripu batean lesionatutakoei emandako osasun-laguntza zerbitzuak eragindako erreklamazioak, kaltetuek laguntza eman zuen erakundeari laga diotenean beren zenbatekoa istripuaren eragilearen aseguru-etxeari erreklamatzeko eskubidea, kaltea eragin duen ibilgailuaren aseguratzailaren kontrako zuzeneko akzio bat dira, KZren 1902. artikulua eta Aseguru Kontratuaren Legearen 76. artikulua aplikatuta, eta, beraz, PZLren 52.1.9 artikuluko erregelarekin bat, eskumena istripua gertatu zen lekuko epaitegiari dagokio (AGren 2019ko irailaren 10eko –149/2019 errek.–, 2019ko otsailaren 19ko –5/2019 errek.– eta 2018ko abenduaren 14ko –214/2018 errek.– autoak).

6.7.11 Kaltedunen zuzeneko akzioa, aseguratzailaren kontra, EBko beste herrialde batean gertatutako zirkulazio-istripu bat dela eta

AGk birritan izan du aukera lurralde-eskumenaren gatazka negatiboei buruzko ebazpena emateko kaltedunek aseguru-etxe baten kontrako zuzeneko akzio bat egikaritu duten demandei dagokienez. Demandak Portugalen gertatutako zirkulazio-istripu batetik eratorritako erantzukizun zibilagatik aurkeztu ziren.

Printzipioz, PZLren 51.1.9 artikuluan ezarritako aginduzko lurralde-forua aplikatu beharko litzateke. Haren arabera, eskumena kalteak gertatu ziren lekuko jurisdikzio-organoari dagokio. Hala ere, kasu honetan ezin da aplikatu foru hori istripua –eta, ondorioz, kalteak– lurralde nazionaletik kanpo gertatu zelako.

Kasuetako batean –epaiketa arruntaren demanda zen–, akzioa ez zenez sartzen PZLren 52. artikuluen 1. apartatuaren 1. zenbakian eta 4. zenbakitik 15. zenbakira eta 2. eta 3. apartatuetan ezarritakoaren arabera lurralde-forua aplikatu behar zaien gaietako batean ere ez, AGk ebatzi zuen soilik erabaki ahal zela epaiketa arruntaz arduratzeko lurralde-eskumenik ez zegoela demandatuak edo alderdi legitimoak garaiz eta forma egokiz proposatutako deklinatoria dela bide (AGA, 2019ko maiatzaren 28koa, 63/2019 errek.). Beste kasuan, hitzeko epaiketa bat zenez, AGk ebatzi zuen demandatuaren egoitzako epaitegia arduratu behar zela demandaz (AGA, 2019ko abenduaren 3koa, 271/2019 errek.).

6.7.12 Istripuaren eragilearen eta haren aseguratzailearen kontrako subrogazio-akzioa

Kasu hauetan zenbait demandaturen aurkako akzioak metatzen dira, eta ulertu behar da aseguru-etxe batek beste baten aurka egikaritzen duen akzioaren oinarria dela istripuaren eragilearen aurkako akzioa, eta, beraz, eskumena istripua eragin zuenaren egoitzaren arabera ezarri behar da (ikusi AGA, 2019ko martxoaren 12koa, 272/2018 errek.).

6.8 Akordio sozialak aurkaratzeko akzioen forua

Sozietate Anonimoen Legeak (abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako testuategina) aginduzko foru bat sartu zuen prozesu hauetarako 118. artikuluan: «epaile eskuduna izango da, beste edozein baztertuta, egoitza soziala dagoen lekuko lehen auzialdiko epailea. Epaileak ofizioz aztertuko du bere eskumen propioa».

PZLk indargabetu egin zuen artikulua hori, baina antzeko foru bat mantendu du 52.1.10 artikuluan: sozietatearen erabakiak aurkaratzeari dagokionez, sozietatearen egoitzako auzitegia izango da eskuduna.

Aginduzko foru bat da eta egiaztatutzat jo da egoitza erregistro-ziurtagiriaren bidez (AGA, 2014ko apirilaren 22koa, 25/2014 errek.).

Ilido beretik, AGren 2014ko ekainaren 17ko Autoak (74/2014 errek.) hau deklaritzen du: «sozietatearen erabakiak aurkaratzeko akzioa egikaritzuz, epaiketa arruntaren demanda jarrita, lurralde-eskumena PZLren 52.1.10 artikuluan xedatutakoaren arabera finkatzen da. Artikulu horrek aginduzko forutzat jotzen du demandatuaren egoitza soziala, eta, [...] Merkataritzako Erregistroaren ziurtagiriaren bidez, egiaztatuta dago demandatuak herri horretan duela egoitza soziala. Bertan aurkeztu zuen auzi-jartzaileak –demandatuaren bazkidea– demanda. Horrenbestez, benetako administrazio- eta zuzendaritza-zentroa beste barruti judizial batean egon badaiteke ere –alderdi hori ez da egiaztatu–, egia da egikaritutako akzioa Prozedura Zibilaren Legearen 52.1.10 artikuluan ezarritako aginduzko foruaren arabera lurralde-eskumena duen organo judizialean bideratu dela».

AGren 2001eko abenduaren 18ko Autoarekin bat etorrita (1084/2001 errek.), «interpretazio literal eta logikoaren ikuspegitik, argi dago Prozedura Zibilaren Legearen 52.1.10 artikuluan erantzukizun mugatuko sozietateei dagokienez aipatzen den egoitza dela bai merkataritzako erregistroan argitaratutakoa (Erantzukizun Mugatuko Sozietateen Legearen 13.d) artikuluekin bat, sozietatearen estatutuetan finkatutakoa da), bai hirugarren erregistralak aukeratutako benetakoa edo erreala, edo lehenengoa soilik, akzioa egikaritu duenak hirugarrenaren izaera ez duenean [...] Erantzukizun Mugatuko Sozietateen Legearen 7. artikuluan ezarritako lehen arauak halako sozietate baten sortzaileak behartzen ditu argitaratutako egoitza eta sozietatearen benetako administrazio- eta kudeaketa-egoitza berdinak izan daitezela lortzera, baina, araua betetzen ez bada, aurrez ikusten den zehapena da hirugarrenei (erregistralak, jakina) aukera ematea haien eskubideak bi egoitzetan baliatu ahal izateko. [...] Lege horren 7.2 artikuluan jasotako bigarren arauaren (edo zehapen-araua) berehalako edo zuzeneko hartzailea ez da agintari judiziala, eta ez dio ezartzen egoitza erreala hirugarren erregistralari. [...] Aztertzen ari garen kasuan (erantzukizun mugatuko familia-sozietate baten erabakiak aurkaratzeko akzio bat; sozietate horretan, hiru bazkideak neba-arrebak dira, eta bakoitzak kapitalaren heren bat du), zalantzan jar daiteke demandatzailea hirugarren erregistrala den ala ez, baina eztaba daezina da, duen izaera edozein dela ere, 7. artikulua ematen dion aukera baliatu duelako edo erregistroan argitaratutakoa formalki bete duelako, akzioa PZLren 52.1.10 artikuluan ezarritako foruaren arabera

lurralde-eskumena duen organo judizialaren aurrean egikaritu dela».

6.9 Jabetza intelektualaren arloko arau-hausteen gaineko demanden forua

PZLk *forum delicti commissi* delakoa onartzen du, eta aukerako foru bat ematen dio demandatzaileari. Arau-haustea non gauzatu, edo arau-haustearen zantzuak non egon, edo ale ez-zilegiak non egon, eta toki horretako auzitegia izango da eskuduna, demandatzaileak hala aukeratuta (PZL, 52.1.11 art.).

Jabetza Intelektualaren Legeak (1996ko apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak emandako idazkeran) antzeko aginduzko foru bat sartu zuen 137. artikuluan. Indargabetu egin zen PZL argitaratu ondoren.

AGk dio nahitaez aplikatu beharreko foru berezi bat dela (AGA, 2004ko azaroaren 11koa, 65/2004 erre.).

AGk demandatzailearen aukeratzeko ahalmenak nabarmentzen ditu. Hala, AGren 2002ko irailaren 25eko Autoan (17/2002 erre.) hau deklaritzen da: «jabetza intelektualari buruzko arau-hauste bati buruzko auzi horretaz arduratzeko eskumena Bartzelonako Lehen Auzialdiko 20 zenbakiko Epaitegiari dagokio, PZLren 52.1.11 artikuluekin bat, demandan alegatzen zenez Bartzelonan ustezko ale ez-zilegiak zeudela, demanda herri horretan aurkeztu zenez, demandatzaileak behin eta berriro aldarrikatu zuenez Bartzelonako epaitegien eskumena alderdi horri buruz galdetu zitzaionean eta, azkenik, adierazi zuenez Bartzelonakoak eskumenik ez zuela erabakiz gero baino ez zuela aukeratuko Valentziako forua, nahiz eta berriro esan ustez ez-zilegia zen obra Espainia osoan zehar banatu zela eta, beraz, haren aleak izan zitezkeela Bartzelonan, argi dago demandatzaileak Bartzelonako forua aukeratu zuela aipatutako artikulua emandako ahalmenen barruan».

6.10 Leia desleialaren arloko forua

Demandatuak establezimendua zein tokitan izan eta bertako auzitegia izango da eskuduna, eta, demandatuak establezimendurik ez badu, bere bizileku edo egoitza zein tokitan izan eta bertako auzitegia izango da eskuduna; demandatuak hori Espainiako

lurraldean ez badu, elkarlehia desleialeko egintza non gauzatu, edo egintzak ondoreak non sortu, eta bertako auzitegia izango da eskuduna, demandatzaileak hala aukeratuta (PZL, 52.1.12 art.).

Lehia Desleialaren urtarrilaren 10eko 3/1991 Legearen 23. artikulua (jatorrizko idazkeran) jada sartu zuen antzeko foru bat, zeinak eztabaida eragin baitzuen aginduzko izaera dela eta, ez zuelako horren inguruko zehaztapen argirik. PZLn jasotako foru horren konfigurazio berriaren ondorioz, argia da haren izaera luzaezina.

Lehiaren eskubidearen kontrako jarduketek eragindako kalte eta galeren ordain gisa diruzko kondena ezartzeko akzioei aplikatu beharreko foruari dagokionez, eta zehazki «kamioien kartela» deritzonari dagokionez, dotrina sendotua dago (ikusi AGren 2019ko urriaren 22ko –212/2019 errek.–, 2019ko ekainaren 18ko –56/2019 errek.–, 2019ko maiatzaren 7ko –16/2019 errek.–, 2019ko otsailaren 26ko –262/2018 errek.–, 2019ko uztailaren 9ko –100/2019 errek.–, 2019ko ekainaren 25eko –94/2019 errek.–, 2019ko maiatzaren 7ko –24/2019 errek.–, 2019ko apirilaren 2ko –11/2019 errek.– eta 2019ko apirilaren 9ko –250/2018 errek.– autoak).

Ebazpen horietan, AGk deklaritzen du lehiaren zuzenbide pribatuko akzioen erregulaziotik hurbilen dagoen forua dela PZLren 52.1.12 artikuluan ezarritako lehia desleialaren forua. Foru horrek demandatuak establezimendua duen tokiko auzitegiari ematen dio eskumena, eta, establezimendurik ez badu, haren egoitza edo bizilekua dagoen tokikoari. Azken foru subsidiario gisa, demandatuak Espainian egoitzarik edo bizilekurik ez duenean, demandatzaileak aukerako foru bat du: egintza egin den lekua edo egintzak ondorioak izango dituen lekua. Egintza kaltegarria –akordio kartelizatua– egin den lekuak zalantza sor dezake, baina ez da hala gertatzen ondorioak izango dituen lekuarekin, demandatzaileak gainprezioa jasango duen lekua baita, eta arazo gehigarririk gabe identifika daiteke ibilgailua erosi zen lekua dela.

AGren ustez, halako kasuetan, «kontzesionarioa ezin da jo jendaurrean zabalik dagoen establezimendutzat edo erakundearen izenean jarduteko baimena duen ordezkaritzat, PZLren 51.1 artikuluko ondorioetarako, emakida- edo banaketa-kontratuetan enpresaburu independenteek esku hartzen dutelako [...] Hala, marka anitzeko kontzesionario edo establezimenduetan ibilgailuak erosteko ohiko formulak erabat ez-

eraginkor bihurtzen du kontratua egin den lekuko aukerako forua. Hala ere, kontzesionarioa dagoen lekua izan daiteke jokabide arau-hauslearen ondorioak gertatu diren lekua».

AGren ustez, «kamioien kartela» deritzonetik eratorritako akzio horien kasuan, egoitza Espainiatik kanpo duen erakunde bat demandatzen denean, PZLren 52.1.12 artikuluko forua aplikatu behar da: «ondorioak gertatu diren lekua, han jasan baitu demandatzaileak gainprezioa, eta bestelako arazorik gabe identifika daiteke ibilgailua erosi zen lekua dela».

Kamioi batzuk erosi baziren, kamioi gehienak erosi ziren lekua aukeratuko da.

Hala ere, AGren 2020ko irailaren 15eko Autoak (104/2020 erre.) eskuduntzat jotzen du kaltea gertatu den leku gisa demandatzaileak egoitza duen barruti judiziala, non erosketetako bat gertatu baitzen, erosketak gehienak gertatu ziren lekuko barruti judizialaren aurrean lehenetsita. Fiskalak adierazi zuen hiru ibilgailuetatik bi Valentzian erosi zirela, eta, beraz, lurralde-eskumena Valentziako epaitegiei zegokiela. Ildo beretik jo zuen AGren 2021eko urtarrilaren 12ko Autoak (166/2020 erre.).

Egoitza Espainian duen erakunde bat demandatzen bada, egoitza horren arabera zehazten da eskumena. Ildo horretan, AGren auto hauek aipa daitezke: 2019ko maiatzaren 7koa (24/2019 erre.), 2019ko ekainaren 25koa (94/2019 erre.), 2019ko uztailaren 9koa (100/2019 erre.), 2019ko ekainaren 18koa (56/2019 erre.) eta 2019ko maiatzaren 7koa (16/2019 erre.). Horrenbestez, AGren dotrinaren arabera, ezin da aplikatu «ondorioak gertatu ziren lekuari» dagokion forua demandatutako erakundeak edo demandatuetako batek egoitza Espainian duenean (ikusi AGren 2020ko martxoaren 10eko –318/2019 erre.– eta 2020ko martxoaren 3ko –344/2019 erre.– autoak).

AGren 2019ko martxoaren 19ko Autoak (23/2019 erre.) demandatu baten atzera egitearen eta beste batzuei dagokienez demanda zabaltzearen ondorioak aztertzen ditu: «demandatzaileak zuzen jokatu zuen hasierako erreklamazioa demandatuetako baten – Renault España SA, Valladolid– egoitzan planteatu zuenean. Gero, atzera egin zuen merkataritzako sozietate horren aurkako erreklamazioan, eta eutsi egin zion egoitza Frantzian duen Renault Trucks SAS enpresaren kontrako demandari, eta egoitza Madrilen

duen Volvo Group España SA sozietatea sartu zuen demanda horretan. Zabaltze hori demanda onartu ondoren egin zen eta, beraz, PZLren 412. artikuluan jasotako *perpetuatio legitimatio* delakoaren ondorioak sortu ditu. Hori dela eta, 2019ko otsailaren 26ko Autoan –262/2018 gatazka– ezarritakoa aintzat hartuta, lurralde-eskumena ondorioak gertatu diren lekuak zehaztuko du, eta ibilgailua erosi zen lekuarekin identifikatzen da, bertan jasan baita gainprezioa. Kasu honetan ez dago argi jasota non izan zen erosketa, eta ezin da onartu Valladolid Palma Mallorcakoaren alde inhibitzea auzia eragin duen kaltea gertatu zen lekua demandatzailearen egoitzarekin identifikatuta, ez baita foru hori aplikatu beharrekoa. Ondorioz, ez dagoenez frogatuta erosketaren lekua, lurralde-eskumenari buruzko gatazka hau Valladolideko Merkataritza-arloko Epaitegiaren alde ebatzi behar da. Hala ere, organo judizial horrek beharrezkoak diren jarduketak egin ahal izango ditu bere eskumena egiaztatzeko, auzi-jartzailearen erosketaren lekua egiaztatzeko eskatzea barne, hala badagokio».

6.11 Patenteen eta marken arloko forua

Eskudun izango da gai horretako legeria bereziak ezarritako auzitegia. (PZL, 52.1.13 art.). PZLren 54. artikulua aginduzko izaera ematen dio foru honi, eta baztertu egiten du esanbidez edo isilbidez eskumendean jartzeko aukera.

Gaiaren konplexutasunaren ondorioz, 2000ko legelariak uko egin zion bere kodetzeko nahiari, eta foruaren erregulazioa legeria berezira bideratu zuen. Puntu honetan, kontuan hartu behar da *Patenteen* uztailaren 24ko 24/2015 Legearen 118. artikulua eta, haren garapenean, BJKNren 2018ko urriaren 18ko Akordioa, zeinaren bidez merkataritza-arloko epaitegiei egozten baitzaie eskusiban *Patenteen* uztailaren 24ko 24/2015 Legearen, *Marken* abenduaren 7ko 17/2001 Legearen eta *Diseinu Industrialaren Babes Juridikoari* buruzko uztailaren 7ko 20/2003 Legearen babesean sortu ahal diren auzi zibilez arduratzeko eskumena (BOE, 2018ko azaroaren 14koa).

Gai horretan, eta, bereziki, landare-lorpenen babesa lortzeari dagokionez, AGren 2019ko urtarrilaren 22ko Autoa (196/2018 erre.) kontsulta daiteke.

Foru hau aplikatzeko ezintasunaren arrazoia da gaiaren konplexutasuna, hiperespezializazioa eskatzen baitu, merkataritza-arloko epaitegiek dutena baino

handiagoa.

6.12 Kontratazioaren baldintza orokorren klausulen gaineko akzioen forua

Prozesuetan, akzioak egikaritzen direnean kontratazioaren baldintza orokorreko klausulak kontratuari ez eransteko edo klausula horien deuseztasuna adierazteko, demandatzailearen egoitzako auzitegia izango da eskuduna. (PZL, 52.1.14 artikulua, lehen paragrafoa).

PZLk indargabetu eta ordeztu egiten ditu *Kontratueto Baldintza Orokorrei* buruzko apirilaren 13ko 7/1998 Legearen 15. artikuluko foruak.

Foru horren oinarria da kontsumitzailearen babesa, alderdirik ahulena baita kontratu-harremanean, eta oinarri horrek inspiratu behar du haren exegesia.

Aginduzko foru bat da (AGA, 2018ko otsailaren 21ekoa, 224/2017 erre.).

AGren 2019ko urtarrilaren 22ko Autoak (232/2018 erre.) hau deklaritzen du, banku-erakunde baten aurrean, kontratazioaren baldintza orokorrak deuseztatzeko banakako akzio bat egikaritzeko sustatutako epaiketa arruntaren demanda bati dagokionez: «PZLren 52.1 artikulua 14. erregela aplikatuta eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorraren 2017ko maiatzaren 25eko Akordioarekin bat (kasu bakoitzerako lurralde-eskumena duten epaitegi jakin batzuei eskumena ematen die modu eskusiboan eta ez-baztertzailan higiezin berme errealek dituen finantzaketa-kontratu batean sartutako baldintza orokorrei buruzko auziez ardurtzeko, mailegu-hartzailea pertsona fisiko bat denean), deklaratu behar da lurralde-eskumena Santanderreko Lehen Auzialdiko 2 bis zenbakiko Epaitegiari dagokiola, demandan demandatzaileak adierazi baitzuen bere egoitza Castro Urdialesen zegoela».

Banku-erakunde bati dagokionez sustatutako kontratazioaren baldintza orokorrak (muga-eguna aurreratzeko klausula) deuseztatzeko banakako akzio bati aplikatzen zaio (AGA, 2018ko otsailaren 21ekoa, 224/2017 erre.).

Hipoteka-gastuak itzultzeko erreklamazioari buruzko hitzezko epaiketa bati dagokionez, AGk deklaratu du PZLren 52.3 artikuluan ezarritako eskumen-foruak aplikatu behar

direla, bai PZLren 52.1.14 artikuluko eskumen-forua jotzen bada aplikatzekotzat, bai kontsumitzaileek egikaritutako akziotzat jotzen bada. PZLren 52.3 artikulua ezartzen du demandatzaile kontsumitzaileak bere egoitzako epaitegian jarri ahal duela demanda (AGA, 2018ko uztailaren 17koa, 125/2018 errek.).

Foru hori aplikatuta, AGren 2015eko maiatzaren 27ko Autoak (14/2015 errek.) deklaritzen du, demandatzaile bakarra egoitza Bartzelonako probintzian duen kontsumitzaileen elkarte bat denez –Bartzelonan aurkeztu zen demanda–, kontratazioaren baldintza orokorren klausulak deuseztatzeko akzioa egikarituta, ezinbestekoa dela deklaratzeko eskumena Bartzelonako Lehen Auzialdiko 4 zenbakiko Epaitegiari duela, baina ondorioa berbera dela bukarazte-akzio bat dela ulertzen badugu, alderdi demandatua Bartzelonan establezimendu bat irekita duen kreditu-erakunde bat baita (PZL, 52.1.14 art.).

AGren 2008ko urriaren 29ko Autoak (125/2008 errek.) deklaritzen du Prozedura Zibilaren Legearen 52.1.14 artikulua lurralde-eskumenari buruzko erregela bat duela eta aginduzkoa dela. Ebazpen horrek ondorioztatzen du ezin dela aplikatu foru hori ezin baita ulertu xede horrekin formulatutako demanda bat denik, ez baitago jasota deuseztatu nahi den klausula kontratazioaren baldintza orokorretan sartutako estipulazio bat denik.

AGren 2004ko apirilaren 1eko Autoan (8/2004 errek.) jasotakoaren arabera, «ezin da aplikatu 52.1 artikuluko 14. erregela berezia, demandan ez baita egikaritu kontratuan ez sartzeko deklaraziorako edo kontratazioaren baldintza orokorren deuseztasunerako akziorik [...], kontratu osoa deuseztatzeko akzio bat baizik, dolo, errakuntza eta kontratu aurreko informazio faltagatik».

Abusuzkotzat jotzen direlako, zenbait baldintza orokor deusez deklaratzeko akzioa egikaritzen den kasu batean, kontsumitzaile batzuek egikaritutako banakako akzioak direnez, ezartzen da aplikatu ahal dela 52.3 artikuluko eskumen-erregela –kontsumitzailearen forua– (AGA, 2017ko urriaren 25koa, 106/2017 errek.).

PZLren 52.1.14 artikulua bigarren paragrafoarekin bat, gai horretan akzio adierazlea, bukarazte-akzioa edo atzera jotzeko akzioa egikaritzen direnean, demandatuak establezimendua non izan eta bertako auzitegia izango da eskuduna, eta demandatuak

establezimendurik ez badu, beraren egoitzari dagokion auzitegia izango da eskuduna; demandatuak egoitza Espainiako lurraldean ez badu, atxikimendua egin den tokiko auzitegia izango da eskuduna.

6.13 Jabari-hirugarrengotzen eta eskubide hobeko hirugarrengotzen forua

Premiamenduko prozedura administratiboetan jarritako jabari-hirugarrengotza edo eskubide hobeko hirugarrengotzaren kasuan, enbargoa zein organok erabaki eta organo horren egoitzako auzitegia izango da eskuduna, lurralde-eskumenari dagokionez administrazio publikoentzat ezarritako berezitasunak alda batera utzi gabe (PZL, 52.1.15 art.).

Forua oinarritzen da enbargoan organo publiko batek duen esku-hartzetik eratorritako berezitasunean, eta bateratu egin behar da azaroaren 27ko 52/1997 Legearen (*Estatuari eta Instituzio Publikoei Laguntza Juridikoa emateari* buruzkoa) 15. artikuluan ezarritakoarekin (ikusi goragoko 5.2 epigrafea).

Xedapen hori interpretatzen du AGren 2004ko apirilaren 27ko Autoa (13/2004 errek.): «kasu honetan, jabari-hirugarrengotzaren akzioa egikaritu da Sanlúcar de Barramedako Udalak sustatutako premiamendu-prozedura bati dagokionez. [...] Ondorioz, ez da ondasun higiezin baten gaineko akzio erreal bat, zeinaren eskumen-forua 52.1.1 artikuluan jasota baitago, enbargoa kentzeko akzioa baizik, eta haren forua transkribatutako arauan jasotakoa da (52.1.15 art.)».

6.14 Agentzia-kontratuaren ondoriozko akzioen forua

Agentzia-kontratuari buruzko maiatzaren 27ko 12/1992 Legearen (aurrerantzean AKL) xedapen gehigarriak ezartzen du agentzia-kontratutik eratorritako akzioez arduratzeko eskumena agentearen egoitzari dagokion epaileak izango duela eta deuseza izango dela aurkako edozein itun. Bestalde, AKLren 3.1 artikulua hau ezartzen du: berariaz aplikatu behar zaien legerik ez badago, agentzia-kontratuaren modalitate ezberdinei, haien izena edozein dela ere, lege honetan ezarritakoa aplikatuko zaie, eta bertan ezarritakoa aginduzkoa izango da berariaz besterik ezartzen ez bada.

Foru hau aginduzkoa da (AGA, 2018ko otsailaren 14koa, 215/2017 errek.).

Foru hau aplikatu da agentzia-kontratu bat dela-eta egindako diru-kopuru baten erreklamazio batean (AGA, 2020ko otsailaren 4koa, 319/2019 errek.), eta agentzia-kontratutik eratorritako bezeroen ondoriozko kalte-ordainaren erreklamazio batean (AGA, 2017ko irailaren 13koa, 109/2017 errek.).

AKLren foru hau aplikatuko da ere PZLren 256.1.2 artikulua babesean egindako aurretiazko eginbideen eskaera bati dagokionez. Eskaera horren bidez, demandatuak zenbait dokumentu aurkezteko eskatzen da, alderdiak lotzen zituen agentzia-kontratuaren azkentzea dela eta, PZLren 256. artikulua 1. apartatuaren 9. zenbakiak lege bereziei buruz egiten duen aipamena aintzat hartuta (AGren 2019ko martxoaren 26ko –15/2019 errek.–, 2019ko abenduaren 10eko –299/2019 errek.– eta 2015eko ekainaren 17ko –88/2015 errek.– autoak).

6.15 Aseguruen arloko akzioen forua

Eskuduna izango da asegurudunaren egoitzakoa edo 50. eta 51. artikuluetako arauekin bat dagokiona, demandatzaileak aukeratuta (PZL, 52.2 art.).

Aseguru Kontratuaren urriaren 8ko 50/1980 Legearen 24. artikulua –PZLk ez du berariaz indargabetu– xedatzen du aseguru-kontratutik eratorritako akzioez arduratzeko eskumena izango duela aseguratuaren egoitzakoak, eta deuseza izango dela aurkako edozein itun.

Foruaren oinarria da aseguratuaren babesa, kontratu-harremanaren alderdirik ahulena baita.

Aseguratuak aseguru-etxearen aurka sustatutako akzioetan haren egoitzaren forua aplikatzen da, *Aseguru Kontratuaren* Legearen 24. artikuluan xedatutakoa eta PZLren 52.2 artikulua aplikatuta, zeinak foru bera ezartzen baitu aseguruen arloko auzietarako (AGren 2018ko urriaren 9ko Autoa, 182/2018 errek.).

Foru hau aplikatzen da demanda aseguratuak berak aurkezten duenean bere aseguru-

etxearen aurka, edo aseguru-etxeak haren aurkako erreklamazioa aurkezten duenean, hau da, gatazka aseguratuaren eta aseguratzaillearen arteko harreman zuzen eta berehalakoan oinarritzen den auzietan (ikusi AGA, 2019ko ekainaren 18koa, 140/2019 errek.).

Hori dela eta, ez zaio aplikatzen kaltetu batek bere aseguru-etxearen kontra sustatutako PZLren 76. artikuluko zuzeneko akzioari, haren aseguratuak praxi mediko txarragatik sortutako kaltearen ordaina emateko betebeharra betetzea eskatzeko egikaritutakoari (AGA, 2017ko otsailaren 1ekoa, 1099/2016 errek.).

Foru berezi hau aplikatzen zaio epaiketa arruntaren demanda bati, zeinean diruzko kondena baten uzia egikaritzen baita, bizitza-aseguru kolektiboaren poliza baten harpidetza dela eta (AGA, 2020ko martxoaren 3koa, 324/2019 errek.).

Hartzaile eta aseguratuak bere aseguru-etxeari kopuru bat erreklamatzeko akzio bat xedetzat duen epaiketa arruntaren demanda batean –oinarria da alderdiek sinatutako aseguru-poliza–, AGk ebatzi zuen aseguru-kontratu batetik eratorritako akzio bat zela, eta, beraz, PZLren 52.2 artikuluan adierazitako aginduzko forua aplikatu behar zela eta deklaratu behar zela lurralde-eskumena zuela demandatzaile aseguratuaren egoitzako foruari zegokion epaitegiak, foru hori aukeratu baitzuen alderdi horrek demanda aurkeztean (AGA, 2020ko otsailaren 25ekoa, 329/2019 errek.).

Hitzezko epaiketa baten bidez aseguru-etxeen arteko berreskaera-akzioa egikaritzen denean, pertsona juridikoen foru orokorra aplikatuko da, zeina aginduzkoa baita hitzezko epaiketaren arloan. Demandatzaileak aukeratu ahal zuen demanda demandatuaren egoitza soziala zegoen lekuko epaitegian aurkeztea edo istripua gertatu zen eta, ondorioz, alderdien arteko harreman juridikoa sortu zen lekuko epaitegian aurkeztea, betiere erakunde demandatuak jendaurrean zabalik dagoen establezimendu bat bazuen leku horretan (AGren 2020ko martxoaren 17ko –321/2019 errek.– eta 2020ko urtarrilaren 28ko –346/2019 errek.– autoak).

Ohikoak dira aseguru-etxeek konpainia elektrikoen aurka sustatutako akzioak, hornidura elektrikoan izandako hutsegiteek eragindako kalteen ondorioz aseguratuari ordaindutako kopuruen subrogazioa dela eta: aukera da aplikatzekotzat jotzea pertsona juridikoen egoitzaren foru orokorra (AGren 2020ko urriaren 6ko –140/2020 errek.– eta 2020ko urtarrilaren 14ko –280/2019 errek.– autoak). Kasu hauetan, demandatzaileak aukera du

demanda horniduraren hutsegitea eta kalteak gertatu diren lekuko barruti judizialean aurkezteko, konpainia elektrikoak leku horretan sukurtsalik badu (AGA, 2020ko urriaren 27koa, 183/2020 errek.). Ildo horretan, AGren 2019ko abenduaren 18ko Autoak (286/2019 errek.) hau deklaratzeko du: «egikaritutako akzioa kontuan hartuta – berreskaera-akzioa, Aseguru Kontratuaren Legearen 43. artikulua arabera, aseguratuari aurretiaz ordaindutako kalteen ustezko erantzulearen aurka–, epaitegi eskuduna Madrilgo Lehen Auzialdiko 13 zenbakiko Epaitegia izango da, auzi-jartzaileak aukeratutako forua delako eta PZLren 51. artikuluan jasota dagoelako, auziaren xede den harreman juridikoa herri horretan sortu baita eta, demandan adierazitakoaren arabera, demandatuak bertan baitu jendaurrean zabalik dagoen establezimendu bat».

Akzioa egikaritzen duena polizan izendatutako onuraduna denean eta ez aseguratuak, ezin da aplikatu foru berezia, eta PZLren 51., 55. eta 56. artikuluetan xedatutakoa bete behar da (AGA, 2004ko martxoaren 25koa, 12/2004 errek.).

Obra baten exekuzioan eragindako kalteen ondorioz, ingeniari arduradunaren, eraikuntza-enpresaren eta bakoitzaren aseguru-etxeen kontra bideratutako kopuruak erreklamatzeko epaiketa arruntaren demanda bat dela eta, ezin da aplikatu foru berezia, Aseguru Kontratuaren Legearen 76. artikuluaekin bat, kaltetuak erantzukizun zibilararen arloan aseguratzalearen aurka aurkeztu ahal duen zuzeneko akzioa ez delako aseguru-kontratutik eratorritakoa (AGA, 2003ko ekainaren 17koa, 2/2003 errek.).

Aseguru-etxe batek demandatzailearen ibilgailuan –konpainian aseguraturakoa– izandako istripu baten kalteen konponketa bere gain hartu ez zuelako, aseguratuak bere aseguru-etxearen aurka kopuru bat erreklamatzeko sustatutako akzio bati aplikatzen zaio (AGA, 2019ko martxoaren 12koa, 36/2019 errek.).

Aseguratuak aukera du aseguru-etxeak jendaurrean zabalik dagoen establezimendu bat duen barrutiari dagokion epaitegian aurkezteko demanda. Barruti horretan sortu zen harreman juridikoa. Halako establezimendutzat jotzen da aseguru-polizaren alta eta baja kudeatu zen lekua (AGA, 2019ko maiatzaren 7koa, 84/2019 errek.).

6.16 Ondasun higigarri gorpuzdunen epekako salmentaren eta halakoak finantzatzeko kontratuen arloko akzioen forua

Eskuduna izango da erosle edo mailegu-hartzailearen egoitzako epaitegia edo 50. eta 51. artikuluetako arauekin bat dagokiona, demandatzaileak aukeratuta (PZL, 52.2 art.).

Foru honek uztailaren 13ko 28/1998 Legeak (*Ondasun Higigarrien Epekako Salmentari buruzkoa*) ezarritakoak ordeztzen ditu eta helburua berriro da kontratu-harremaneko alderdirik ahulena babestea.

Aginduzko foru hau aplikatzen du AGren 2013ko irailaren 24ko Autoak (108/2013 errek.) ondasun higigarri baten epekako salmentaren finantzaketa-kontratu batean.

Finantzaketarako mailegu-kontratu batetik eratorritako kopuru nagusia eta interesak erreklamatzeko akzioa egikaritzeko epaiketa arruntaren demanda jarrita ondasun higigarrien erosle bati, lurralde-eskumena PZLren 52.2 artikuluan xedatutakoak zehazten du. Artikulu horrek aginduzko forutzat jotzen du mailegu-hartzailearen egoitza (AGren 2020ko otsailaren 11ko –343/2019 errek.–, 2010eko irailaren 14ko –304/2010 errek.– eta 2010eko ekainaren 15eko –160/2010 errek.– autoak).

6.17 Zerbitzuak emateko kontratuen edo ondasun higigarriei buruzko kontratuen arloko akzioen forua, kontratua egin aurretik eskaintza publikoa egin denean

Eskuduna izango da eskaintza onartu duenaren egoitzako epaitegia edo 50. eta 51. artikuluetako arauekin bat dagokiona, demandatzaileak aukeratuta (PZL, 52.2 art.). Aginduzko foru bat da.

Urriaren 5eko 42/2015 Legeak PZLren 52.2 artikuluan egindako aldaketa eta gero, eskumen-forua jada ez da bakarra eta ez da soilik eroslearen edo akzio-hartzailearen egoitzari buruzkoa. Orain, hark aukeratuta, erakunde demandatuaren egoitza ere sartzen da, artikuluen idazkera berrian lurralde-eskumenari buruzko foru orokorrak arautzen dituzten PZLren 50. eta 51. artikulua aipatzen baitira.

PZLren 52.2. artikuluan jasotako foruaren helburua da –eta irizpide teleologiko hori zalantza hermeneutikoak argitzeko erabili behar da– eragozteko masako kontratazioan diharduten enpresek edo, kontratazioarako erabiltzen dituzten bide edo baliabideekin,

hasieran eskaintzak onartzen dituenaren baino egoera hobean dauden enpresek prozesuan pribilegioak izatea.

Gainera, errealitate sozialak erakusten du telefono bidezko zerbitzuen edo zerbitzu telematikoen praktika orokortu bat, non kontsumitzailea zehatz lokalizatuta baitago, baina kontratatzen duen enpresaren edo haren izenean diharduten enplegatuen kokalekua zehaztea oso zaila baita. Testuinguru horretan, beste irizpide bat aplikatzen bada, murriztu egin daiteke demanda jarri duen kontsumitzailearen benetako babes judiziala (AGA, 2013ko maiatzaren 21ekoa, 63/2013 errek.).

PZLren 52.2 artikulua ez du bereizten norbanakoak diren ala ez. Ez du zehazten zein den aplikazio-eremu subjektiboa, hau da, kontsumitzailea edo enpresaburua, eta ez ditu kanpoan uzten kontsumitzaile ez diren onartzaileak (AGren 2019ko uztailaren 9ko – 71/2019 errek.– eta 2019ko irailaren 24ko –182/2019 errek.– autoak).

Foru hau aurretik Internet bidez eskaintza publikoa izan duten norbanakoen arteko salerosketa-kontratuei ere aplikatu ahal zaie. Ildo horretan, AGren 2018ko irailaren 17ko Autoak (48/2018 errek.) deklaritzen du argazki-makina erosi aurretik eskaintza publikoa egin zela Internet bidez eta egikaritutako akzioari Prozedura Zibilaren Legearen 52.2 artikuluko aginduzko lurralde-forua aplikatu behar zaiola. Foru horrek eskaintza onartu zuenaren egoitzari dagozkion epaitegiei ematen die lurralde-eskumena. Halaber, AGren 2019ko abenduaren 3ko Autoak (55/2019 errek.) ebazten du, erloju bat Ebay bidez erosi zen kasu batean, aurretiaz eskaintza publiko bat izan zenez Internet bidez, PZLren 52.2 artikuluko aginduzko lurralde-forua aplikatu behar dela. Foru horrek eskaintza onartu zuenaren egoitzari dagozkion epaitegiei ematen die lurralde-eskumena. Ildo beretik jotzen du AGren 2020ko azaroaren 24ko Autoak (109/2020 errek.), Wallapop atariaren bidez egindako norbanakoen arteko salmenta batean.

AGren 2019ko irailaren 24ko Autoak (182/2019 errek.) foru hau aplikatzen du Internet bidez norbanakoen artean egindako salerosketa-kontratu bat suntsiarazteko akzio batean. Kontratu horren bidez, akatsak zituen bisore bat saldu zen; pieza bat falta zitzaion eta erosleak ordaindutako prezioa itzultzeko eskatzen zuen. Produktua erosi aurretik, eskaintza publikoa egin zen Internet bidez (zehazki, Facebook bidez), eta egikaritutako akzioari PZLren 52.2 artikuluko aginduzko lurralde-forua aplikatu behar zaio. Foru

horrek eskaintza onartu zuenaren egoitzari dagozkion epaitegiei ematen die lurralde-eskumena.

AGren 2019ko irailaren 24ko Autoak (144/2019 errek.) lurralde-eskumenaren gatazka negatibo bat aztertzen du, hitzezko epaiketaren demanda bati dagokionez. Demandaren xedea da kalte eta galeren ordaina eskatzeko akzio bat, Internet bidez enpresa batekin itundutako zerbitzuak emateko kontratu bat –bidaia konbinatu bat– ez betetzeagatik. Bidaia konbinatua Internet bidez jasotako eskaintza baten ondoren itundu zenez, PZLren 52.2 artikuluan ezarritako eskumen-erregela aplikatu behar da, hau da, demandatzaileek egoitza duten herria, zeina demanda aurkezteko aukeratu baitzuten. AGk deklaritzen du gauza bera ondorioztatuko litzatekeela PZLren 52.3 artikuluan ezarritako kontsumitzailearen forua aplikatuta.

Banku baten akzioak harpidetzearen inguruko akzio bat egikaritzeko sustatutako epaiketa arrunt bati dagokionez, PZLren 52.2 artikuluan ezarritako aginduzko eskumen-forua aplikatu behar da, hau da, aldez aurretik eskaintza publikoa izan duten ondasun higigarrii buruzko kontratuei dagokiena. Hori dela eta, PZLren oraingo 52.2 artikuluan ezarritako eskumen-foruen aukera zabala aplikatuta, Kapital Sozietatei buruzko Legearen 10, artikulua ere kontuan hartuta, harpidetza egin dutenek aukera dute erakunde horren aurrakako demanda beren egoitzako auzitegian aurkezteko edo akzioen harpidetza publikoa egin zen lekuko auzitegietan aurkezteko –erosketa beren egoitzari ez dagokion barruti judizial batean egin bazen– edo banku-erakundearen egoitzako auzitegietan aurkezteko (AGA, 2019ko uztailaren 16koa, 112/2019 errek.).

6.18 Kontsumitzaileen edo erabiltzaileen akzio indibidualen hondar-forua

6.18.1 Ideia orokorrak

Eskumena izango du, kontsumitzaileak edo erabiltzaileak aukeratuta, haren egoitzako auzitegiak edo PZLren 50. eta 51. artikuluekin bat dagokion auzitegiak (52.3 art.).

Kontuan hartu behar da PZLren 54.2 artikulua, zeinak hau xedatzen baitu: *«Atxikimendu-kontratuetan, alderdietako batek ezarritako baldintza orokorreko kontratuetan edo kontsumitzaile nahiz erabiltzaileekin egindakoetan, ez da baliozkoa izango esanbidez*

auzitegien eskumendean jartzea».

AGk interpretatzeko erabili izan duen jarraibide orokorra izan da kontsumitzaileek edo erabiltzaileek sustatutako akzioetan kontsumitzailearen egoitzako epaitegiari dagokion aginduzko forua lehenetsi behar dela, uste baitu foru hori dela onuragarriena kontsumitzailearentzat, Europako Kontseiluaren 1993ko apirilaren 5eko 93/13/EEE Zuzentarauarekin bat (ikusi AGA, 2019ko urtarrilaren 22koa, 221/2018 errek.).

2/2018 Zirkularrak (*Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen babes juridikoaren arloko jarraibide berriei buruzkoa*) bere 3.1 epigrafean aztertzen du kontsumitzailearen foru berezia, eta haren edukia hartu behar da aintzat orain.

Hala ere, jarraibide berrienak sartu behar dira. Hala, 52.3 artikuluko kontsumitzailearen foru aplikatu zaie kasu hauei: kontsumitzaileen kontratuen deuseztasunari (AGA, 2020ko otsailaren 4koa, 199/2019 errek.), sakelako telefono akastun baten salmentaren ondoriozko erreklamazioari (AGA, 2020ko martxoaren 3koa, 21/2020 errek.), mailegu-hartzaileak (pertsona fisikoa) mailegu-emailearen –merkataritzako entitatea– aurka jarritako erreklamazioari (AGA, 2019ko abenduaren 10ekoa, 257/2019 errek.), bigarren eskuko ibilgailu baten erosleak enpresa baten aurka jarritako erreklamazioari (AGA, 2019ko ekainaren 25ekoa, 106/2019 errek.), ibilgailu baten errentamendu-kontratua dela-eta jarritako fidantza erreklamatzeko diruzko kondena eskatzeko akzioari (AGA, 2019ko apirilaren 2koa, 242/2018 errek.), odontologiako tratamendu baten kontratuaren ondorioz kontsumitzaileak sustatutako diruzko kondena eskatzeko akzio baten gaineko hitzezko epaiketaren demanda bati (AGA, 2019ko abenduaren 3koa, 195/2019 errek.). Halaber, norbanako batek eta enpresa batek ondasun higigarriak txandaka aprobetxatzeko kontratu bat deuseztatzeko eta, ondorioz, suntsitzeko akzio bat egikaritzeko sustatutako epaiketa arruntaren demanda bati aplikatu zaio (AGren 2020ko urtarrilaren 28ko –294/2019 errek.– eta 2019ko otsailaren 5eko –216/2018 errek.– autoak). Automobil bat konpondu ondoren ezkutuko akatsak zeudenez, diru-kopuru bat erreklamatzeko egikaritutako akzio bati ere aplikatu zaio (AGA, 2019ko abenduaren 3koa, 103/2019 errek.), baita, ontzi baten salerosketa-kontratu baten ondorioz, diru-kopuru bat erreklamatzeko akzioa egikaritzeko epaiketa arruntaren demanda bati ere (AGA, 2019ko maiatzaren 7koa, 64/2019 errek.).

Kontsumitzaileen forua aplikatu zaie ere telefonia mugikorreko zerbitzuak emateko

kontratu baten inguruko erreklamazioei –kontratuaren aurreko eskaintza publikoaren faktorea zalantzazkoa izan badaiteke ere– (AGA, 2013ko irailaren 17koa, 124/2013 errek.) eta irakaskuntzako zerbitzuak emateko kontratu bat ez betetzearen ondorioz diru-kopuru bat erreklamatzeko akzio bati (AGA, 2019ko urriaren 8koa, 111/2019 errek.).

Era berean, hauei aplikatu zaie: demandatuak Internet bidez kontratatuko bidaian itundutako baldintzak ez betetzeagatik aurkeztutako erreklamazioa xedetzat duen hitzezko epaiketa bati (AGA, 2019ko abenduaren 17koa, 279/2019 errek.), argazki-erreportaje baten akatsen ondoriozko hitzezko epaiketaren demanda bati (AGA, 2019ko maiatzaren 7koa, 21/2019 errek.) eta, kontratatuko bidaia ezinbestean bertan behera uzteagatik, bidaia-agentziaren eta aseguru-etxearen aurka jarritako hitzezko epaiketaren demanda bati (AGA, 2019ko ekainaren 11koa, 126/2019 errek.).

Azken ebazpen horretan nabaria da AGk foru horren inguruan egiten duen exegesia, kontsumitzailea babesteko, nahitaez: demanda Madrilen aurkeztu zen, baina epaitegi horrek ez zuen lurralde-eskumenik demandatzaileak Fuenlabradan zuelako egoitza. Madril Palmaren alde inhibitu zen, han zuelako egoitza demandatuak. AGren iritziz, «Madril bidegabe inhibitu zen Palmako epaitegien alde [...] kontsumitzailearen borondatea inoiz ez zelako izan demandatuaren egoitza aukeratzea PZLren 52.3 artikuluan 51.1 artikuluari dagokionez xedatutakoarekin bat. Bere borondatea zen bere egoitzatik hurbilen zegoena aukeratzea. Ondorioz, jarduketak Madrilgo epaitegiari itzuli behar zaizkio, hala badagokio Fuenlabradako epaitegien alde inhibitu dadin, hori baita zuzena».

Kontsumitzaileen elkarte baten egoitzaren forua aplikatzen da, bere bazkideetako baten alde diharduenean (AGA, 2017ko azaroaren 8koa, 117/2017 errek.).

AGren 2020ko irailaren 15eko Autoak (126/2020 errek.) kontsumitzailearen egoitzaren forua aplikatzen dio kasu bati zeinean bideratzen baita hitzezko epaiketaren demanda bat apustuen enpresa baten kontra, 1.400 euro erreklamatzeko, demandatuaren ardurapeko apustu bat ez ordaintzeagatik. Demandatuak kontsumitzaileentzako zerbitzu bat ematen du, eta kontsumitzaileak futbol-partiden emaitzak asmatzeko jokatzen du. Dena bide elektronikoen bidez.

Bestalde, ez zaio aplikatzen kontsumitzaileen forua epaiketa arruntaren demanda bati, zeinean egikaritzen baita diru-kopuru bat erreklamatzeko akzio bat, erantzukizun zibilaren ondorioz, demandatzaileak, demandatuaren supermerkatu batean erori ondoren, izandako lesioak direla eta (AGA, 2019ko maiatzaren 28koa, 1012019).

Kasu berezi bat da diruzko kondena bat eskatzeko akzio bat sustatzen denean demandatutako telefono-konpainiari oker ordaindutako kopuru baten ondorioz, eta konpainiak dirua itzultzeari uko egiten dionean. Konpainia bati egin nahi zitzaion ordainketa, baina, okertuta, beste bati egin zitzaion. AGren 2019ko martxoaren 12ko Autoak (269/2018 erre.) ebazten du ez aplikatzea kontsumitzaileen forua: AGren ustez, «ez da kontsumitzaile edo erabiltzaile baten erreklamazioa, demandatzaileak berak baieztatu baitu ez dela [...] enpresaren bezeroa eta ez diola ezer zor. Dioenez, diru-sarrera bat egin du enpresa horren alde, okertuta, norbanako bati egin ahal zion bezala. Hori dela eta, PZLren 51. artikulua pertsona juridikoentzat ezarritako forua aplikatu behar da». AGren 2019ko otsailaren 12ko Autoak (261/2018 erre.) kontrakoa aukeraren alde egiten du: kontsumitzaileen forua aplikatzen du eta eskuduntzat jotzen du demandatzaileen egoitzako epaitegia. Beste aukerarik finkatzen ez den bitartean, fiskalek azken interpretazio hau aplikatuko dute: ordainketa bat egin da telefonia-zerbitzuak hornitzeko kontratu bat dela eta; kontratu horrek kontsumo-harreman bat osatzen du; ordainketa ez zaio egin beste norbanako bati –kasu horretan argi legoke ezin direla aplikatu kontsumitzaileentzat ezarritako foru bereziak–, telefonia-zerbitzuak ematen dituen beste konpainia bati baizik. Erreklamazioaren zenbatekoa oso txikia da eta demandatuaren egoitza demandatzaileen egoitzatik oso urrun dago geografikoki. Horrek esan nahi du, nahitaez aplikatuz gero demanda demandatuaren egoitzan jartzeko arau orokorra, ia ezinezkoa litzatekeela norbanako batek telefonia-zerbitzuak ematen dituen konpainia baten aurka kontsumo-kontratu batekin lotutako ordainketa batzuk erreklamatzeko. Aurretiaz ez dago kontratu-harremanik demandatzaileen eta demandatuaren artean, baina, oker egindako ordainketaren ondorioz, bidegabeko kobrantzaren kuasi kontratu bat dago, zeinak, KZren 1895 artikularekin bat, itzultzeko betebeharra sortzen baitu, eta, telefonia-zerbitzuak emateko kontratu batek eragindako zorra ordaindu nahi zuenaren eta halako zerbitzuak ematen dituen enpresa baten arteko lotura ezartzen duenez, eskumenari dagokionez, PZLren 52.3 artikuluko arau babesleak aplikatu behar dira, analogiaz.

Laburbilduz, kontsumitzailea babesteko arauak aplikatzen ez badira, ezinbestean urratuko

da demandatzailearen benetako babes judizialerako eskubidea eta, beraz, zentzu hertsian harreman-kontsumo bat ez bada ere, PZLren 52.3 artikulua analogiaz aplikatzea justifikatuko lukeen *eadem ratio decidendi* delakoa ematen da.

6.18.2 Kontsumitzaileek merkataritza-enpresei egindako kreditu-lagapenak

Kontsumitzaile batek merkataritzako konpainia bati egindako kreditu baten lagapenak direla eta, AGk hau deklaratu du: «kasu honetan ez dago egoera berezirik PZLren 52.2 artikulua aplikatzeko, erakunde demandatzailea, irabazi-asmorik gabeko merkataritzako konpainia bat denez, ez delako legez kontsumitzailea, KEDLOTBen 3. artikuluekin bat. Kontsumitzailearen izaera ezin da transmititu kreditu-eskubidearen eranskin baten gisa, kontsumitzailea baita horretarako legez ezarritako baldintzak betetzen dituen, eta ez badira betetzen ez dago izaera hori. Bere negozio-eremuan diharduen merkataritzako sozietate bat ezin da kontsumitzaile izan, eta horretan ez du eragiten kreditu-titulua eskuratzeko moduak» (AGren 2019ko otsailaren 5eko –264/2018 errek.– eta 2018ko uztailaren 10eko –130/2018 errek.– autoak).

6.18.3 Aireko garraioa

Kontsumitzaileen forua aplikatu ahal da aireko garraioaren zerbitzua txarto emateagatik aurkeztutako demandetan. Kontsumitzaileak aukera du demanda bere egoitzako auzitegietan, demandatuaren egoitzako auzitegietan edo abioia irten edo heldu den lekuetako auzitegietan aurkezteko. Azken kasuan, demandatuak bulego edo establezimendu egonkorra eta bezeroentzako irisgarria badu leku horietan.

Abioia irteteko eta heltzeko lekuak aireko garraiorako kontratu baten xede diren zerbitzuak emateko leku nagusizat jo behar dira (AGA, 2020ko otsailaren 18koa, 274/2019 errek.).

Ilido beretik, AGren 2018ko irailaren 25eko Autoak (105/2018 errek.) hau deklaritzen du: «aireko garraiorako kontratu bat eta otsailaren 11ko 261/2004 (EE) Erregelamendua ez betetzeagatik aurkeztutako konpentsazio bat eskatzeko demandetan, demandatzaileari aitortzen zaio abioiaren abiatze-tokiko edo iritsiera-tokiko foruaren artean hautatzeko aukera, aukerako foru horiek aireko garraiorako kontratu baten xede diren zerbitzuak

emateko leku nagusitzat jo behar baitira». Ildo beretik jotzen dute AGren auto hauek: 2019ko martxoaren 19koak (43/2019 erre.), 2018ko abenduaren 11koak (208/2018 erre.), 2017ko uztailaren 12koak (104/2017 erre.) eta 2017ko azaroaren 8koak (162/2017 erre.).

PZLren 51.1 artikulua onorioetarako, hegazkin-konpainia batek aireportu batean dituen bulegoak jendaurrean zabalik dagoen bulegotzat jotzeari dagokionez, AGk hau deklaratzeko du: «PZLk ez badu definitzen ere zer den jendaurrean zabalik dagoen establezimendu bat, halakotzat jo behar da merkataritzako enpresa edo jarduera baten jarduna kanpora agertzen den lekua (Merkataritzako Kodearen 3. eta 85. artikulua) [...] bezeroentzat eskuragarri dagoen bulego edo establezimendu bat, non aireko garraiorako kontratuaren oinarritzako harremanak (bidaia-txartelen salerosketa, halakoak ezereztu edo aldatzeko ekintzak, erreklamazioen aurkezpena) garatu ahal diren, jendaurrean zabalik dagoen establezimendu bat da PZLren 51.1. artikulua onorioetarako». (AGren 2019ko urriaren 22ko –127/2019 erre.– eta 2018ko irailaren 25eko –105/2018 erre.– autoak).

Kontuan hartu behar da kontsumitzaileen forua ez dela aplikatzeko garraioaren erabiltzaileak bere akzioak halako erreklamazioak aurkezteaz arduratzen diren erakundeei lagatzen badizkie.

Ildo horretan, AGren 2015eko martxoaren 4ko Autoa (2/2015 erre.) aipa daiteke: «ez dira betetzen PZLren 52.2 artikuluan ezarritako foru berezia –alboratu egiten baitu pertsona juridikoentzako foru orokorra, demandatuaren egoitza, PZLren 51. artikuluan ezarria– aplikatzeko behar diren betekizunak, demanda merkataritzako erakunde batek sustatu baitu, eta ez banakako kontsumitzaile batek, nahiz eta erakundeak kaltetuari legokiokeen lekua bete prozesuan. Ez dago egiaztatuta bidaia-txartela telematikoki eskuratu zenik».

Ildo beretik, AGren 2018ko maiatzaren 30eko Autoak (47/2018 erre.) deklaratzeko du demandatzaileak, irabazi-asmoak dituen merkataritzako konpainia bat denez, ez dela legez kontsumitzailea, KEDLOTBen 3. artikulua onorioetarako. Kontsumitzailearen izaera ezin da transmititu kreditu-eskubidearen eranskin baten gisa, kontsumitzailea baita horretarako legez ezarritako baldintzak betetzen dituen, eta ez badira betetzen ez dago

izaera hori. Bere negozio-eremuan diharduen merkataritzako sozietate bat ezin da kontsumitzaile izan, eta horretan ez du eragiten kreditu-titulua eskuratzeko moduak.

6.18.4 Bezeroek hotel-establezimenduen kontra jarritako demandak

AGk kontsumitzailearen forua aplikatzen dio ostatatze-kontratua dela-eta bezeroak sustatutako akzioari (AGA, 2019ko urriaren 15ekoa, 198/2019 errek.).

Halaber, foru hori aplikatzen zaio hotel-establezimendu batean izandako elikadura-intoxikazioak eragindako kalteengatik kontratu-erantzukizuna eskatzeko akzio bati (AGA, 2019ko irailaren 24koa, 150/2019 errek.).

Hotel-establezimendu bateko igerilekuan izandako erorketa batek eragindako kalteen ondorioz kontratuz kanpoko erantzukizuna eskatzeko akzio bati dagokion hitzezko epaiketaren demanda bati ere aplikatzen zaio, nahiz eta akzioa 1902. eta 1903. artikuluetan oinarritu (AGA, 2019ko urriaren 15ekoa, 198/2019 errek.).

6.19 Kontuen zina

PZLren 34.1 artikulua hau ezartzen du: *«Prokuradoreak ahalorde-emaile zordunari eskatu behar badizkio azken horrek auziaren ondorioz zor dizkion eskubide eta gastuen aurrerakinak, orduan kontu xehea eta egiaztatua aurkeztuko du auziaren gaineko ardura duen auzitegian. Hor adieraziko du eratorri eta erreklamatu dituen kopuruak zor zaizkiola eta ordaindugabeak direla. Prokuradoreen eskubidea euren jaraunsleek ere izango dute, prokuradoreek jaraunsleei izaera horretako kredituak utzi dizkietenean. Ez da nahitaezkoa izango abokatuak edo prokuradoreak esku hartzea».*

Prokuradorearen kontuen zinaz arduratzea dagokio, PZLren 34.1 artikulua aginduz ezarrita –berez, eskumen funtzionalari buruzko arau bat da–, prokuradore erreklamatzailaren eskubideak sortu diren gai nagusiaz arduratzen den organo judizialari (AGren 2017ko urriaren 11ko –147/2017 errek.– eta 2017ko azaroaren 29ko –171/2017 errek.– autoak).

Eskumena modu berean aplikatuko zaie abokatuaren zerbitzu-sariei (PZL, 35. art.).

Kontuen zina prozedura berezia da, baina ez interes publikoagatik –PZLren IV. liburuko prozesu bereziak diren bezala–, helburutzat garatutako lanbide-jarduketak eragindako kredituak berehala eragingarri egitea baino ez duelako baizik. Horrenbestez, posible bada ere alegazioen fase sumario bat izatea, helburua da azkar lortzea ordainketa edo betearazteko agindua, PZLren 34. artikuluekin bat, aurretik juzgatu gabe prokuradorearen eta bere ahalorde-emailearen artean haien kontratu-harremanaren inguruan sortu ahal den eztabaidaren behin betiko erabakia. Kontuaren zina-prozedurari hasiera ematen dion eskaeran ez da egikaritzen, berez, deklarazioko akzio bat edo kondena eskatzekoa, ezta kautelazko edo betearazpeneko akzio bat ere –nahiz eta gero prozeduraren amaieran zor den kopurua finkatzen duen ebazpena eta betearazteko agindua emateko aukera egon–, aurreko prozesu batean sortutako bezeroaren ordezkaritza-gastuak ordaintzeko eskaera bat baizik. Eskaera horrek, organo judizialaren iragazkiaren mende jartzen denez, prokuradoreak modu pribatuan egindako ordaintzeko errekerimenduak izango ez lukeen ondorioa du: betearazpen-titulu bat lortzea. Kontuaren zinaren konfigurazio horren ondorioz –funtsean epaiketa monitorio baten antzekoa da, baina aurreko prozesu bati lotuta–, PZLk eskumena ematen dio kontuaren zina eragin duen prokuradorearen jarduketa garatu den prozesua kokatuta dagoen organo judizialari –PZLren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera–, organo judizial hori baita egoera onenean dagoena erreklamatutako kontuaren gainean egon daitezkeen gorabeherak ebazteko, bereziki PZLren 34.2.II artikuluan ezarritakoaren arabera aurka egiteko fasean sortu ahal direnak ebazteko (AGA, 2018ko martxoaren 14koa, 13/2018 errek.).

Lurralde-eskumena ez dagokio ahalorde-emailearen egoitzako epaitegi edo auzitegiari (AGA, 2005eko martxoaren 7koa, 13/2005 errek.).

Ahalorde-emailea konkurtsoan dagoela deklaritzen bada, kontuaren zinaren prozedurarako eskumena izango du kontuaren zina eragin duen prokuradorearen jarduketa garatu den prozesua kokatuta dagoen organo judizialak, organo judizial hori baita egoera onenean dagoena erreklamatutako kontuaren gainean egon daitezkeen gorabeherak ebazteko, bereziki PZLren 34.2.II artikuluan ezarritakoaren arabera aurka egiteko fasean sortu ahal direnak ebazteko. Beste kontu bat da, kopurua finkatu ondoren, geroko betearazpen-prozesua ahalorde-emailearen konkurtso-egoeraren eraginpean egotea, Konkurtso Legearen 8.3 artikulua konkurtsoko epaileari jurisdikzio eskusibo

eta baztertzaila ematen baitio konkurtsopekoaren ondare-ondasunei eta -eskubideei dagokienez edozein betearazpen bideratzeko, agindua eman duen organoa edozein dela ere (AGA, 2014ko uztailaren 1ekoa, 43/2014 errek.).

6.20 Doako justizia

Doako Laguntza Juridikoaren urtarilaren 10eko 1/1996 Legearen 20.1 artikulua xedatzen duenez, *eskubide baten edo interes legitimo baten titularrek doako laguntza juridikoa izateko eskubidea behin betiko aitortzen, ezeztatzen edo ukatzen duten ebazpenak aurkara ditzakete. [...] idatziz aurkeztu beharko da [...] Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeko idazkariaren aurrean. Idazkariak aurkaratze-idatzia, aurkaratutako ebazpenari dagokion espedientearekin eta ebazpenaren ziurtagiriarekin batera, epaitegi edo auzitegi eskudunari edo epaile dekanuari bidaliko dio, bana dezan, prozedura oraindik hasi ez bada. Ulertu behar da aginduzko foru bat dela.*

Prozedura oraindik hasi gabe dagoenean, lehenik eta behin, zehaztu behar da nori dagokion horretaz arduratzea, egikaritu nahi den akzioaren izaera aintzat hartuta (ikusi AGA, 2018ko azaroaren 13koa, 198/2018 errek.).

Prozedura hasita dagoenean, eskumena prozedura hori izapidetzen ari den epaitegiak izango du eskumena. Ildo horretan, AGren 2020ko abenduaren 1eko Autoak (190/2020 errek.) hau deklaritzen du: «aztertzen ari den kasuaren xedea zenez doako justiziaren onura jasotzea [...] zenbakiko aurretiazko eginbideetarako, eskumena prozedura horretaz arduratu zen Algeciraseko emakumeen aurkako indarkeriaren arloko 1 zenbakiko epaitegiari dagokio».

6.21 Exequaturra

Uztailaren 30eko 29/2015 Legearen (Arlo Zibileko Nazioarteko Lankidetzaren Juridikoarena) 52.1 artikulua xedatzen duenez, «aitortzea edo betearaztea zein alderdiren aurka eskatzen den, alderdi horrek egoitza duen tokiko lehen auzialdiko epaitegiei edota atzerriko ebazpen judizialaren ondoreak dagozkion pertsonaren egoitzako lehen auzialdiko epaitegiei dagokie exequatur-eskaerez arduratzeko eskumena. Subsidiarioki, betearazteko tokiaren edo ebazpenak ondoreak izango dituen tokiaren

arabera zehaztuko da lurralde-eskumena, eta, azken kasuan, exequatur-demanda jartzen den lehen auzialdiko epaitegiak izango du eskumena».

4. apartatuak xedatzen du *Espainiako organo jurisdikzionalak prozesu horietaz arduratzeko eskumen objektiboa ofizioz kontrolatuko duela.*

Arauk foru nagusi bat eta bi foru subsidiario jasotzen ditu (AGren 2019ko ekainaren 25eko –51/2019 erre. – eta 2018ko uztailaren 17ko –121/2018 erre. – autoak).

Dibortzio baten epai bati dagokionez, AGk hau deklaritzen du: «areto honek, 1881eko PZLren 955. artikularen babesean, jada eman zuen ebazpena dibortzioari buruzko atzerriko epaiak aitortzeko eskumenari buruz [...] demandatzailearen egoitzako epaitegiaren eskumena mantentzearen alde, dibortzio-epaia aitortzeko eskaeraren ondorioak hari baitagozkio [...]. PZLren 955. artikuluko lurralde-eskumenari buruzko forua aukerakoa da auzi-jartzailearentzat, eta, beraz, dibortzio-epaia aitortzeko eskaera beste ezkontidearen egoitzako epaitegian aurkez dezake, haren aurrean eskatzen baitu aitorpena, edo, bestela, eskaeraren ondorioak dagozkion pertsonaren egoitzako epaitegian aurkez dezake. Argentinako auzitegi batek auzi-jartzailearen dibortzioa onartzeko emandako epai bat aitortzeko eskatu denez, ebazpen judizial horren ondorioak lehenago ezkontza-lotura zuten bi alderdietako edozeinengan izan behar ditu ondorioak. Beraz, demanda auzi-jartzailearen egoitzako epaitegietan aurkeztu denez aipatutako artikuluek ezarritako aukerako forua erabilita, aitortzeko eskaeraz arduratzeko eskumena du exequatur-eskaera modu egokian planteatu zen epaitegiak [...]. Irizpide hori ez du aldatzen uztailaren 30eko 29/2015 Legearen 52.1 artikuluan ezarritako erregulazio berriak, zeinak aukerako foru nagusi gisa ezartzen baitu atzerriko ebazpen judizialaren ondoreak dagozkion pertsonaren egoitza. Horrenbestez, lehenago ezkontza-lotura zuten bi alderdietako edozeinengan ondorioak dituen dibortzio-epai bat denez, demandatzaileak Espainian duen egoitzako epaitegiari dagokio dibortzioa deklaratu duen epaia aitortzeko eskaeraz arduratzeko eskumena. Aretoaren dotrinak mantentzen du dibortzio-epaiak ondorioak dituela ezkontide izandako bi pertsonengan, eta, ondorioz, demanda aurkezteko unean eskatzaileak Espainian duen egoitzan edo bizilekuan aurkeztu ahal dela exequatur-demanda». Ez da beharrezkoa 29/2015 Legearen 52.1 artikuluko horrek ezarritako foru subsidiarioetan sartzea. Artikulu horretan beste aukera bat ezartzen da,

exequatur-demanda jartzen den lehen auzialdiko epaitegiak izango duela eskumena, hain zuzen (AGren 2018ko uztailaren 17ko –121/2018 erre. – eta 2017ko martxoaren 1eko –12/2017 erre. – autoak).

Beraz, kasu hauetan, dibortzio-epaien exequatur-eskaera demandatzailearen egoitzan zein demandatuaren egoitzan aurkez daiteke (ikusi AGA, 2016ko maiatzaren 25ekoa, 408/2016 erre.).

Demandatuak eta demandatzaileak Espainian egoitzarik ez duten kasu batean, zeinean dibortzio-epai bat aitortzeko eskatzen den, eskuduntzat jo dira Madrilgo epaitegiak, uzia baita epaia Erregistro Zibil Zentralean inskribatzea (AGren 2020ko urtarrilaren 21eko –255/2019 erre. –, 2019ko apirilaren 2ko –35/2019 erre. – eta 2018ko uztailaren 17ko –121/2018 erre. – autoak).

7. Prozedura-arazoak

7.1 Prozesuaren barruan eskumena ofizioz planteatzeko unea

Printzipioz, lurralde-eskumena soilik aztertu ahal da demanda aurkeztu eta berehala (AGA, 2018ko martxoaren 20koa, 198/2017 erre.).

Zehaztasun bat egin behar da: epaiketa arruntaren eta hitzezko epaiketaren deklarazio-fasean, lurralde-eskumenaren ofiziozko kontrolak muga du, hurrenez hurren, aurreko entzunaldiaren egintzan eta ikustaldiaren egintzan (AGren 2018ko urtarrilaren 17ko –201/2017 erre. – 2018ko urtarrilaren 24ko –190/2017 erre. – eta 2018ko otsailaren 7ko –207/2017 erre. – autoak).

Dotrina hau zehaztu egin da hitzezko epaiketari dagokionez: «42/2015 Legea onartu eta gero, legez jaso den ikustaldia ez egiteko aukera aintzat hartuta, zehaztu egin behar da dotrina hau, eta hitzezko epaiketan, alderdiek azkenean ikustaldirik ez egitea aukeratzen badute, lurralde-eskumena ofizioz aztertzeko denbora-muga izango da, PZLren 438. artikulua oraingo edukiaren arabera, ikustaldia egin behar den edo epaia eman behar den erabaki dezan, jarduketak epailearen eskuetara pasatzen diren unea, ; uste badu ez duela lurralde-eskumenik, lurralde-eskumenik ezari buruzko autoa eman beharko du,

alderdiak entzun ondoren» (AGren osoko bilkuraren 2018ko martxoaren 20ko Autoa, 198/2017 erre.).

Lurralde-eskumenaren arazo negatibo bat planteatzeko, eman behar den ebazpen judiziala autoa da, eta ez probidentzia (AGA, 2019ko urriaren 22koa, 183/2019 erre.).

7.2 Berezitasunak foru bat baino gehiago dagoenean

PZLk kasu askotan ezartzen du aginduzko foru bat baina aukerakoa dena, demandatzaileari zenbait aukeren artean hautatzeko ahalmena ematen diona.

PZLren 58. artikulua ezartzen du, lurralde-eskumena ofizioz zehazteari dagokionez, *aukerazko foruak aplikatzeko modukoak badira, ondore horietarako auzitegiak demandatzaileari agindeia zuzenduko diola eta demandatzaileak adierazitakoa beteko duela.*

Demanda aurkeztu zaion epaitegiak eskumenik ez badu, baina aukerako foru bat baino gehiago badago, prozesua behar bezala izapidetzeko bidea da –beste epaitegi baten alde inhibitzeko erabakia hartu baino lehen– demandatzaileari eskatzea adierazteko aukerako foruetatik zein lehenesten duen. Izapide hori egiten ez bada, demandatzaileari kendu egiten zaio gure ordenamendu prozesalak berariaz aitortzen dion ahalmen bat.

Horren inguruan ebatzi dute AGren auto hauek: 2021eko otsailaren 16koak (185/2020 erre.), 2020ko urtarrilaren 21ekoak (194/2019 erre.), 2019ko maiatzaren 14koak (77/2019 erre.) eta 2014ko uztailaren 9koak (80/2014 erre.).

Kasu horietan, beraz, txostena egiteko helarazten zaizkienean, fiskalek kontrolatuko dute epaitegiak demandatzaileari eskatzen diola adierazteko aukerako foruetatik zein lehenesten duen, inhibitzeko erabakia hartu aurretik. Errekerimendu hori egin eta gero, dagokion ebazpena emango du.

7.3 Egoitza-aldaketa: *perpetuatio iurisdictionis*

Ohikoa da eskumen-arazoak planteatzea, aplikatu beharreko aginduzko forua demandatuaren egoitzarena izanda (adibidez, hitzezko epaiketetan), epatzea egiten denean beste barruti judizial batean duen beste egoitza baten berri izatearen ondorioz.

Gaia arautzen duen printzipio nagusia hau da: PZLren 410. artikulua esaten du auzibitartea, beraren prozesu-ondore guztiekin, demanda onartzen denetik aurrera gertatzen dela. Prozesua hasi ondoren, alderdien egoitzari dagokionez gertatzen diren aldaketek ez dute aldatzen jurisdikzioa, ezta eskumena ere; auzibitartearen hasieran egiaztatzen denaren arabera zehaztuko dira biak, PZLren 411. artikuluekin bat (ikusi AGren 2016ko urtarrilaren 13ko –168/2015 errek.– eta 2003ko azaroaren 11ko –32/2003 errek.– autoak).

Jurisdikzioaren iraunkortasuna arau orokor gisa ezartzeak (PZL, 411 art.) suposatzen du, aginduzko arauak ezarritako lurralde-eskumena ofizioz kontrolatzeko aukera gorabehera, demandatua demandan adierazitakoaz bestelako egoitza batean egoteak ez duela justifikatzen, berez, hasiera batean bere eskumena deklaratu zuen organoa mugape horretako organoen alde inhibitzea, zeren, hasierako eskaeraz arduratu zen epaitegia ez den beste bat eskudun izateko, beharrezkoa baita egiaztatzea gerora sortutako egitateen ondorioz ezagututako egoitza jada erreala edo benetakoa zela demanda aurkeztu zen unean. Horrenbestez, inguruabar hori egiaztatzen ez bada edo aldaketa geroago gertatu zela frogatzen bada, hasieran eskaeraz arduratu zen epaitegiak bere jurisdikzioari eutsiko dio PZLren 411. artikuluan ezarritakoaren ondorioz, baina epatzea edo zitazioa egoitza berrian egin beharko da, laguntza judizialaren bidez (ikusi AGren 2019ko ekainaren 25eko –99/2019 errek.–, 2019ko otsailaren 26ko –255/2018 errek.– eta 2019ko uztailaren 2ko –62/2019 errek.– autoak).

Gehiago sintetizatuta, esan daiteke, demanda aurkeztu zen epaitegia ez den beste bat eskudun izateko, beharrezkoa dela egiaztatzea ezagutu den egoitza berria jada erreala edo benetakoa zela demanda aurkeztu zenean (AGren 2020ko martxoaren 10eko –233/2019 errek.– eta 2017ko otsailaren 22ko –10/2017 errek.– autoak). Zalentza ebatzen da gaiaz hasieran arduratu zen epaitegiaren eskumenaren alde.

Egoitza berria dokumentuen bidez egiaztatu behar da (AGA, 2016ko azaroaren 16koa, 1037/2016 errek.). Egoitza-aldaketa demanda aurkeztu aurretik gertatu zela frogatutzat

jotzeko, froga nahikoa da Puntu Neutro Judizialak egoitza egiaztatzeko emandako informazioa, demanda aurkeztu aurretik eguneratutakoa (AGA, 2020ko otsailaren 18koa, 284/2019 erre.).

AGren 2020ko urtarrilaren 14ko Autoan (310/2019 erre.) arrazoi hauek ematen dira: «kasu honetan, Bartzelonako egoitza bat jaso zen demandan, eta, gatazkan jarritako bi epaitegiek Puntu Neutro Judizialaren datu-baseetan egindako kontsultan, jasotakoaz gainera, beste bi egoitza agertu ziren, bat Bartzelonan eta beste bat Rondan, baina azken honetan ez da agertzen alta-data. Aldiz, Bartzelonako egoitzetako batean, demandatuaren alta 2016ko abuztuaren 11koa dela agertzen da, helbide-aldaketaren ondorioz [...] kasu honetan ez da egiaztatu Rondako egoitza demandatuaren egoitza erreal eta benetakoa zenik demanda aurkeztu zen unean, eta, beraz, gatazka ebazteko, deklaratu behar da eskumena duela Bartzelonako Lehen Auzialdiko 37 zenbakiko Epaitegiak».

Ildo beretik jotzen du AGren 2020ko otsailaren 18ko Autoak (284/2019 erre.). Honela arrazoitzen du erabakia: «lurralde-eskumenari buruzko gatazka negatibo hau ebazteko, deklaratu behar da eskumena Fuengirolako Lehen Auzialdiko 2 zenbakiko Epaitegiari dagokiola. Ondorio horretara iristeko, aintzat hartu da, Donostiako epaitegiak eskatuta egoitzaren inguruan egindako ikerketarekin bat, jasota dagoela demandatuak Fuengirolan zuela egoitza demanda aurkeztu aurretik, zerga-agentziak egoitza egiaztatzeko aurkeztutako informazioa 2018ko abenduan eguneratu zela agertzen baita; demanda 2019ko otsailean aurkeztu zen. Gainera, datu hau bat dator Oiartzungo laguntzako kidegoko funtzionarioak egindako epatzeko eginbide negatiboarekin, zeinean baieztatzen baita demandatua ez dela egon erroldatuta herri horretan».

Justizia Administrazioako letratuak telefonoz egindako eginbideak ez du egiaztatzen demandatuak emandako egoitza bazuenik demanda aurkeztu zenean (AGA, 2019ko otsailaren 5koa, 181/2018 erre.).

Egoitza-aldaketa demanda aurkeztu aurretik gertatu zela egiaztatzeaz aparte, beste gai bat aztertzen du AGren 2019ko urriaren 22ko Autoak (183/2019 erre.): «ez da egoitza-aldaketa bat; kontua da ez dagoela daturik egiaztatzeko demanda aurkeztu zenean demandatuak zuen egoitza demandan adierazitakoa zenik [...] Hori dela eta, uste dugu gerora aurkitutako egoitza demandatuaren egoitza erreal edo benetakoa dela demanda

aurkezteko unean».

Era berean, demandatzailearen egoitzaren forua aplikatu behar denean, AGren iritziz aintzat hartu behar da demanda aurkeztu zen unean zuen egoitza, eta ezin da kontuan hartu demanda aurkeztu ondoren demandatzaileak izandako egoitza-aldaketa (AGren 2020ko urtarrilaren 21eko –251/2019 erre. – eta 2020ko urtarrilaren 21eko –252/2019 erre. – autoak).

Edonola ere, aginduzko forurik ez badago, epaitegiak ezin du auzitan jarri ofizioz eskumena egoitza-aldaketaren ondorioz, nahiz eta egoitza-aldaketa hori demanda aurkeztu baino lehen gertatu.

7.4 Alderdien entzunaldia

PZLren 60. artikulua bigarren apartatuaren arabera, lurralde-eskumenik ezaren ondorioz, eskumena baliatzeari uzteko erabakia hartu izan bada alderdi guztiak entzun gabe, orduan jarduna zein auzitegiari igorri eta auzitegi horrek adieraz dezake ofizioz bere lurralde-eskumenik eza, lurralde-eskumenik eza aginduzko erregelen bidez zehaztu behar denean.

A contrario, inhibitzeko erabakia Fiskaltza eta alderdi guztiak entzun ondoren edo deklinatoriaren ebazpena eman ondoren hartu bazen, jarduketak hartzen dituen auzitegiak ezin izango du deklaratu ofizioz eskumenik ez duela (ikus AGren 2020ko urriaren 13ko –61/2020 erre. –, 2020ko otsailaren 4ko –325/2019 erre. –, 2020ko otsailaren 4ko –316/2019 erre. – eta 2016ko apirilaren 20ko –10/2016 erre. – autoak), eta eskumena berrikusteko aukera mugatzen duen arau hau aginduzko foruak aplikatzekoak direnean ere aplikatzen da (AGren 2020ko otsailaren 25eko –19/2020 erre. – eta 2016ko azaroaren 3ko –979/2016 erre. – autoak), nahiz eta deklinatoria onartu izan okerreko irizpide batean oinarrituta (AGA, 2016ko irailaren 21ekoa, 912/2016 erre.) edo ukitutako seme-alaba adingabeak dituen familia-prozesu bat izan (AGA, 2016ko otsailaren 10ekoa, 187/2015 erre.).

Ildo horretan, AGren 2020ko urtarrilaren 14ko Autoak (291/2019 erre.) hau deklaritzen

du: «ezin da behar bezala bideratutzat jo lurralde-eskumenari buruzko gatazka negatibo bat, lurralde-eskumenik ezaren ondorioz inhibitzeko erabakia Valentziako epaitegiak hartu baitu ezarritako epearen barruan eta alderdiak guztiak entzun ondoren; beraz, PZLren 60.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, Majadahondako epaitegiak –hari bidali zitzaizkion jarduketak– erabakitakoa bete beharko du, eta ezin da planteatu lurralde-eskumenari buruzko gatazka negatiborik, ezinezkoa baita kasu honetan». Ildo beretik jotzen dute AGren 2021eko otsailaren 9ko (237/2020 errek.) eta 2020ko martxoaren 3ko (2/2020 errek.) autoek.

7.5 Deklinatoria

Gorago azaldu den bezala, ez bada aplikatzekoa aginduzko foru bat ere ez, epaitegiak ezin du kontrolatu ofizioz bere lurralde-eskumena, alderdien erabakia baita.

Kasu horietan, demandatzailea epaitegi baten isilbidez eskumendean jarritakotzat joko da demanda epaitegi horretan aurkezte hutsagatik.

Halakoetan, demandatuak deklinatoria bidez sustatu ahal du auzia, demanda aurkeztu zaion epaitegia eskuduna ez dela uste duelako, bai esanbidez beste auzitegi batzuen eskumendean dagoelako, bai, esanbidez eskumendean jartzerik ez dagoenez, legezko foruek eskumena beste epaitegi batzuei ematea lehenesten dutelako.

Dokumentu honen 2. paragrafoan azaldu den bezala, Fiskaltzat ez du esku hartuko intzidente horretan prozeduran alderdi ez bada. Hala ere, irizpena emango du, alderdi ez izan arren, aginduzko foru bat dagoela argudiatzen bada.

Epaiketa arrunt batean, deklinatoria demandari erantzuteko epeko lehen hamar egunen barruan proposatu behar da. Hitzezko epaiketan, berriz, ikustaldirako zitazioaren osteko lehenengo bost egunen barrua. Deklinatoriak eten egiten du erantzuteko epea edo ikustaldiaren egunerako zenbaketa, ebazpena eman arte.

7.6 Eskumen-gatazka negatiboak ebazteko organo eskuduna

PZLren 60. artikulua hirugarren apartatuarekin bat, goragoko auzitegi erkideari

dagokio eskumena. Hori dela eta, gatazka probintzia bereko organoen artean planteatzen bada, bertako probintzia-auzitegiak ebatzi beharko du (AGren 2020ko otsailaren 4ko –308/2019 errek.–, 2019ko uztailaren 16ko –160/2019 errek.– eta 2019ko ekainaren 25eko –147/2019 errek.– autoak)

Probintzia ezberdinetako baina autonomia-erkidego bereko epaitegien artean sortzen bada, bertako justizia-auzitegiak ebatziko du (AGren 2019ko azaroaren 2ko –223/2019 errek.– eta 2019ko ekainaren 25eko –139/2019 errek.– autoak).

Autonomia-erkidego ezberdinetako epaitegien artean sortzen bada, Auzitegi Goreneko arlo zibileko salak ebatziko du.

7.7 Lurralde-eskumenari buruzko errekurtsoak

PZLren 67. artikulua lehen apartatuarekin bat, ezingo da errekurtsorik jarri lurralde-eskumena ebatzi duten autoen aurka.

Errekurtsoak jartzeko mugek PZLren 58. artikulua lehen apartatuarekin bat emandako autoari eragiten diote, lehen auzialdiko epaileak erabakitzen duenean, Fiskaltza eta pertsonatutako alderdiak entzun ondoren, lurralde-eskumenik duen ala ez, aginduzko foruak aplikatzekoak direnean.

PZLren 67. artikulua bigarren apartatuak lurralde-eskumenik ezari buruzko alegazioak jartzeko aukera ematen du behin betiko epaiaren aurka alegatzeko errekurtsoan, aginduzko arauak aplikatzekoak direnean.

Arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtsoa aginduzkoak diren lurralde-eskumenari buruzko arauen haustean oinarritu ahal izango da (2017ko erabakia, ikusi AGren 216/2009 Epaia, apirilaren 2koa), PZLren 469.1.1 artikuluan ezarritako arrazoia aintzat hartuta.

Ezin du arrazoi hori alegatu eskumenari buruzko arauak haustearen ondorioz aurkeztu ahal diren errekurtso arruntak aurkeztu ez zituen alderdiak (AGren 570/2010 Epaia, irailaren 17koa).

AGk kasazio-errekurtsua eta arau-hauste prozesalaren ondoriozko errekurtsua jartzeko aukera ukatzen du deklinatoriaren prozeduran emandako ebazpenen kasuan (AGA, 2004ko martxoaren 30ekoa, 152/2004 erre.; aurrekari ugari aipatzen dira).

8. Antolaketako barneko arazoak

Fiskaltzak eskumenari buruz ematen dituen irizpenek gutxieneko betekizun batzuk bete behar dituzte. Lehenik eta behin, arrazoitu egin behar dira, urtarrilaren 27ko 1/2005 Instrukzioan (*Fiskaltzaren egintzen formari buruzkoa*) ezarritako estipulazioekin bat. Behar bezala identifikatu behar da txostena egin duen fiskala, urtarrilaren 30eko 1/1987 Instrukzioan (*Fiskaltzaren barne funtzionamenduko araei buruzkoa*) ezarritakoa aintzat hartuta, baita gorago aipatutako 1/2005 Instrukzioan ezarritakoa ere.

Bigarrenik, irizpenetan zehaztu behar da aginduzko forurik aplikatu behar den ala ez. Lehen zalantza hori argitzea funtsezkoa da ebazpen zuzena emateko. Azaldu den bezala, aginduzko forurik aplikatu behar ez bada, irizpenak esan beharko du inhibizioa bidegabea dela.

Hirugarrenik, aginduzko forurik aplikatu behar bada, zein den zehaztu behar da.

Azkenik, espedientea bidali duen epaitegiak eskumenik ez duela uste bada, zehaztu behar da zein epaitegi den eskuduna. Uste bada gaiaz arduratu den epaitegiak eskumenik ez duela, baina aukerako aginduzko foruak badaude, irizpenak esan beharko du –7.2 epigrafearekin bat etorrira–, inhibitzeko erabakia hartu aurretik, errekerimendua egin behar zaiola demandatzaileari adieraz dezan aukerako foruetatik zein lehenesten duen; ebazpena errekerimendu hori egin ondoren hartuko da.

Kausan jada badago fiskal baten irizpen bat eta inhibizioa jaso duen epaitegiak bere lurraldeko fiskaltzari eskatzen badio fiskal horren lehen irizpenaren kontrako txostena egiteko, horren berri eman beharko zaio goragoko organo erkideari, justifikazio-txosten bat bidalita, jarduketa-batasunaren printzipioa bermatzeko. Hala ere, irizpena aurkeztu ahal izango zaio epaitegiari. Ondorio horietarako, goragoko organo erkidea izango da arloko fiskalburua, bi fiskalak arloko fiskaltza berekoak badira; probintziako fiskalburua,

probintzia-fiskaltza berekoak badira, eta fiskal nagusiak, autonomia-erkide bereko probintzia ezberdinetakoak badira. Irizpena eman behar duten fiskaltzak autonomia-erkidego ezberdinetakoak badira, txostena bidali beharko zaio arlo zibileko aretoko fiskal delegatuari.

Prozesuan esku hartu duen beste lurralde-fiskaltzaren aurkako irizpena justifikatzeko txostena arloko edo probintziako fiskalburuaren bitartez bidaliko da.

9. Indarraldiari buruzko klausula

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren aurreko dokumentu batzuk daude non jurisdikzio zibilaren arloko lurralde-eskumenari buruzko alderdiak aztertzen baitira. Hori dela eta, argitu behar da haien indarraldia.

Irailaren 24ko 2/1981 Zirkularra (*Familia-epaitegiek haiek sortu zirenean jada jasota zeuden ezkontzari buruzko prozesu batzuez arduratzeko duten eskumenari buruzkoa*) eman zen zehazteko zein organoren aurrean jarraitu behar ziren izapidetzen uztailaren 7ko 30/1981 Legea eta uztailaren 3ko 1322/1981 Errege Dekretua indarrean sartu zirenean aribidean zeuden prozedurak, ez baitzuten zuzenbide iragankorreko araurik. Indargabetuta dagoela ulertu behar da.

Ekainaren 8ko 2/1984 Zirkularrak (*Uztezko ezgaien barneratzeari –Kode Zibilaren 211. artikulua– buruzkoa*) lurralde-eskumenari dagokionez ezarritako irizpideak dira –ukitutako pertsonaren egoitza, barneratze urgenteetan salbu, kasu horretan eskumena barneratzea gertatu den lekuko epaileak baitu– gaur egun jurisprudentziak kontuan hartzen dituenak, eta zirkular honetan aintzat hartu direnak. Hala ere, 2/1984 Zirkularra ez dago indarrean Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak indargabetu egin baitu 211. artikulua, eta haren erregulazioa PZLren 763. artikulua ordeztu du.

Uztailaren 15eko 6/1997 Kotsultak (*Zigor-prozesu batean ezarritako segurtasuna-*

neurri baten ondorioz establezimendu psikiatriko-penitentziario batean barneratuta dauden kontra bideratutako ezgaitzeko prozesu zibiletan lurralde-eskumena zehazteko irizpideari buruzkoa) hau ondorioztatu zuen: «segurtasuna-neurri baten ondorioz establezimendu psikiatriko-penitentziario batean barneratuta dauden kondenatuei dagokienez Fiskaltzak sustatu behar duen ezgaiketa-demanda zentroa dagoen lekuko lehen auzialdiko epailearen aurrean aurkeztuko da, betiere kasuaren inguruabarrek aukera ematen badute egonaldi erlatiboari buruzko oinarritzko iragarpena egiteko». Irizpide hori erabat indarrean dago, nahiz eta gaitasuna aldatzeko edo laguntza emateko prozesua izendatzeko terminologia zaharkitua egon.

Apirilaren 5eko 1/2001 Zirkularrean (*Fiskaltzak prozesu zibiletan duen esku-hartzean Prozedura Zibilarren Lege berriak duen eraginari buruzkoa*) landu du modu sakonenean Estatuko Fiskaltza Nagusiak lurralde-eskumena. Zirkular horretan ezarritakoa zirkular honetan ezarritakoak ordeztu du.

Uztailaren 30eko 4/2008 Instrukzioak (*Fiskaltzak pertsona desgaituen tutoretzetan izan beharreko kontrol eta zaintzari buruzkoa*) hau ezartzen zuen bosgarren ondorioan: «tutoretzapean dagoen pertsona baten egoitza-aldaketa dela eta, jurisdikzio-organoen arteko eskumen-arazoak planteatzen direnean, jurisprudenzia-dotrina berrienarekin bat, hurbiltasun, efikazia eta eraginkortasuna aintzat hartuta, fiskalek txostena egingo dute eskumena desgaitasuna duen pertsonaren unean uneko egoitza dagoen lekuko epaitegiari ematearen alde». Ondorio hori bete-betean indarrean dagoela ulertu behar da.

Uztailaren 23ko 1/2013 Instrukzioak (*Fiskalak konkurtso prozesuan izan behar duen esku-hartzeari buruzkoa*) ezartzen du arlo zibileko sekzioak planteatu daitezkeen eskumen-arazoez arduratu beharko direla. Xedapen hori bete-betean indarrean dagoela ulertu behar da.

Abenduaren 22ko 9/2015 Zirkularrak (*Borondatezko Jurisdikzioaren Lege berrian Fiskaltzak izan behar duen esku-hartzeari buruzkoa*) borondatezko jurisdikzioko espedienteetako lurralde-eskumenaren arloko xedapen orokorrak ezartzen ditu, baita zenbait espedienteetako (barneratzeak, tutoretzak, emantzipazioa, adingabeak babesteko neurriak hartzea) lurralde-eskumenari buruz ere. Zirkular horretan lurralde-eskumenari buruz ezarritako xedapen guztiak bete-betean indarrean daudela ulertu behar da. Zirkular

honek berariaz aipatzen du 9/2015 Zirkularra.

Urriaren 16ko 2/2015 Zirkularrak (*Borondatezko Jurisdikzioaren Lege berria indarren jarri ondorengo lehen jarraibideei buruzkoa*) lurralde-eskumenik eza ofizioz planteatzen denean txostena idatziz egiteko aukera aipatzen du –xedapen hori indarrean dago bete-betean–.

Azaroaren 17ko 6/2015 Zirkularrak ere (*Nazioarteko adingabe-ostearen alderdi zibilei buruzkoa*) iritzia ematen du lurralde-eskumenari buruz, eta haren edukia hemen jasotzat jo behar da, bete-betean indarrean baitago.

Bete-betean indarrean daude lurralde-eskumenari buruz ekainaren 1eko 2/2018 Zirkularrean (*Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen babes juridikoaren arloko jarraibide berriei buruzkoa*) ezarritako xedapenak, baita ekainaren 24ko 2/2016 Zirkularraren (*Jokabide-arazoak dituzten adingabeak babes-zentro berezietan sartzeari buruzkoa*) 4.2 epigrafean jasotakoak. Haien edukia hemen jasotzat jo behar da, zirkular honen epigrafeetan zehaztu den bezala.

10. Ondorioak

1. Fiskalek irizpena emanda esku hartuko dute, demanda aurkeztu ondoren, epaitegiak ofizioz ikusten duenean lurralde-eskumenik eza egon daitekeela. Esku-hartze hori prozedura guztietan gauzatuko da, Fiskaltza alderdi izan zein ez.

Ez dute irizpenik eman behar Fiskaltzak esku hartzen ez duen prozeduretan alderdi batek eskatuta planteatzen diren eskumen-arazoetan, salbu eta deklinatoriaren bidez aginduzko forua urratu dela alegatzen bada.

2. Fiskalek deklinatoria sustatu ahal –eta behar– izango dute alderdi diren prozesuetan, tartean aginduzko foru bat egonda epaitegiak ofiziozko kontrola aktibatu ez badu.

3. Praktikan, maiz gertatzen da epaitegiek bidegabe planteatzea beren eskumenik eza, nahiz eta ez izan aplikatzekoa aginduzko forurik.

Horregatik, epaitegi zibil batek eskumenari buruzko irizpena eskatzen duenean, fiskalek lehenik eta behin aztertu behar duten kontua da ea aplikatzekoa den eskumena aginduz ezartzen duen araurik.

4. Epaitegi batek bere eskumenik eza planteatzen badu aginduzko forurik aplikatzekoa ez bada ere, Fiskaltzaren irizpenak agerian utzi behar du auzia planteatzea bidegabekoa dela; izan ere, kasu horietan lurralde-eskumenik ez dagoela soilik esan daiteke demandatuak edo epaiketan alderdi legitimo izan daitezkeenek deklinatoria garaiz eta forma egokiz proposatzen badute (ikusi PZLren 59. art.).

5. Epaitegiak ezin du ofizioz auzitan jarri bere eskumena alderdiek epaitegi jakin batzuen eskumendean jartzea itundu dutelako, kasu horietan aukera dagoelako isilbidez jartzeko eskumendean.

6. Hitzezko epaiketaren bidetatik izapidetutako prozeduretan, ez da baliozkoa esanbidez edo isilbidez eskumendean jartzea, kasu horietan epaitegiak beti planteatu ahal duelako ofizioz bere eskumena, egikaritutako uzia edozein dela ere. Aplikatu beharreko forua zehazteko, egiaztatu beharko da ea foru bereziren bat dagoen PZLren 52. artikuluan ezarritakoarekin bat. Bestela, demandatuaren egoitzari edo bizilekuari dagozkion foru orokorrak aplikatuko dira nahitaez (PZLren 50. artikulua, pertsona fisikoen kasuan, eta PZLren 51. artikulua, pertsona juridikoen eta nortasunik gabeko erakundeen kasuan).

7. Prozedura epaiketa arrunt gisa izapidetzen bada, aginduzko foru jakin bat aplikatu behar denean baino ezin izango du ofizioz planteatu bere eskumena epaitegiak.

8. Aginduzko foruak dira ere prozesu monitoriorako (PZL, 813.2 art.), kanbio-epaiketarako (PZL, 820.3 art.), zuzenketa-eskubidea egikaritzeko prozesurako (2/1984 LO, 4. art.) eta betearazpen-prozesurako (PZL, 545.3 art.) ezarritakoak. Halaber, aginduzko foruak dira kasu hauetarako ezarritakoak: pertsonen gaitasunari buruzko prozesuetarako (PZLren 756. art.); oinarrizko eskubideen babesari, ezkontzari eta adingabeei buruzko prozesuetarako (PZLren 769.4 art.); adingabeak babesteari buruzko administrazio-ebazpenen aurka jartzea eta adopzioari baiezkota eman behar zaion erabakitze prozedurarako (PZLren 779. art.); konkurtso-prozedurarako (KLren 10.1

art.) eta borondatezko jurisdikzioko espedienteetarako kasu bakoitzean ezarritakoak.

9. Halaber, aginduzkoak dira xedea dela-eta PZLren 52. artikuluan ezarritakoak, inoren ondasunen administratzaileek egin beharreko kontuen aurkezpen eta onespenera buruzko demandetarako eta berme-betebeharraren edo betebehar osagarrien gaineko demandetarako ezarritakoak salbu.

10. Pertsona fisikoen (PZL, 50. art.) eta pertsona juridikoen (PZL, 51. art.) foru orokorrak ez dira aginduzkoak. Prozedura dela eta –esate baterako, hitzezko epaiketa–, edo PZLren 52. artikuluko aginduzko foru batek ezarrita, esanbidez edo isilbidez eskumendean jartzerik ez dagoenean baino ezin izango da planteatu ofizioz arazoa, eta orduan planteatu ahal izango da inhibizioa demanda aurkezten bada epaitegi batean zeinaren barruti judizialean demandatuak egoitzarik ez duen.

11. Epaiketa arruntaren deklarazio-fasean, lurralde-eskumenaren ofiziozko kontrolaren denbora-muga aurretiazko entzunaldiaren egintza da.

Hitzeko epaiketaren deklarazio-fasean, lurralde-eskumenaren ofiziozko kontrolaren denbora-muga ikustaldiaren egintza da. Alderdiak azkenean ikustaldirik ez egitea aukeratzen badute, lurralde-eskumena ofizioz aztertzeke denbora-muga izango da, PZLren 438. artikuluen oraingo edukiaren arabera, ikustaldia egin behar den edo epaia eman behar den erabaki dezan, jarduketak epailearen eskuetara pasatzen diren unea.

Denbora-muga horiek igarota ofiziozko kontrola gauzatu nahi bada, fiskalek txostena egingo dute adierazteko inhibizioa bidegabea dela.

12. Demanda aurkeztu zaion epaitegiak eskumenik ez badu, aukerako foru bat baino gehiago badago, prozesua behar bezala izapidetzeko bidea da –beste epaitegi baten alde inhibitzeke erabakia hartu baino lehen– demandatzaileari eskatzea adierazteko aukerako foruetatik zein lehenesten duen. Izapide hori egiten ez bada, demandatzaileari kendu egiten zaio gure ordenamendu prozesalak berariaz aitortzen dion ahalmen bat.

Kasu horietan, oraindik egin ez bada, fiskalek txostena egingo dute ohartarazteko, PZLren 53.2 eta 58. artikuluekin bat, inhibitzeke erabakia hartu aurretik, demandatzaileari eskatu

behar zaiola adierazteko aukerako foruetatik zein lehenesten duen. Errekerimendu hori egin ondoren emango da ebazpena.

13. Ohikoa da eskumen-arazoak planteatzea, aplikatu beharreko aginduzko forua demandatuaren egoitzarena izanda (adibidez, hitzezko epaiketetan), epatzea egitean beste barruti judizial batean duen beste egoitza baten berri izatearen ondorioz.

Kasu horietan, hasierako eskaeraz arduratu zen epaitegia ez den beste bat eskudun izateko, ezinbestekoa da egiaztatzea gerora sortutako egitateen ondorioz ezagututako egoitza jada erreal edo benetakoa zela demanda aurkeztu zen unean. Horrenbestez, aldaketa geroago gertatu zela frogatzen bada edo inguruabar hori egiaztatzen ez bada, hasieran eskaeraz arduratu zen epaitegiak bere jurisdikzioari eutsiko dio.

Era berean, demandatzailearen egoitzaren forua aplikatu behar denean, aintzat hartu behar da demanda aurkeztu zen unean zuen egoitza, eta ezin da kontuan hartu demanda aurkeztu ondoren demandatzaileak izandako egoitza-aldaketa.

Edonola ere, aginduzko forurik ez badago, epaitegiak ezin du auzitan jarri ofizioz eskumena egoitza-aldaketaren ondorioz, nahiz eta egoitza-aldaketa hori demanda aurkeztu baino lehen gertatu.

14. Inhibitzeko erabakia Fiskaltza eta alderdi guztiak entzun ondoren edo deklinatoriaren ebazpena eman ondoren hartu bazen, jarduketak hartzen dituen auzitegiak ezin izango du deklaratu ofizioz eskumenik ez duela, nahiz eta aplikatzekoak izan aginduzko foruak.

15. Fiskaltzak eskumenari buruz ematen dituen irizpenek gutxieneko betekizun batzuk bete behar dituzte. Lehenik eta behin, arrazoitu egin behar dira, eta txostena egin duen fiskala behar bezala identifikatu behar da, urtarrilaren 27ko 1/2005 Instrukzioan (*Fiskaltzaren egintzen formari buruzkoa*) ezarritako estipulazioekin bat.

Bigarrenik, zehaztu behar da aginduzko forurik aplikatu behar den ala ez. Lehen zalantza hori argitzea funtsezkoa da ebazpen zuzena emateko.

Hirugarrenik, aginduzko forurik aplikatu behar bada, zein den zehaztu behar da.

Azkenik, espedientea bidali duen epaitegiak eskumenik ez duela uste bada, zehaztu behar da zein epaitegi den eskuduna.

16. Ahal den neurrian, jarduketa-batasunaren printzipioari eutsi behar zaio, kaltetuta geratu ahal baita prozedura batean esku hartzen duten bi fiskaltzek eskumenari buruzko irizpen kontraesanezkoak ematen badituzte.

Kausan jada badago fiskal baten irizpen bat eta inhibizioa jaso duen epaitegiak bere lurraldeko fiskaltzari eskatzen badio inhibitu den epaitegiari atxikitako fiskalak aurkeztutakoaren kontrako irizpena emateko, horren berri eman beharko zaio goragoko organo erkideari, justifikazio-txosten bat bidalita. Hala ere, irizpena aurkeztu ahal izango zaio epaitegiari. Horretarako, irizpena eman behar duten fiskaltzak autonomia-erkidego ezberdinetakoak badira, txostena bidali beharko zaio arlo zibileko aretoko fiskal delegatuari.

Irizpen kontraesanezkoa justifikatzeko txostena arloko edo probintziako fiskalburuaren bitartez bidaliko da.

17. Fiskalek dokumentu honetan jasotako jurisprudenzia-irizpideetan eta -jarraibideetan oinarrituko dituzte beren irizpenak, beste irizpide batzuk finkatzen ez diren bitartean.

18. Zalantzazko kasuei buruzko irizpena aukeratzeko, fiskalek beti hartuko dute aintzat bidegabeko luzamenik gabeko prozesua izateko eskubidea, eta benetako babes judiziala gehien errespetatzen duen aukera baliatu beharko dute.

Azaldutako guztia dela bide, arlo zibilean eskumenari buruzko xedapenen aplikazioan irizpide bateratu bat ezartzeko, aurrerantzean fiskalek zirkular honetan ezarritakoa beteko dute.

Madril, 2021eko apirilaren 30a.- Estatuko Fiskal Nagusia, Dolores Delgado García.

